

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3719

83/2016 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2120002) izendatzen duena.

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako Erabakien bidez, Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa; Aizkorri-Aratz eremua (ES2120002) ere tartean zegoen.

Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzkoa den Europako Kontseiluarren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikulua eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46. artikuluek ezarritakoari jarraikiz, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri ondoren, beren lurralde-eremuk BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta eremuok behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, kontuan hartuta lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen araberako betekizun ekologikoak. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Dekretu hau onartuta, gaur egun, eremu honetan, Naturagune Babestuaren tipologia bikoitza biltzen da, Parke Naturala eta Natura 2000 Sareko gunea baita. Horrenbestez, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraikiz, eremu hori antolatzeke mekanismoak koordinatu egin behar dira eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplika daitezkeen erregimen desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute. Bi tipologietarako dokumentu bakarraren legegintza desideratuma ezin da lortu Parke Naturalen kasuan, tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeke Plan baten (NBAP) bidez (NKLTBaren 20. artikulua) eta Parke Naturalen Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan baten (EKZP) bidez (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar baitira. Hala ere, posiblea da bi baliabide horiek, beren helburu eta edukiei dagokienez, Naturagune Babestuaren bi tipologia horien beharrak betetzea.

Dena den, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren tipologia desberdinen deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKZPa bideratzeko eta onartzeko, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokienez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 22.5 artikulua lehen paragrafoa) eta neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAan argitaratu behar izaten dira beti.

Gaur egun ezin izan da guztizko koordinazio hori lortu, besteak beste, NBAPen izapidetze luzeak ekarritako zailtasunengatik; izan ere, beste eremu batzuetan, horien egokitzapena atzeratu behar izan da. Horregatik, eta Dekretu honen azken xedapenetatik bigarreanean jasotzen denez, arau hau onartu ondoren, Dekretu honen II. eranskinak jasotzen duen Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren NBAPa aldatzeari ekin beharko zaio, NKLTBaren 18. artikulua aipatutako dokumentu bakarra – Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa dena– egiteko, betiere NKLTBaren 7. artikuluan aurreikusitako prozedura luze eta konplexua konfiguratzeko duten izapide prozesalak betez. Ildo horretatik, KBE izendatzeko Europako betekizunak bete beharko dira, eta horixek dira Dekretu honetan jasotzen direnak. Bestalde, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planeari txertatuko dira.

Dekretu honen helburua da Aizkorri-Aratz Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, KBE izendapen honekin batera aurkeztu beharreko kontserbazio-neurriak onartzea eta eremuaren mugak zehaztea (Eusko Jaurlaritzako eskumenekoak dira). Geroago, eta Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek Parke Naturalaren EKZPa bidaltzen dutenean, Eusko Jaurlaritzak plan horren araudiaren zati arautzailea onartuko du eta baliabide osoa EHAAn argitaratzeko aginduko du. Dekretu honen 3.2 artikulua ezarritakoarekin bat, EKZP horrek NKLTBaren 18. artikulua eskatutako bikoiztasuna beteko du, hau da, Parke Naturalaren EKZP gisa eta KBEa kudeatzeko jarraibide gisa erabiliko da, 22.5 artikulua bigarren paragrafoari jarraikiz. Horrela, eremu honen erregulazioa osatuko da eta 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikulua beteko da guztiz.

Horretarako, orain onartzen den dekretuak bi eranskin ditu. Lehenak KBEaren kartografia jasotzen du; bigarrenak, aldiz, NKLTBaren 22. artikulua ezarritakoa betetzen du. Azken hori Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da eta KBEari buruzkoa da soilik.

Aizkorri-Aratzen, Batasunaren intereseko 24 habitat-mota atzeman dira, gutxienez. Horieta, bost dira lehentasunezkoak. Eremuan, gutxienez, 92/43/EEE Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako bi flora-espezie daude eta zuzentarau horren II. eta IV. eranskinetan jasota dauden 11 fauna-espezie. Gainera, II. eranskinean bakarrik agertzen diren sei espezie eta IV. eranskinean agertzen diren 19 daude. Nabarmentzekoa da, gutxienez, , 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dauden 20 hegazti-espezie egotea. Horregatik guztiagatik, komeni da Aizkorri-Aratz mendialderako berriazko dekretu-proiektua egitea.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako betekizunak betetze aldera, Aizkorri-Aratz sakon aztertu da, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren intereseko habitaten banaketa; horrekin batera, haien kontserbazio-egoera ere ebaluatu da. Horretaz gain, gune horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da. Horren ondorioz, KBEa behin betiko mugatzeko, lan-eskala hobetu da eta zabaldu egin da. Horrela, KBEaren mugaketa eta izen bereko Parke Naturalaren mugaketa bat etorriko dira; horrek ez dakar funtsezko aldaketarik Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen habitat naturalen eta populazioen azaleraren irudikapenean. Guztiz eraginkorra izateko, KBEa zabaltzeak Europako Batzordearen Erabaki bidezko alde aurretiko balidazioa eskatzen du; beraz, eremuaren mugaketaren kartografiak eremu hori mugatzeko bi lerroak jasotzen ditu. Horrela, mugaketa berriaren eraginkortasuna eta zabalduetako eremua kontserbatzeko neurrien ezarpena Dekretu honen 1.3 artikuluan eta azken xedapenetatik lehenengoan jasotako baldintzapean daude, hurrenez hurren. Era berean, I. eranskinean jasotako Babeserako Eremu Periferikoa mugatu behar izan da, eremuaren balioetara egokitzen den prebentzio-araubide nahiak eta egokia ezartzeko.

Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozeduran, parte-hartze sozialaren prozesua behar bezala bete da, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta

justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztaillaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz. Prozesu horretan, interes sozial eta ekonomikoen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, publiko interesdunari komunikazioak helarazita eta egoitza elektronikoaren bitartez. Zehazki, <http://www.euskadi.eus/natura2000> webgunean, eremuari buruzko informazio eguneratua egongo da beti.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 19.1 eta 22.5. artikuluetan eta, bestetik, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betetzeko, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2016ko maiatzaren 31n egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Aizkorri-Aratz (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen da (hemendik aurrera, KBE), Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoetan.

2.– KBEaren mugaketa Dekretu honi atxikitako I. eranskinean jasotakoa da eta bat dator Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian bildutako Batasunaren Garrantzizko Lekuen mugaketarekin. Era berean, eranskin horrek eremuaren babeserako eremu periferikoa jasotzen du, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 19.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3.– Aurreko idatzi-zatian aurreikusitako mugaketa zabaldu egingo da I. eranskinean jasotako mugetara arte, Europako Batzordeak onetsi ondoren.

4.– Onartu egiten dira KBEa kontserbatzeko II. eranskineko neurriak. Horiek bat datoz Dekretu honen 3. artikulua ezarritako edukiarekin.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea honako hau da: KBEan bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbazioari buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, baita eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztia- ren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– KBEan, honako hauek ezarritako araubide orokorra aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaria eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 22.4. artikuluekin bat, II. eranskinak izendapena argudiatzen duten Batasunaren garrantzizko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak biltzen dituen informazio ekologia ez ezik, horien kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, eremu horren kontserbazio-helburuak, kontserbaziorako araudiak eta jarraipen-programa ere jasotzen ditu.

2.– KBEa kudeatzeko jarraibideak eta neurriak Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean txertatuko dira.

4. artikulua.– Funtsezkoa ez den berrikuspina edo aldaketa

II. eranskinean funtsezkoa ez den berrikuspen edo aldaketarik behar izanez gero, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, helburua da kontserbazio eta kudeaketa moldaeraz, etengabe eta malgu baterantz jotzea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 27/2006 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.– Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Dekretu honen aplikazio-eremuaren eraginpeko gune babestuetan, honako hauek ezarritako zehapen-araubide hau aplikatu behar da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak egiteko, bai Estatuko Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honen 3.1 artikulua aipatzen dituen kontserbazio-neurriak KBEa zabaltzeko 1.3 artikulua ezarritako eremuan jarriko dira indarrean, Europako Batzordeak Batasunaren Garrantzizko Lekuaren muga geografiko berrian onartzeko erabakia hartu izanaren berri ematen duen eta ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuaren agindua EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, Dekretu hau indarrean jartzearekin batera, zabaldutako eremu horretan, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.3 eta 6.4 artikuluek ezarritako prebentzio-araubidea aplikatuko da, baita Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikulua 4., 5. eta 6. idatzi-zatiek ezarritakoa ere.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau onartzen denean, Parke Naturalaren eta KBEaren mugak bat etortzeko prozedurari ekingo zaio, eta Parke Naturalaren NBAPa eremuan dauden naturagune babestuen tipologia horiek arautuko dituen dokumentu bakarra bihurtzeko prozedura ere abiaraziko da, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Busturian, 2016ko maiatzaren 31n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

MAIATZAREN 31KO 83/2016 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

KARTOGRAFIA

http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_83_2016/aizkorriaratz.json&lang=eu

MAIATZAREN 31KO 83/2016 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

AIZKORRI-ARATZ KBE-ARI DAGOZKION INFORMAZIO EKOLOGIKOA, KONTSERBAZIO-
HELBURUAK, KONTSERBAZIO-ARAUAK ETA JARRAIPEN-PROGRAMA**1.- SARRERA**

Aizkorri-Aratz Euskal Autonomia Erkidegoko mendi eremu nagusietako bat da. Nabarmentzekoa da Aratz eta Aloña mendien artean dagoen hormatzar malkartsua, bertan EAeko garaiera handienak baitaude. Karst moldeko agerpen asko eta askotarikoak ditu, eta azalera zabalak daude bertako basoetan eta larreetan. Eremu honetako kartsu jatorriak orografia malkartsua osatu du, eta badira haitzebaki nahiz kobazulo asko, baita paisaiari nahiz naturari begira balio handia duten mendi-hegalak ere.

Nabarmentzekoa da badirela hainbat habitat natural eta erdi natural, guztiak ere interes handikoak Biodibertsitatea European kontserbatzeko: hots, txilardi lehor azidofiloak, goi-mendietako ipurudi herrestariak, *Juniperus phoenicea*ren ipurudiak, larre harritar kaltzikolak, larre menditarrak, mendiko megaforbioak, hartxingadiak, kareharrizko harkaiztiak eta harkaizti silizedunak, kobazulo kontinentalak, pagadi azidofiloak, *Q. robur* espezieaz osaturiko harizti mesotrofoak, Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa, haltzadiak eta lizardiak. Horrez gain, badira ameztiak, erkameztiak, pagadi basofiloak, *Quercus petraea* hariztiak eta *Quercus pubescens* hariztiak. Inguru kareharriz osatuta dagoenez, ura erreserbatzeko toki garrantzitsua da; horrela, ibai garrantzitsuak sortzen dira, iturburuak ere bai, eta tranpal azidofilo-esfagnal, zohikaztegi eta istil ugari osatzen dituzte.

Hareharrizko gailur eta harkaiztietan, askotarikoa da flora menditarra, den-dena interes handikoa. Landare batzuk goi-mendikoak dira berez, eta Pirinioetako nahiz Mendi Kantauriarretako endemikoak, edo Iberiar Penintsularen iparraldekoak. Inguru higroturboso batzuetan, aintzat hartzeko moduko flora hazten da, oso bakana baita EAeri dagokionean; adibidez, Arbaraingo esfagnal-zohikaztegian. Bere osoan, Aizkorri-Aratzen flora espezie mehatxatu asko hazten dira, habitatak askotarikoak baitira. Hona hemen: *Narcissus asturiensis*, *Narcissus varduliensis*, *Carex hostiana*, *Hugueninia tanacetifolia*, *Lathyrus vibrantii*, *Silene ciliata*, *Sorbus hybrida* eta *Viola biflora*, besteak beste.

Eremu menditsu zabal honetan, badira baso-masa garrantzitsuak eta askotarikoak, gailur-lerro handiak, larre menditarrak eta txilardiak, errekek eta hezeguneak, eta fauna espezie askoren habitata eta babeslekua da. Nabarmentzekoak dira ornogabe troglobioak eta saproxilikoak, kiropteroak, harkaiztietako hegaztiak, eta basoko haragijaleak.

Aizkorri-Aratzen, gutxienez ere Batasunaren Intereseko 24 habitat mota daudela egiaztatu da, eta haietariko bostek lehentasuna dute, guztiak ere natur habitaten, eta basafaunaren nahiz basaflorearen kontserbazioari buruzkoa 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean jasota. Habitat Zuzentaria deritzo. Lekuan gutxienez aipatu Habitat Zuzentarauaren II. eta II. eranskinetan sarturiko bi flora espezie daude, II. eta IV. eranskinetan sarturiko 11 fauna espezie, eta era berean, II. eranskinean bakarrik sarturiko 6 espezie eta IV. eranskinean sarturik dauden 19. Bestalde, nabarmentzekoa da gutxienez ere 20 hegazti espezie daudela jasoak 2009/147/EE Zuzentarauaren I. Eranskinean (basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa da edo Hegazti Zuzentaria).

Nolanahi ere, Aizkorri-Aratz mendigunea, beste EAeko mendi batzuekin batera, korridore biogeografiko nabarmena da Pirinioen eta Kantabriar Mendikatearen artean.

Abeltzaintza estentsiboa, zura ateratzea eta naturako turismoa dira naturaguneko jarduera ekonomikorik bereizgarrienak; era berean, EAEko eremurik garrantzitsuenetakoa da ardi latxa larratzeko, eta harekin batera, behi-azienda eta zaldi-azienda ere bazkatzen dira. Artzaintza erabilerak oso natur eta gizarte balio handiko paisaia gizatartua sorrarazi du, eta ugariak dira bordak edo saroiak.

Zelai eta larreak, eta txilardiak, abeltzaintzari esker mantendu egin dira, hain zuzen abeltzaintzak eragotzi egiten duelako landare-formazio horiek dagokien landaretza-seriearen etapa helduagoetarantz bilaka daitezen.

Eskualde honetako basoak zur eta egur iturria izan dira aspaldidanik, eta jarduera horren ondorioak batez ere pagadietako askoren heldutasun ekologiko txikian ageri dira, gutxi egituratutako eta zuhaitz garaikidez osaturiko basoak eratu baitituzte.

Erabilera publikoa handia da, batez ere Gipuzkoako eta Arabako jende askok txangoak egiten dituelako. Barruan Arantzazuko Santutegia dago, hots, lehen mailako erakarpen gunea erlijioari eta turismoari begira.

Naturagunea, gainera, korridore nagusietako bat da Oria eta Deba ibaien ibarretan barrena doazen hegazti migratzaileentzat; horren haritik, ehiza-postu asko daude, usoa eta birigarroak harrapatzeko, batez ere.

Hori guztia gogoan, Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren ekimenaz, apirilaren 4ko 75/2006 Dekretuan onartu zuen Aizkorri-Aratz alderdiko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana (2006ko maiatzaren 19ko EHAA), Euskal Herriko naturaren kontserbaziorako ekainaren 30eko 16/1994 Legearekin bat, eta apirilaren 21eko 76/2006 Dekretuan, Aizkorri-Aratz parke Naturala deklaratu zuen, eta Parke Naturalaren deklarazioaz babes erregimen bat eman zitzaion.

Aizkorri-Aratzen dauden espezie eta habitaten aberastasuna dela eta, eta natur habitaten, eta basafaunaren nahiz basaflorearen kontserbazioari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritako betebeharrekin bat, naturagunea Batasunaren Garrantzizko Leku gisa sartzeari proposatu zen 1997an, Europako Natura 2000 Sare Ekologikoan txertatzeko. Proposamena Europako Batzordearen 2004/813/EB erabakiaren bidez onetsi zen, 2004ko abenduaren 7an.

Dokumentu honek bete egiten ditu Habitaten 92/43/EEE Zuzentaruak ezarritako betebeharrak, zuzentaru horren 4. artikulua arabera, Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izendatu behar baitira. Horretarako, behar adina kontserbazio neurri ezarriko dituzte, aipatu Zuzentaruaren I. eta II. Eranskinetan zehaztutako eremu horietako berezko habitat mota guztien eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko.

Aizkorri-Aratz KBEko ingurumenaren kudeaketan eragin dezaketen edo kudeaketa zehaztu dezaketen natura alorreko baldintzatzaileen eta baldintzatzaile sozioekonomikoen azterketa bat jasotzen du dokumentu honek. Ereku honetako natur balioak aztertuta, tokiko kudeaketarako funtsezkoak diren elementuak bereizten dira, horietatik izango baitira helburuen proposamenen eta kontserbazio neurrien funtsezko oinarriak, **kontserbatzeko betebeharren eta garapen sozio-ekonomikoaren arteko oreka bilatuz eta kontuan izanik aplikagarri den araudiak ezarritako babes eremuaren mugen baitan dauden jarduera ekonomikoak eta bertako auzoen finkamendu alorreko arazoak.**

Dokumentu honetan jasotako helburuak eta erregulazioak zehaztuta, funtsezko elementuen edo kudeatzeko xede diren elementuen kontserbazio-egoera hobetzeaz gain, leku honetan presentzia handia duten gainerako habitat eta basa-espezieen egoera ere hobetzea bilatzen da, habitat eta espezie horiek ahalbideratu baitute leku hau Natura 2000 Sareko espazio izendatzea. Era berean, tresna honen eta etorkizunean berau ordezkatzeko duten tresnen azken helburua lortzea da xedea, edo gutxienez aurreratzea: tokiko osotasun ekologikoa berritzea edo, hala behar duenean, hari eustea, eta Natura 2000 sare ekologikoaren multzoan zentzuz biltzea.

Dokumentu honi jarraikiz hartutako neurriek, bai eta dokumentutik erator daitezkeen ere, eskakizun ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan hartuko dituzte, eta, ahal den neurrian, erabilera eta aprobetxamendu tradizionalekin bateratzen ahaleginduko dira, bai eta gizarte-eskaera berriei (hala nola aisialdiari eta jolasari, ingurumen-hezkuntzari eta ikerketari) erantzuteko litezkeen beste batzuekin ere, espazioaren babesaren oinarrian dauden balioak galtzea eragin dezaketen aldaketak saihestuta.

Modu objektiboan egiaztatu daitezkeen adierazleen jarraipen programari esker ebaluatu ahal izango dira helburu horren betetze maila nahiz dokumentuan zehazten diren helburu zehatzen betetze maila.

Helburu eta arautze horiek hurrengo urteetarako bide-orria zehazten dute, baina 8. zenbakian dokumentuaren jarraipen-programa jasotzen da, sei urteko alditan gauzatuko dena.

2.- INFORMAZIO OROKORRA

2.1- KOKALEKUA ETA MUGAK

Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120002) eskualde biogeografiko atlantikoan dago. Aizkorri Mendiko guneko karstikoaren parte da. Katastro-informazioa kontuan harturik eskalan egindako doikuntzaren ondotik, lekuaren luze-zabalera 15.937,41 ha da, eta ekialdetik mendebaldera zabaltzen dira Gipuzkoa eta Araba artean; betiere, azalerarik handiena Gipuzkoan dago. Hona hemen lekua mugatzeko eta kokatzeko oinarritzko datuak (1. taula)

Aizkorri-Aratz	
Lekuaren kodea (KBE)	ES2120002
BIL izateko proposatu zen data	1997/12
BIL gisa onetsi zen data	2004/12
NBAP onetsi zen data	2006/4
Parke Natural izendatu zen data	2006/4
Erdigunearen koordinatuak	2° 22' 47" W 42° 57' 27" N
Azalera (ha)	15.937,41 ha
Perimetroa (m)	183 km
Gutxieneko altuera (m)	227 m

Aizkorri-Aratz	
Gehienezko altuera (m)	1.549 m
Batez besteko altuera(m)	877 m

1. Taula Aizkorri-Aratz KBEaren identifikazioa eta kokalekua.


Aizkorri-Aratz naturagune babestua Babesteko Ingurua (3.480,5 ha) bat dator Parke Naturalerako ezarritakoarekin, eta NBAPean eta EKZPea oro har ezarritako jarraibideen, arauketen eta jarduketan mende dago.

2.2.- JABETZA ERREGIMENA

Naturagunean sartutako lurraldea 11 toki-entitatetan dago guztira, zeinen artean hamar udalerrri eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorra baitaude. Honako hauek dira lekuari lur-ekarpena egiten dioten toki-erakundeak eta lur horrek eremuko eta lekuan lekuko lur guztiarekin alderatuta daukan garrantzi erlatiboa:

Udalerrria	Udalerrriaren azalera KBEaren baitan (ha)	Udalerrriaren azalera (ha)	KBEk udalerrrian hartzen duen ehunekoa	Udalerrriak KBEan hartzen duen ehunekoa
Asparrena	2.532,25	6.498,74	38,97	15,89
Donemiliaga	121,18	8.498,70	1,43	0,76
Zalduondo	452,34	1.201,32	37,65	2,84
Aretxabaleta	994,42	2.690,57	36,96	6,24
Zegama	1.129,08	3.511,74	32,15	7,08
Zerain	135,65	1.023,03	13,26	0,85
Eskoriatza	1.573,11	4.023,76	39,10	9,87
Legazpi	810,81	4.208,88	19,26	5,09
Oñati	4.237,76	10.754,38	39,40	26,59
Leintz-Gatzaga	784,16	1.475,57	53,14	4,92
Partzoneria Orokorra	3.166,66	3.166,86	99,99	19,87
GUZTIRA	15004,49			

2. Taula Aizkorri-Aratz KBEa biltzen diren udalerrrien zerrenda eta leku honetan duten azalera. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kartografia.



1. Irudia Aizkorri-Aratz KBEan biltzen diren udalerrien eta entitateen banaketa.

Naturagunearen ekialdean, baso-masa eta herri belardi gehienak Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorrek kudeatzen ditu. Partzoneriaren Batzorde Nagusiari dagokio bere jabetzapeko ondarearen aprobetxamenduak administratu, kudeatu, ustiatu eta esleitzea, bere mendien aprobetxamenduen arautze tradizional eta ohiturazkoari jarraikiz, oso aspalditik betetzen diren toki-ohiturak eta -usadioak jasotzen baititu.

Partzuergoak toki-erakundeak dira, Toki-araubideko gaietan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuak (apirilaren 18ko 781/1986) 37. artikuluan araututako lurraldea eta antolaketa dituzte, eta daukaten helburu nagusia da beren lurraldea (gehienbat herri-onurako mendiak) administratzea, ustiatzea eta erabiltzea, horretarako, oraindik ere, arau ohiturazkoak edo tradizionalak erabiliz.


Partzoneriaren estatutuekin bat, lurralde barruko aprobetxamenduen onuradunak huraxe osatzen duten Udaletan erroldatutakoak dira, baina, erabilera jakin batzuetarako, errotze, lotura edo iraute betebeharra ere eska daiteke, erabileraren edo ohituraren arabera, eta baliabide jakin batzuk erabili ohi dituen jendeari dagokionean.

Era berean, hitzarmen batek arautzen du Oñatiko Udalaren eta Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorren arteko larre eta ur zortasuna, Artia, Aloña, Urbia eta Oltzako aspaldiko aprobetxamenduak aitortzen dituen.

Partzuergoko Batzordeak antolatzen ditu aprobetxamenduak, ohiturazko jardunbideak biltzen dituen urteko aprobetxamendu-programa baten bidez, bai eta Basoa eta Larratzea Antolatzeko Planaren bidez ere, eta antolaketa hori, geroago, foru-

administrazio eskudunari aurkezten zaio, onar dezan. Partzuegoak, besteak beste, honako alderdi hauek arautzen ditu nagusiki: baso-aprobetxamendua, ehiza- eta arrain-jardueretarako erabilera eta larratzeko izan daitezkeen baliabideen erabilera.

Aizkorri-Aratz eremuko azaleraren % 60 Erabilgarritasun Publikoko Mendiak dira. Araba aldeko azalera osoak dauka sailkapen hori, eta Erabilgarritasun Publikoko Mendiak Administrazio Batzordearenak dira. Gipuzkoan, aldiz, lur pribatuak askoz ere zabalagoak dira.



2. Irudia Aizkorri-Aratz KBEan sarturik dauden Erabilgarritasun Publikoko Mendien banaketa (laranja). Urdinez titulartasun partikularren azalera dago adierazia, eta laranja, publikoarena.

Mendiei buruzko 43/2003 Legaren 12. artikulua dio Erabilgarritasun Publikoko Mendien Katalogoan sarturiko mendiak jabari publikokoak direla eta baso jabari publikoa osatzen dutela. Ur, meatze edo beste administrazio-emakida batzuetatik eratorritako okupazioak edo erabilerak mendi salbuespenak dira mendi publikoetan, eta Araban, Arabako Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 24., 25. eta 26. artikuluek araututa dago, eta Gipuzkoan, berriz, Gipuzkoako Mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauaren 30., 31., eta 32. artikuluek.

Era berean, jabetza publikoarenak dira jabari publiko hidraulikoari dagozkion KBEko lurrak, beste ondasun batzuen artean «korrante naturaleko ibilguak, etenak, eta etenak ez direnak» biltzen baititu. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren (JPHA) arabera, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren egungo erredakzioan «Korrante etengabeko edo eteneko ibilgua da ohiko uraldi goretan urek estaltzen duten eremua. Lurralde hori bere ezaugarri geomorfologikoak eta ekologikoak kontuan izanik eta dauden informazio hidrologiko, hidrauliko eta kartografikoak aintzat harturik zehaztuko da, baita dauden argazkiak eta eskura dauden erreferentzia historikoak kontuan izanik ere» (4.1 artikulua).

Bestalde, ibilgu publikoekin muga egiten duten lurren ertzek honako hauek bete behar dituzte bere luzera osoan:

- Erabilera publikorako bost metro zabaleko zortasun aldea gordeko dute, araudi honetan arautzen denari jarraiki.
- Ehun metroko zabalera duen polizia edo zaintza-eremua gordeko da, eta bertan garatuko diren lurzoru erabilerak eta jarduerak baldintzatuko dira.

Eremu horien erregulazioak jabari publiko hidraulikoaren egoera zaintzeko helburua du, baita uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzeko eta berau hobetzeko helburua ere, eta uholdeetan korronteen erregimena babestea du helburu, alboetako lurrek ibilguen laminazioan eta garraiatutako zama solidoan duen egitekoa ahalbideratzeko.

2.3.- BESTE BABES IRUDI BATZUK

Parke natural izendatzeaz gain, 1997an onartutako Lurraldea Antolatzeko Jarraibideen «Natur Interesa duten Eremuen Zerrenda Irekian» jaso da espazio hau, eta beraz, lurralde, arlo eta udal plangintzak kontuan edukiko du alde honetako balio ekologiko, kultural eta ekonomikoen babesa. Era berean, lekua dago Arrasate-Bergarako (Deba Garaia) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planen aplikazio-esparruan, apirilaren 12ko 87/2005 Dekretuz onetsitakoa; halaber, Beasain-Zumarragako (Goierrri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planen aplikazio-esparruan, irailaren 29ko 534/2009 Dekretuz onetsitakoa, eta Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalenean, gaur egun hasiera batez onetsita dagoena 2014ko apirilaren 10eko agindu bidez.

Era berean, 2014ko irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onarturiko EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Natura Intereseko Eremutat hartzen du KBEaren esparrua, eta EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuan sartzen ditu bertan dauden erreka guztien ertzak. Ildo berean, EAEko Eremu Hezeen Arloko Lurralde Planak Elgea-Urkillako tranpal batzuk jaso ditu gutxienez eta Barrendiolako urtegia ere bai.

Gainera, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren proposamenean dago leku hau bere osotasunean.

Azkenik, esan dezagun KBE barruan erregistraturik dauden flora espezie ugari eta 43 fauna espezie Fauna eta Floraren Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan bilduta daudela (2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, EAEko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena eta testu bakarra onartzen duena eta 2013ko ekainaren 18ko Agindua, EAEko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena). Era berean, Aizkorri-Aratz eremuaren goi-ibarreko erreka guztiak Intereseko Eremutat jo dira bisoi europarra (*Mustela lutreola*) Kudeatzeko Planean, espeziea hedatzeko.

2.4.- NATURA 2000 SAREKO BESTE LEKUEKIN DUEN HARREMANA

Aizkorri-Aratz EAEko iparraldeko mendiek osatzen duten ardatzaren parte da. Ekialdetik mendebaldera doa Aralartik abiatuta, Aizkorri-Aratz, Urkiola, Gorbeia eta Arkamo; eta penintsulari dagokionez, ekialderantz Pirinioetako gailurrei lotuta dago, eta Kantabriar mendikateari, mendebalderantz.

Aralar eta Aizkorri-Aratz artean, Erabilgarritasun Publikoko Mendiaren kalifikazioa duen lurralde bat dago (Idiazabal eta Gipuzkoako Partzoneria); bertan, azalera nabarmeneko pagadi azidofiloak hazten dira. Bi lekuen arteko korridorean, dena den, badira bi hesi garrantzitsu: Etxegarateko A1 autobia eta, hein txikiagoan, Otzaurteko errekaen ondotik doan Zegamako eta Segurako errepidea. Lehena edukiera handiko errepidea da. Hemen ere ez dugu daturik faunaren hilkortasunari buruz, baina Gipuzkoako aldean ez dago faunarentzat behar bezalako pasabiderik, eta hori ikusita, uste izatekoa da hesi garrantzitsua dela lurreko faunaren mugimendurako. Bi errepideen ingurunean baso landatu asko dago, eta zati batean lehengoratuko balira, nabarmen murriztuko litzateke faunak mugitzeko duen erresistentzia.

Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak (Goierrri) KBEa Aralarko Parke Naturalarekin lotzeko korridore bat proposatu du, eta eremu hori dago Lurraldearen Zatikako Planaren Babes Bereziko kategorian sartua.

Gorbeiara bitarteko esparru libreak ere Erabilgarritasun Publikoko Mendi lurralde bat zeharkatzen du; bertan, Albinagoiako pagadia, eta Motxotegiko, Albinako eta Albertiako basoak daude. Baso-zatiak baso-sail landatuekin txandakatzen dira; baso-sailak oztopo handiagoak dira basa espezieen ibilerarako. Edukiera handiko AP1 autobiak eragin lezakeen hesi efektua ahalik eta gehien murriztu du Isuskitzako tunelak, baina zoritxarrez, toki horretan ugari dira baso landatuak. Urrunagako urtegia da beste hesi nabarmena; haren bukaeran, lurraldea artifizialagoa da; beraz, oztopo handiagoa da basa faunaren ibilerarako.

Gorostiaga eta Udalaitz mendiak onuragarriak dira Urkiolarekiko loturarako. Mendien artean dauden ibar-eremuetan landazabal atlantikoa dago, baina era berean, handiagoa da eremu urbanizatuen eta azpiegituren dentsitatea.

Aldaiako Mendiak KBEa hurbil dago, hegoaldean; funtsean, baso-eremu bat da, baina baso helduen hurrenez hurrenko etapak ere baditu, eta bi guneek habitat batzuk partekatzen dituzte, hala nola txilardi oromediterranearrak, erkameztiak eta karraskadiak, baina habitat horiek estaldura urriak dituzte Aizkorri-Aratzen. Bi guneen arteko lotura bien artean dagoen nekazaritza-eremuak baldintzatuta dago, baina Ugaranaerrekatik doan korridorea lehengoratu balitz, lotura hori nabarmen hobetu liteke, gaur egun *Pinus radiata* espeziearen baso-sailez inguratuta baitago. Korridorea, gainera, Elgeako Mendiko goi-ibarreko pagadiei dago lotua, Aizkorriren mendebaldean, eta Alabitako basoarekin; aipatu baso-sailak lehengoratzeko aukera nabarmenak daude. Bestalde, Aldaiako Mendien eta eta Bereingo mendiko erkameztien artean, badira sendotu litezkeen berezko lotura-egiturak, guneari jarraipena emateko Aizkorri-Aratzen ekialderantz, eta mendian barna aipatu KBERaino iristen diren albiztietan eta erkameztietan barrena, Narbaxa, Arriola eta Galarreta herrien iparraldean.

Barrundia ibaiaren KBEaren baldintzak hobetzea, era berean, lagungarria izan liteke konektibotasun ekologikoa hobetzeko Aldaiako Mendien ekialdearekin; lehenik, behertarteetako haltzadi etenen lotuta, eta gero, goi-ibarreko tartearrekin, KBEko haltzadien kontaktuan dauden malda handietako baso-eremu batean behera baitoa; malda horietan ametza da nagusi (*Quercus pyrenaica*) eta, era berean, larizio pinu landatua eta pinu gorria. Goi-ibarreko tartearrekin ibilgu estua du, baina ondo kontserbatuta dago, eta urlasterrak etab urgeldiak daude. Aldaiako iparraldean eta Barrundia ibaiaren artean, badira arantzadiz eta sahasiz osaturiko lotura-egitura linealak; egitura horiek funtzionaltasun hobe izan lezakete, bi guneen artean landare-hesiak landatuko balira.

3.- INFORMAZIO EKOLOGIKOA

3.1.- HABITAT NATURALAK ETA ERDI NATURALAK

Deskribatutako esparru potentziala milaka urtean eraldatu du giza jarduerak. Landaredia naturalak eta erdi naturalak KBEko azaleraren % 77,65 hartua dute; horietariko 24 komunitate Batasunaren Intereseko Habitatak dira, eta guztira, 8.944,77 hektareako azalera dute; hau da, Aizkorri-Aratz eremuko % 56,1. Habitat horietariko bost lehentasunez kontserbatu beharrekoak dira EBn (5. taula).

Ondoko taula honetan Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean erabilitako izena baliatzen da habitat bakoitzarentzat, eta Batasunaren Intereseko habitata ez denean, Europako Ingurumen Agentziako sailkapen sisteman (EUNIS) zehaztutakoa erabiltzen da.

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEaren esparruan	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adier azgar ritasu na	KBEaren kontserbazio- egoera	Kontserbazio- egoera EAEn
4020* /F4.12	Eremu epeletako txilardi heze atlantiarrak <i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i> espezieekin / Txilardi kantauriar higrofiloak <i>Erica tetralix</i> espeziearekin	5,46	0,03	6,13	ZK	Txarra-Ezegokia	Txarra-Ezegokia
4030 F4.21(X), F4.21(Y), F4.23(X), F4.237	Txilardi lehor europarrak / Ahabidia, <i>Erica arborea</i> txilar garaia, <i>Ulex</i> sp espeziea nagusitzen den txilardi atlantiarra, Kantauri-Pirinio aldeko txilardiak <i>Erica vagans</i> eta <i>E.cinerea</i> espezieekin.	1.254,79	7,87	18,56	A	Ona	Ona
4060 F2.23	Goi-mendietako ipurudi herrestariak / Sasidi alpetarrak eta borealak <i>Juniperus communis</i> subsp. <i>alpina</i>	3,93	0,02	12,95	A	Txarra-Ezegokia	Ona
4090/ F7.44 (Y), F7.44 (Z)	Txilardi kaltzikola genistadunak / Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin	170,69	1,07	2,76	B	Ona	Ona
F3.11(X), F3.11(Y), F3.13, F3.17, F3.22	Sasidi garaiak: arantzadiak, lahardiak eta urriztiak	117,92	0,74	-	-	-	-
FA.3	Bertako espezieak dituzten landare-hesiak.	5,60	0,04	2,91	-	-	-

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEaren esparruan	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adier azgar ritasua	KBEaren kontserbazio- egoera	Kontserbazio- egoera EAEn
5210/ F5.132	Juniperus phoenicea-ren ipurudiak / Ipurudi-bujedo	4,99	0,03	14,53	A	Ona	Ona
6170/ E1.27	Larre alpetar eta azpialpetar karedunak / larre karedun harritarrak	412,57	2,59	11,43	A	Ona	Ona
6210/ E1.27	Larre bizikor mesofitikoak eta mesoxerofitikoak kareharrizko substratuen gainean, <i>Festuco- Brometea</i> / Albiztiak eta <i>mesobromion</i> taldeko larreak.	121,20	0,76	6,86	B	Ona	Txarra- Ezegokia
6230*/ E1.72	<i>Nardus</i> dun formazio belarkarak, espezie ugarirekin, menditar substratu silizedunen gainean (Eta Europa kontinentaleko eremu azpimenditsuetakoak) / <i>Agrostis</i> eta <i>Festuca</i> espeziez osaturiko larreak, Larre silizedunak (<i>Deschampsia flexuosa</i>).	1.036,20	6,50	18,25	A	Ona	Ona
6430/ E5.53	Maila menditarretik alpetarrera bitarteko ordoki-orletako megaforbio eurotofo hifrofiloak /Megaforbio pininiotarrak eta iberiarrak.	0,04	0,00	0,27	ZK	Txarra- Ezegokia	Txarra- Ezegokia
6510/ E2.21	Altitude txikiko sega- belardi pobreak / Larratu gabeko sega-belardi atlantiarrak	84,93	0,53	5,32	D	Txarra- Ezegokia	Txarra- Ezegokia
7140/ D2.3	Trantsizioko mirak / Tranpal azidofiloak- esfagnalak	3,54	0,02	2,88	ZK	Txarra- Ezegokia	Txarra- Ezegokia
7220 /C2.12	Trabertinoen landaredia / Iturburu petrifikante tofikoletako landaredia (trabertinoak)	0,06	0,00	8,74	ZK	Txarra- Ezegokia	Txarra- Ezegokia
8130/ H2.64	Askatze mediterraneoak, mendebaldekoak eta termofiloak / Kareharrizko hartxingadietako landaredia	14,19	0,09	7,09	B	Ona	Ona

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEaren esparruan	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adier azgar ritasu na	KBEaren kontserbazio- egoera	Kontserbazio- egoera EAEn
8210/ H3.2	Kareharrizko malkar arroksuetako landaredia kasmofitikoa / Harkaizti basikoetako landaredia	593,48	3,72	20,79	A	Ona	Ona
8220/ H3.1	Malda arroksatu silizedunak landaredia kasmofitikoarekin	3,19	0,02	5,72	ZK	Ona	Ona
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	-	-	-	B	Txarra- Ezegokia	Ona
9120/ G1.62	Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus (Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici- Fagenion</i>) / Pagadi azidofilo atlantikoak. .	4.449,95	27,92	30,79	A	Txarra- Ezegokia	Txarra- Kaskarra
9160/ G1.A1(Y)	<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpialpetarra /Harizti mesotrofo azpialpetarra	13,46	0,08	2,31	D	Txarra- Ezegokia	Txarra- Kaskarra
9180* G1.A4	Maldetako basoak, askatzeak edo <i>Tilio-Acerion</i> deritzonaren trokak / Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa	0,89	0,01	0,21	B	Txarra- Ezegokia	Txarra- Kaskarra
91E0*/ G1.21(Z)	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezietako baso alubialak / Ibaiertzetako haltzadi eurosiberiarra	31,84	0,20	2,65	D	Txarra- Kaskarra	Txarra- Kaskarra
9230 G1.7B1	Harizti galaiko- portugaldarrak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -rekin / Iberiar Penintsularen erdialdeko <i>Quercus pyrenaica</i> basoak, amezti kantauriarrak	482,42	3,03	12,56	B	Txarra- Ezegokia	Txarra- Kaskarra
9240/ G1.77(V)	<i>Quecus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> espeziez osaturiko harizti iberiarrak / Amezti azpiatlantiarra	233,15	1,46	3,82	ZK	Txarra- Ezegokia	Txarra- Kaskarra
9340/G2.1 24(Y)	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> espezietako artadiak / <i>Quercus ilex</i> baso mesomediterranearrak	13,20	0,08	0,16	D	Txarra- Ezegokia	Txarra- Kaskarra

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEare n esparru an	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adier azgar ritasu na	KBEaren kontserbazio- egoera	Kontserbazio- egoera EAEn
G1.64	Pagadi basofiloa edo neutroa	2.107,48	13,22	15,32	-	Txarra-Ezegokia	-
G1.82	Pagadi-harizti azidofilo atlantiarra	2,65	0,02	0,28	-	Txarra-Ezegokia	-
G1.71	<i>Quercus gr. pubescens</i> erkameztia	273,46	1,72	73,26	-	Txarra-Ezegokia	-
G1.86	Harizti azidofilo iberiar-atlantiarak	85,27	0,54	1,96	-	Txarra-Ezegokia	-
G4.(Z)	<i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus ilex</i> espeziez osaturiko baso mistoa	5,16	0,03	21,69	-	Txarra-Ezegokia	-
G1.86(X)	<i>Quercus petraea</i> nagusi den harizti azidofiloa	487,78	3,06	63,58	-	Txarra-Kaskarra	-
G1.A1	Hostozabalen baso misto mesotrofo atlantiarra	2,66	0,02	0,56	-	-	-
G1.91	Urkidia	11,92	0,07	6,89	-	-	-
G1.A1(X)	Harizti mesotrofo atlantiarra	2,19	0,01	0,35	-	Txarra-Ezegokia	-
G1.A1(Y)	Harizti mesotrofo azpiatlantiarra	13,46	0,08	2,37	-	Txarra-Ezegokia	-
9580*/G4.(Y)	<i>Taxus baccata</i> espezieaz osaturiko baso mediterranearrak / Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa, hagin ugariekin.	10,60	0,07	13,55	B	Txarra-Ezegokia	Txarra-Kaskarra
	GUZTIRA	12.060,32	75,65				

5. Taula Habitat natural eta erdi-natural garrantzitsuenak eta Aizkorri-Aratz KBEan hartzen dituzten azalera. EUNIS kodea: Europako Ingurumen Agentziak garaturiko sailkapen sistema. EBko kodea: Habitategi buruzko Zuzentaruak ezarritako intereseko habitatak. (*): Lehentasunezko habitatak Iturria: EAEko habitat, egungo landaredia eta lurzoruen erabileraren Kartografiatik (2009) eta EAEko Batasunaren Intereseko Habitaten kartografiatik (2012) egokitua. Oharra: Ehuneko horiek kalkulatzeko, «2012. urteko Batasunaren Intereseko habitaten mapa», 1:10.000 eskalan egina, eta 2013. urteko Natura 2000 Sarearen Mapa, 1:25.000 eskalan egina, hartu dira erreferentziatzat (Ingurumen eta Lurralde Politika Saila).

2009an berrikusitako EUNIS inbentarioan esaten da ez daudela aurreko inbentarioetan kartografiatutako habitat batzuk. Zehazki, honako habitatik ez dago:

- Mineral eduki oso txikia duten ur oligotrofikoak (*Littorelletalia uniflorae*) EBko kodea: 3110. Habitat hori, EAEn, Izkin baizik ez dago.
- *Salix eleagnos* landaredi zurrakara duten ibai alpetarrak (EBko kodea: 3240). Ez dago EAEn

- Belar komunitate higrofilo mediterranearrak (EBko kodea: 6420). Oker bat izan liteke eta, egiazki, EBko kodea: 6430 habitata izan (hau da, Ordoki bazterreko eta estai menditar eta alpetarreko megaforbio eutrofo higrofiloak), Aizkorri-Aratzen ba baitago.
- Cephalanthero-Fagion pagadi kaltzikola erdieuroparrak (EBko kodea: 9150). Ez dago Aizkorrin.
- Eskualde Atlantiarreko, Alpetarreko, Meditarrenearreko eta Makaronesiarreko lertxundiak, zumardiak eta sahasiak (EBko kodea: 92A0). Albeniz eta Egino arteko trantsizioko haltzadiak 91E0* kodean sartu dira.

Aitzitik, diagnosi honetarako egindako landa-lanetan, baieztatu dugu aurreko inbentarioetan jasota ez dauden honako habitat hauek egon badaudela:

- *Juniperus phoenicea*ren ipurudiak (EBko kodea: 5210).
- *Erica ciliaris* espezieaz osaturiko txilardi heze atlantiarrek (EBko kodea: . 4020).

3.2.- FLORA

Flora, nagusiki, karologia eurosiberiarreko elementuz osatuta dago; espezie europar epelak eta espezie atlantiarrek, batez ere; baina espezie boreal-alpetar-piriniotar multzo txiki bat da nabarmentzekoa KBEko gailur garaienetan, eta horrek aberastasun berezia ematen dio naturaguneari.

Elementu endemiko piriniotar, kantauriar, edo piriniotar-kantauriarrari dagokionez, nabarmentzekoa da holako ugari direla Aizkorri-Aratzen. Besteak beste, honako espezie hauek aipa genitzake, horietako asko Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutakoak: *Asperula hirta*, *Gentiana occidentalis*, *Geranium cinereum*, *Hugueninia tanacetifolia subsp. suffruticosa*, *Aconitum variegatum subsp. pyrenaicum*, *Carex caudata*, *Leucanthemum gaudinii subsp. barrelieri*, *Dethawia splendens*, *Lilium pyrenaicum*, *Festuca gautierii*, *Lathyrus vibrantii*, *Armeria pubinervis*, *Viola bubanii*, *Genista teretifolia*, *Narcissus minor (N. asturiensis)*, *Narcissus pseudonarcissus gr. nobilis-varduliensis* eta *Saxifraga losae*.

Bestalde, aipagarria da antzinako azterketetan aipaturiko espezie batzuk ezin izan direla baieztatu azken urteotan, hala nola *Meum athamanticum* Araotz inguruan, *Leontodon pyrenaicus* San Adrian aldean, *Senecio carpetanus* eta *Arnica montana* Aloñan, *Apium inundatum* Otzaurten, eta *Daphne cneorum* eta *Galanthus nivalis* Zاراia aldean. Azken espezie hori Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartu zen, herbario-plegu batek espeziea lurralde honetan gutxienez iragan mendearen hasiera bitarte egon zela baieztatzen duelako, eta horixe dugu EAerako erreferentzia bakarra.

Mendi-larreetao habitaten ikerketa botanikoek adierazten dute haien lore-osaera zabala eta askotarikoa dela, eta osatzen duten espezieetako bakoitzaren presentzia eta/edo ugaritasuna askotarikoa dela, eta zerikusia daukala belarjaleak direla eta (hausnarkariak edo monogastrikoak) dauden artzaintza-baldintzekin. Larre-habitaten kudeaketak kontuan hartu behar du kudeatze dinamikoa eta integratzailea egin behar dela, osotasun bati dagokiona.

Ondoko taulan zerrendatu da Aizkorri-Aratz esparruan aipaturiko interes handieneko flora. Mehatxu kategorია aipatuta dago, EAEko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa, (2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, EAEko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena eta testu

bakarra onartzen duena eta 2013ko ekainaren 18ko Agindua, EAeko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena) eta era osagarrian adierazi da Habitat Zuzentarauaren II., IV. edo V. eranskinetan sartua ote dagoen. Gainera, EAEn bakanak diren espezie batzuk ere aipatu dira edo interes biogeografikoa dutenak, nahiz eta inongo babes katalogotan sarturik ez dauden (6. taula). Era berean, adierazi da onetsitako Kudeaketa Planik ote duten EAeren esparruan.

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafloraren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskin a	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
12194	Ira-belar horia	<i>Aconitum anthora</i>	P				VU		Txar-Kaskar	
13160	Ira-belar urdina	<i>Aconitum variegatum</i> subsp. <i>pyrenaicum</i>	P				VU		Txar-Kaskar	
12730		<i>Allium victorialis</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
16656		<i>Armeria pubinervis</i> subsp. <i>orissonensis</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
10826	Arnika	<i>Arnica montana</i>	P	V			VU		Txar-Kaskar	
16636		<i>Arum cylindraceum</i>	P				VU		Ezez.	
12353		<i>Asperula hirta</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
10665		<i>Botrychium lunaria</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
12660		<i>Carex hostiana</i>	P				EP		Txar-Kaskar	
10929	Eguzki-lore luzea	<i>Carlina acaulis</i> subsp. <i>simplex</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
12785		<i>Coeloglossum viride</i>	P				VU		Ezez.	
13130		<i>Dryopteris submontana</i>	P				VU		Txar-Kaskar	
12551	Negu-txiliintxa	<i>Galanthus nivalis</i>	P				IE		Ezez.	
16660	Errosta	<i>Gentiana lutea</i>	P	V			VU		Txar-Ezek.	
16664		<i>Gentianopsis ciliata</i>	P				VU		Txar-Kaskar	
11779	Arroka-geranioa	<i>Geranium cinereum</i>	P				EP		Txar-Kaskar	
11390		<i>Gypsophila repens</i>	P				VU		Ezez.	
11186		<i>Hugueninia tanacetifolia</i> (<i>Descurainia tanacetifolia</i>)	P				EP		Txar-Kaskar	

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafloraren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
10681	Musgo derecho	<i>Huperzia selago</i>	P	V			BAKANA		Fav	
10788	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>	P				IE		Ona	
16643		<i>Lathyrus vivanii</i>	P				EP		Txar-Kaskar	
10682	Likopodioa	<i>Lycopodium clavatum</i>	P	V			BAKANA		Txar-Kaskar	
12000	Ur-hirusta	<i>Menyanthes trifoliata</i>	P				EP		Txar-Kaskar	
10744	Eneldo de oro	<i>Meum athamanticum</i>	P				EP		Txar-Ezek.	
16675	Narciso de trompetillas	<i>Narcissus bulbocodium</i>	P	V			IE		Ona	
16674	Lilipa txikia	<i>Narcissus asturiensis</i>	P	II		*	IE		Ona	
16690	Lilipa arrunta	<i>Narcissus pseudonarcissus vardulensis</i>	P	II			BAKANA		Ona	
10667	Lengua de serpiente	<i>Ophioglossum vulgatum</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
12716	Uva de raposa	<i>Paris quadrifolia</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
16671	Suelda coloradilla	<i>Persicaria vivipara</i>	P				VU		Ezez.	
11985		<i>Pinguicula lusitanica</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
12260	Arbol de la rabia	<i>Prunus padus</i>	P				EP		Txar-Kaskar	
16652	Pulsatilla	<i>Pulsatilla alpina subsp. cantabrica</i>	P				BAKANA		Txar-Ezek.	
12164		<i>Pyrola minor</i>	P				VU		Txar-Kaskar	
12059		<i>Ranunculus aconitifolius</i>	P				EPE		Txar-Kaskar	
11789		<i>Ribes petraeum</i>	P				BAKANA		Txar-Kaskar	

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafloraren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
12719	Rusco	<i>Ruscus aculeatus</i>	P	V		IE	IE		Ona	
16653		<i>Saxifraga losae</i>	P			BAKANA			Txar-Ezek.	
11056		<i>Scorzonera aristata</i>	P			IE			Ezez.	
11353		<i>Silene ciliata</i>	P			VU			Txar-Ezek.	
12222		<i>Sorbus hybrida</i>	P			EP			Txar-Kaskar	
10717	Hagina	<i>Taxus baccata</i>	P			IE			Ona	
12380	Eufrasia menor	<i>Tozzia alpina</i>	P			VU			Txar-Kaskar	
12715	Verdegambre	<i>Veratrum album</i>	P			IE			Ona	
12535	Pensamiento amarillo	<i>Viola biflora</i>	P			VU			Ezez.	
12536	Pentsamendua	<i>Viola bubanii</i>	P			BAKANA			Txar-Ezek.	

6. Taula Kontserbatu beharreko basaflora espezieak, Aizkorri-Aratz KBEan adieraziak.

Laburbilduz, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan jasotako 44 espezie dira. Honatx kategoriak: Galtzeko Zorian (9), Zaurgarriak (13), Bakanak (15) eta Interes Bereziak (7). Bi espezie Habitat Zuzentaruaren II. Eranskinean sartuta daude, eta hiru espezie, berriz, aipatu Zuzentaruaren V. Eranskinean.

Espezie baliotsuak babestuko baira, bizi diren ingurune naturalak eta erdi naturalak kontserbatuko beharko dira nahitaez. Horrela, eremu garaientako mendiko larreei lotutakoak: *Armeria pubinervis*, *Botrychium lunaria*, *Carlina acaulis*, *Coeloglossum viride*, *Gentianopsis ciliata*, *Geranium cinereum*, *Huperzia selago*, *Meum athamanticum*, *Narcissus bulbocodium*, *Narcissus pseudonarcissus*, *Narcissus minor*, *Silene ciliata*, *Viola biflora* eta *Viola bubanii*; txilardietan eta ordezkapezneko komunitateetan: *Arnica montana*, *Lycopodium clavatum*, *Narcissus bulbocodium*, *Narcissus minor*, *Narcissus pseudonarcissus*, *Ophioglossum vulgatum*, *Neotinea maculata* eta *Pistacia terebinthus*; asociadas a bosques de caducifolios encontramos *Galanthus nivalis*, *Gentiana lutea*, *Ilex aquifolium*, *Narcissus pseudonarcissus*, *Paris quadrifolia*, *Prunus padus*, *Pyrola minor*, *Ruscus aculeatus*, *Sorbus hybrida* y *Taxus baccata*; harkaizti, lapiaz eta megaforbio eremuei lotutakoak: *Aconitum anthora*, *Aconitum variegatum* subsp. *pyrenaicum*, *Allium victorialis*, *Armeria pubinervis*, *Arum cylindraceum*, *Asperula hirta*, *Dryopteris submontana*, *Geranium cinereum*, *Gypsophila repens*, *Hugueninia tanacetifolia* subsp. *suffruticosa*, *Lathyrus vivanii*, *Narcissus pseudonarcissus*, *Paris quadrifolia*, *Pulsatilla alpina*, *Saxifraga hirsuta* subsp. *pyrenaica*, *Ribes petraeum*, *Saxifraga losae*, *Scorzonera aristata*, *Sorbus hybrida*, *Taxus baccata*, *Tozzia alpina*, *Veratrum album*, *Viola biflora*, *Viola bubanii*, *Leucanthemum gaudinii* subsp. *barrelieri*, *Myrrhis odorata*, *Polygonum birsota*, *Polystichum lonchitis*, *Juniperus communis* subsp. *nana*, *Juniperus phoenicea* eta *Saxifraga hirsuta* subsp. *paucicrenata*; eta, azkenik, mendiko eremu hezeetan: *Carex hostiana*, *Menyanthes trifoliata*, *Narcissus pseudonarcissus*, *Pinguicula lusitanica*, *Ranunculus aconitifolius* eta *Veratrum album*.

Era berean, badira hainbat espezie Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan bakantzat edo mehatxatutzat joak daudenak, eta horietako batzuen populazioak baso landatuetan edo inguruetan edo baso pistetan daude, hala nola *Gentiana lutea* (Zaurgarria), *Veratrum album* (Interes Berezia), *Narcissus pseudonarcissus* (Bakana), *Sorbus hybrida* (Galtzeko Zorian), *Lycopodium clavatum* (Bakana) edo *Huperzia selago* (Interes Berezia).

3.3.- FAUNA

KBEan dagoen fauna jatorriz Europako Erdialdekoa eta atlantiarra da argi eta garbi, eta horrez gain, ingurune menditarretako espezie bereizgarriak ere badaude mendiguneko leku garaietan, eta harkaiztietan lotutako espezieak ere bai. Harkaiztien kokapen biogeografikoa dela eta, badira izaera mediterranearragoa duten espezie batzuk, eta hain zuzen ere, mendilerroaren hegoaldeko inguru bereziki ireki eta eguzkitsuetan agertzen dira.

Aizkorri-Aratzen, guztira, 217 ornodun espezie aurkitu dira (IKT, 2008). Zenbaki horretan sartuta daude leku hau migrazioetan edo negualdian bakarrik erabiltzen duten hegaztiak.

Guztira, 20 hegazti espezie sartuta daude Hegazti Zuzentaruaren I. Eranskinean, eta 336 fauna espezie, berriz, Habitat Zuzentaruaren II. eta/edo IV. Eranskinetan. Horietariko 20 espezie ugaztunak dira; bat, arraina; 3, narrastiak, eta bederatzi, azkenik, ornogabeak.

Kontserbazioari dagokionez, espezie horien lege-egoera hauxe da: horietariko 8 espezie, zehazki, Espezie Mehatxatuen Katalogo Nazionalean daude bilduta, eta 65, berriz, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan. Azken horretatik, adierazgarrienak baso helduei lotuta daude.

Osagabetzat jotzen da talde batzuei buruz eskura dagoen argibidea, eta ez dakigu zertan diren KBeko populazio batzuen egoera eta joera; kiropteroak eta ornogabeak, gehienbat. Beraz, ezin zehaztu zer kontserbazio-egoera duten.

Ondoren, Aizkorri-Aratz eremuko faunaren azterketa aurkezten da, fauna-taldetan banatuta.

Ornodunei dagokienez, gutxien aztertutako taldeetako bat izanda ere, KBEn arriskuan daudela jotzen den hainbat espezie erregistratu dira. Horrela, Habitat Zuzentarauaren Eranskinetan sartutako bederatzita espezie aipatu dira, eta berrikitan, espezie horietako bost Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartu dira: *Austropotamobius italicus* eta *Osmoderma eremita*, Galtzeko Zorian kategorian, eta *Rosalia alpina*, *Cerambyx cerdo* eta *Lucanus cervus* Interes berezikoan.

Larrez eta sasidiz osaturiko mosaikoa maiz nahasita dago zuhaitz helduz osaturiko baso-masa autoktonoekin, eta horrek kakalardo saproxilikoak finkatzea ahalbidetzen du. Horrela, eremu behekoenetan, gehienbat hariztiei lotuta, *Osmoderma eremita*, *Cerambyx cerdo* eta *Lucanus cervus* koleopteroak bizi dira, azken hori ugari samarra EAE guztian; ez dakigu zertan diren haien populazioen dinamika eta garrantzia. Pagadietan *Rosalia alpina* aurkitu dezakegu, eta aipamen sakabanatuak gorabehera, ez dakigu zer estatus duen KBEn. Basoa izate hutsak ez du bermatzen Batasunaren intereseko ornodun populazio horien biziraupena, espezie horiek habitataren baldintza jakin batzuk behar dituztelako, beren bizi-zikloak segurtasunez osatuko badituzte, hala nola behar adinako egur hila izatea lurzoruan eta zutik -bertan babesteko eta elikatzeko-, edota soilguneak basoetan. Behe-beheko tartetan, gehienbat hariztiei lotuta, *Euphydryas aurinea* lepidopteroa aurki dezakegu, arrunta eta oso ugaria Araban, eta Aizkorri-Aratzen aipatua, eta *Parnassius apollo*, mendiko larreetan sakabanatua hazten dena EAeko bi isurialde biogeografikoetako ur-banalerroan; ez dakigu zer banaketa duten gaur egun, ezta zer tamaina ere, eta zertan den KBeko populazioen kontserbazio-egoera. Era berean, *Callimorpha quadripunctaria* lepidopteroa dago, espezie ubikista, ugaria eta banaketa zabalekoa EAEn.

Quimper barraskiloa da nabarmentzekoa (*Elona quimperiana*), basoetako alderik ospeluetan eta hezeenetan, non eta orbela, goroldioa eta egur hila ugari den lurzoruetan. EAEn, espeziea ugaria da isurialde kantauriar osoan, eta ur-banalerroaren mendien hegoaldeko isurialdean ere bizi da. Populazioen banaketa urri eta isolamenduz gainera, kontserbazio-arazoak ere baditu, gehienbat bertako basoa ezabatu eta, haren orde, zuhaitz sailak landatu direlako edo nekazaritza-alorrak jarri direlako, edo bestela, komunikazio bideak eraiki direlako, pestizidak eta ongarriak erabiltzen direlako, basoak aldatu direlako (sasi garbiketak barne), eta orbela eta usteltzen ari den zura kendu direlako.

Lehenago, bertako karramarroa (*Austrapotamobius italicus*) ugaria zen Aizkorri-Aratz eremuko erreka askotan; gaur egun, ordea, oso toki gutxitan dago. Eskura dugun informazioaren arabera, ezin da jakin zehaztasunez zertan den haren egungo banaketa, ezta zenbat ale diren edo atzerapena neurtu ere, ezagutzen diren populazioen kopuruak oso aldakorak baitira, eta huraxe zegoen toki askotan ez da bisitarik egin azken

hamarkada hauetan. Era berean, ez da informaziorik karramarro gorriaz eta seinale-karramarroaz, biak ere exotikoak, ezta afanomikosi onddoaren hedapenez ere.

Lekuan ez da ur-ibilgu garrantzitsurik; beraz, arrain-komunitateak ia ez du garrantzirik KBEan. Horren haritik, ez da identifikatu arrain espezie mehatxaturik, laina arrunta izan ezik (*Parachondrostoma miegii*), 92/43/EEE Zuzentarauaren II. Eranskinean sartua.

Aizkorri-Aratz eremuko anfibioren komunitateko espezieak uraren mendean daude bizi-zikloa osatzeko, baina aldi berean, baldintza jakin batzuk behar dituzte bestelako inguruneetan, hala nola basoetan edo sasidiak-larreak mosaikoko eremu irekietan. Horrela, hala eremu garaietako hezegune txikiak, istilak eta erreken goi-ibarrak (larreek eta sasidiek osaturiko mosaikoan txertatuta daudenak) nola behe-beheko eremuetako errekaak (jada baso inguruneetan sartuak), funtsezkoak dira, leku honetan anfibioren populazioak mantentzeko. Habitat Zuzentarauaren IV. Eranskinean sarturik dauden hainbat espezie daude inguru horiei lotuta, hala nola Luhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*), txantxikua (*Alytes obstetricans*) eta, eragin mediterranean handiagoko inguruneetan, apo lasterkaria (*Epidalea calamita*). Anfibiotan ere badira espezie ugari samarrak, hala nola arrabioa (*Salamandra salamandra*), uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*), baso-igel gorria (*Rana temporaria*), ur-igel arrunta (*Pelophylax perezi*), zuhaitz-igel arrunta (*Hyla arborea*) edo apo arrunta (*Bufo bufo*).

Narrastiak ugariagoak dira eremu irekietan, eta halaber, nabarmentzekoa da badirela Habitat Zuzentarauaren IV. Eranskinean sarturiko espezie batzuk, hala nola horma-sugandila (*Podarcis muralis*) edo musker berdea (*Lacerta bilineata*). Aizkorri ere honako narrasti hauek bizi dira: zirauna (*Anguis fragilis*), eskinko hiruatx iberiarra (*Chalcides striatus*), sugandila bizierrulea (*Lacerta vivipara*), sugandila iberiarra (*Podarcis hispanica*), Eskulapioren sugea (*Zamenis longissimus*) eta Kantauriar sugegorria (*Vipera seoanei*). Narrastientzat, sasidi-larre mosaikoak lehentasunezko habitatak badira ere, eta populazioen arteko toki korridoreak edo komunikazio-eremuak osa baditzakete ere, suge biperakara (*Natrix maura*) eta suge gorbataduna (*Natrix natrix*) erreketan bizi dira. Batetik, baso hostogalkorrek mikrohabitat egoki batzuk dituzte narrastientzat, barnealdean eremu irekiak osatzen badira, eguzkiak jotzen dituen metaketak daudenean, edo sasiz osaturiko sasiak.

Aizkorri-Aratz KBEak habitat askotarikoak ditu, hala nola dela harkaizti eta horma zabalak, guztiak ere larreek, sasidiek eta basoek osaturiko mosaikoaren aberasgarri, dela Urkuluko urtegia eta inguruko landazabala; bada, horri esker, hegazti komunitate zabal eta aberatsa bizi da. Hori dela eta, jotzen da KBEak leku garrantzitsua izan behar duela hegazti multzo batzuk kontserbatzeko; harkaiztietako espezieentzat, bereziki. Horrela, Aizkorri-Aratzen Hegazti Zuzentarauaren I. Eranskinean sarturik daude 20 hegazti espezie erregistratu dira, eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sarturiko 33. Dena den, ez dugu informaziorik eskura espezie gehien populazioen joeraz eta tamainaz; horrenbestez, ez dugu datu zehatzik KBEa erabiltzen duten hegazti populazioez, non ez diren harkaiztietako hegazti batzuen populazio-zenbatespenak, eta azken urteotan hegazti harrapariei egindako jarraipenak.

Harkaiztietako hegazti komunitatea ongi ordezkaturik dago Aizkorri-Aratzen; zehazki, Orkatategi, Aratz eta Eginoko gailur-lerroetan, eta nabarmentzekoa da sai zuriak hainbat bikote ugaltzaile dituela (*Neophron percnocterus*). Ingururik hurbilenekoan, hainbat lurralde gehiago ezagutzen dira; belatz handia (*Falco peregrinus*) eta belatz gorria (*Falco tinnunculus*) espezieentzat, zehazki. Sai arrea (*Gyps fulvus*), halaber,

ugaria da, eta hainbat kolonia ditu KBE barnean. Era berean, berrikitan, ugatzetzi buruzko aipamenak igo dira, eta badirudi hasia dela eremu honetan finkatzen. Harkaitzietako hegazti komunitateak, dena den, baditu espezie gehiago, hala nola belea (*Corvus corax*), belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*), harkaitz-zozo gorria (*Monticola saxatilis*), mendi-tuntuna (*Prunella collaris*) edo haitz enara (*Ptyonoprogne rupestris*), eta neguan harkaitz-txoria (*Tichodroma muraria*).

Hontz handiari dagokionez (*Bubo bubo*), haren lurralde egonkorrik ez badugu ezagutzen ere, KBEko harkaitzietan ezaugarriak ikusita, eta kontuan hartuta zaila dela espeziea atzematea, litekeena da bikote ugaltzaileraren bat izatea.

Otalurretan eta larreetan mirotz zuria (*Circus cyaneus*) eta zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*) dira nabarmentzekoa, biak ere Hegazti Zuzentarauaren I. Eranskinean eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan jasoak, eta neguan miru gorria (*Milvus milvus*). Era berean, faunaren artean, badira intereseko beste espezie batzuk, hala nola antzandobi arrunta (*Lanius collurio*) edo etze-txinboa (*Sylvia undata*). Behe-beheko tokietan, landazabal atlantiarreko inguruneei lotuta (Urkuluko urtegiaren inguruan, adibidez) hegazti komunitate aberatsa dago. Oro har, hegazti txikiak dira, hala nola txantxangorria (*Erithacus rubecula*), kaskabeltz handia (*Parus major*), amilotx urdina (*Cyanistes caeruleus*), txonta arrunta (*Fringilla coelebs*), txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*), txio horia (*Phylloscopus trochilus*), berdantza horia (*Emberiza citrinella*), buztanikara zuria (*Motacilla alba*), okil berdea (*Picus viridis*), okil txikia (*Dendrocopos minor*), mika (*Pica pica*) edo zuhandorra (*Corvus corone*). Era berean, hegazti harraparien espezieak ohikoak dira, hala egun argikoak, hala nola zapeltza arrunta (*Buteo buteo*), gabiraia (*Accipiter nisus*) edo miru beltza (*Milvus migrans*), nola gauekoak, hala nola urubia (*Strix aluco*), mozoloa (*Athene noctua*) edo hontz zuria (*Tyto alba*).

Baso-inguruneetan hegazti harraparien komunitate aberatsa da nabarmentzekoa; haietako asko Hegazti Habitataren I. Eranskinean eta/edo Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan Gehienbat, pagadi eta hariztietan daude, landare-hesi zuhaitzuetan, eta konifero helduenez osaturiko masetan, hala ugalketan nola negualdian. Honatx zein diren nabarmentzekoak: arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*), Europa mailan gainbehera datorrena; erle-txoria (*Pernis apivorus*), aztorea (*Accipiter gentilis*) eta gabiraia (*Accipiter nisus*) eta, azkenik, miru beltza (*Milvus migrans*), Urkuluko urtegiaren inguruan ugaltzen dena, eta zapelatz arrunta (*Buteo buteo*), zeinak era erregularrean agertzen baitira beheko eremuetako baso-eremuetan. Harraparien komunitatean halaber badira gaueko harrapari espezieak, hala nola urubia (*Strix aluco*), hontz ertaina (*Asio otus*) eta zingira-hontza (*Asio flammeus*). Baso-harrapari horiez gain, azpimarratzekoa da badirela kontserbaziorako interesa duten espezie asko, hala nola okil beltza (*Dryocopus martius*), Hegazti Zuzentarauaren I. Eranskinean jasoak, okil txikia (*Dendrocopos minor*), lepitzulia (*Jynx torquilla*), okil berdea (*Picus viridis*) edo okil handia (*Dendrocopos major*); haien presentzia bereziki da garrantzitsua, guztiek ere sortzen dituzten mikrohabitata baso-espezie sorta handi batek erabiltzen baititu. Komunitate horiek egoera onean kontserbatuko badira, eta era berean, hegazti horiek jaten dituzten ornodun xilofagoak ongi kontserbatuko badira, beharrezkoa da baso helduz osaturiko egitura izatea, eta basoetan zuhaitz zaharrak eta behar adinako egur hila izatea.

Azkenik, aipa dezagun Urkuluko urtegiak dibertsitatea ekartzen diola talde horri, berariaz ingurune urtarretakoak diren intereseko espezieak bizi direlako, hala nola murgil

handia (*Podiceps cristatus*), EAEko Katalogoan Interes Berezikotzat katalogatuta dagoena; zehazki, hainbat bikote ugaltzaile ditu urtegian. Komunitate horren osagarri, aipa ditzagun beste espezie hauek ere: basahatea (*Anas platyrhynchos*), murgilari arrunta (*Anthya ferina*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), koartza hauskara (*Ardea cinerea*) edo koartzatxo txikia (*Egretta garzetta*), besteak beste. Negu batzuetan, pasaeran dabilzan espezieak ere agertzen dira: arrano arrantzalea (*Pandion haliaetus*), kurrilo arrunta (*Grus grus*) edo mokozabala (*Platalea leucorodia*). Nolanahi ere, interesgarria da adieraztea lehenago lekune hau oso garrantzitsua zela hegazti urtarrentzat, baina azken urteotan garrantziak behera egin duela, hala espezie kopuruan nola ale kopuruan.

Aizkorri-Aratz KBEan, gutxienez ere Europa mailan kontserbaziorako interesa duten 24 ugaztun-espezie erregistratu dira, eta Habitat Zuzentarauaren II. eta/edo IV. Eranskinetan jasoak daude; halaber, 17 kiroptero-espezie, bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta basakatua (*Felis silvestris*). Gainera, gehitu behar dira V. Eranskinean jasota dauden hiru espezie, katajineta (*Genetta genetta*), lepahoria (*Martes martes*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*). Kiropteroez gain, sei espezie eskualde interesekoak dira, eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan daude sartuta, hala nola ipurtatsa (*Mustela putorius*), lepahoria (*Martes martes*), basakatua (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*) eta elur-lursagua (*Chionomys nivalis*).

Aizkorri-Aratz, ziurrenera, tokirik garrantzitsuena da saguzarrentzat eta aberastasunik handiena duena EAE osoan, hainbat arrazoi direla medio: sistema karstikoa, baso hostogalkorren azalera, eta ibai-tarte ongi kontserbatuak. Horren haritik, KBEan ugariak dira barrunbeak, saguzar espezieek aterpetako erabiltzen dituztenak, eta inguruneetan dagoen aberastasuna kontuan hartuta, kiroptero komunitatea ere aberatsa da. Horrela, gutxienez ere 17 espezie erregistratu dira; haien artean, beren interesagatik eta EAEn duten mehatxu mailarengatik, *Myotis myotis* eta *Myotis mystacinus* dira azpimarratzekoak, biak ere Galtzeko Zorian sailkatuta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Era berean, kobazuloetako beste espezie batzuen presentzia erregistratu da, hala nola *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*, *Miniopterus schreibersii* edo *Myotis emarginatus*, rinolofekin kolonia mistoak osatu ohi dituztenak. Aizkorrirako aipatzen diren espezie sortaren osagarri, badira *Myotis nattereri*, *Myotis blythii*, *Myotis daubentonii*, *Plecotus auritus*, *Plecotus austriacus*, *Nyctalus leisleri*, *Eptesicus serotinus*, *Pipistrellus pipistrellus*, *Pipistrellus pygmaeus*, *Pipistrellus kuhlii* eta *Tadarida teniotis*.

Aizkorri-Aratz, Araozko ibarrarekin eta Arantzazuko sakanarekin batera, Kiropteroentzako lehentasunezko eremutzat jo ziren EAEko Kiropteroentzako Ekintza Planean, talde horretako espezieen dibertsitatea eta ugaritasuna ikusita. Era berean, inguruetan daude Gipuzkoan kiropteroentzat lehentasunezkoetzat jo diren lau aterpeetatik hiru; hau da, Mutiloko eliza, Kobaundi (Arrasate) eta Iritegiko kobazuloa, Arantzazuko sakanean, zeina nabarmentzen baita *R. ferrumequinum*, *R. hipposideros* eta *M. schreibersii* saguzar koloniak oso ugariak direlako, jende mugimendu handiak sortutako eragozpenak gorabehera.

Nolanahi ere, inguru honetan egin ez denez fauna talde horri buruzko berariazko azterlanik, eta ikusita zer-nolako potentzialtasuna duten bertako baso-habitatak eta egitura geologikoak, litekeena da kiroptero espezie gehiago izatea. Garrantzitsua da adieraztea oso talde konplexua dela, eta aztertzeke zaila; beraz, ez dugu informaziorik ez kontserbazio-egoeraz, ez populazioen joeraz, ezta banaketaz ere.

Haragijaleen komunitateak, kiropteroek kenduta, espezie asko ditu Aizkorri-Aratzen, eta haietako asko oportunistak dira, eta edozein habitat motatara egokitzen dira, hala nola azeri arrunta (*Vulpes vulpes*), erbinudea (*Mustela nivalis*), lepazuria (*Martes foina*) edo azkonarra (*Meles meles*). Beste batzuk, ordea, zorrotzagoak dira erabiltzen dituzten baliabideei dagokienez, hala nola ipurtatsa (*Mustela putoris*), basakotua (*Felis silvestris*) edo katajineta (*Genetta genetta*). Lepahoriari dagokionez (*Martes martes*), askotan aipatua izateak iduriko luke espezie horren dentsitateak altu samarrak izango zirela KBEan eta inguruetan, baina ez dakigu zertan den populazioen joera, ezta kontserbazio-egoera ere.

Era berean, muxar grisa egon badagoela azpimarratu behar da (*Glis glis*), eta era erregularrean banatuta dago Aizkorri-Aratz eremuko pagadi eta hariztietan, baldin eta baso horiek nolabaiteko heldutasun maila badute, eta ale urtetsu zulodunak badituzte. Ez dakigu zer dentsitate dauden Iberiar Penintsulan, baina badirudi atzerapen nabarmena izan duela, basoen ustiapen modernoak eraginda.

Azkenik, Aizkorriko gailur-lerroetako kareharrizko harkaiztietan elur-lursagua (*Chionomys nivalis*) bizi da, eta espezie hori EAEko hiru populazio ezagunetan bakarrik bizi da. Hala ere, ez dakigu zer okupazio-eremu duen, zer populazio-tamaina, eta zer populazio-joera.

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak									
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan
ARRAINAK									
14131	Loina	<i>Parachondrostoma miegii</i>	P	II					Ona
ORNOGABEAK									
10002	Ibai-karramarroa	<i>Austropotamobius italicus</i> .	P	II-V		VU	EP		Txar- Kaskar
		<i>Callimorpha quadripunctaria</i>	P	II					Ezez.
		<i>Cerambix cerdo</i>	P	II-IV		*	IE		Ezez.
10008	<i>Elona quimperiana barraskiloa</i>	<i>Elona quimperiana</i>	P	II-IV		*			Ezez.
		<i>Doncella de ondas rojas</i>	P	II		*			Ezez.
10022	Arkanbelea	<i>Lucanus cervus</i>	P	II		*	IE		Ezez.
		<i>Osmoderma eremita</i>	P	II		VU	VU		Ezez.
		<i>Parnassius apollo</i>	P	II		*			Ezez.
	Rosalia	<i>Rosalia alpina</i>	P	II-IV		*	IE		Ezez.
ANFIBIOAK ETA NARRASTIAK									
10042	Txantxikua	<i>Alytes obstetricans</i>	P	IV		*			Ezez.
10043	Apo lasterkaria	<i>Epidalea calamita</i>	P	IV		*	VU		Ezez.
10048	Zuhaitz-igel arrunta	<i>Hyla arborea</i>	P	IV		*			Ezez.
10463	Musker berdea	<i>Lacerta bilineata</i>	P	IV		*			Ezez.
10054	Horma-sugandila	<i>Podarcis muralis</i>	P	IV		*			Ezez.

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
10059	Uhandre marmolaiarea	<i>Triturus marmoratus</i>	P	IV		*			Ezez.	
16551	Eskulapioren sugea	<i>Zamenis lineatus</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
HEGAZTIAK										
10061	Aztorea	<i>Accipiter gentilis</i>	P			*	BAKAN A		Ezez.	
10062	Gabiraia	<i>Accipiter nisus</i>	P			*	IE		Ezez.	
10067	Kuliska txikia	<i>Actitis hypoleucos</i>	P			*	BAKAN A		Ezez.	
10071	Martin arrantzalea	<i>Alcedo atthis</i>	P		I	*	IE		Ezez.	
10087	Koartza hauskara	<i>Ardea cinerea</i>	P		I	*			Ezez.	
10091	Zingira-hontza	<i>Asio flammeus</i>	I		I	*	BAKAN A		Ezez.	
10110	Zata arrunta	<i>Caprimulgus europaeus</i>	R		I	*	IE		Ezez.	
10114	Tarina	<i>Carduelis spinus</i>	P			*	IE		Ezez.	
10126	Arrano sugezalea	<i>Circaetus gallicus</i>	R		I	*	BAKAN A		Ezez.	
10125	Ur-zozoa	<i>Cinclus cinclus</i>	P			*	IE		Ezez.	
10128	Mirotz zuria	<i>Circus cyaneus</i>	R		I	*	IE		Txar-Kaskar	
10131	Mokolodia	<i>Coccythraustes coccythraustes</i>	I			*	IE		Ezez.	
10135	Belea	<i>Corvus corax</i>	P				IE		Txar-Ezek.	
10144	Okil txikia	<i>Dendrocopos minor</i>	P			*	IE		Ezez.	

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
10145	Okil beltza	<i>Dryocopus martius</i>	P	I	I	*	BAKAN A		Ona	
10146	Koartzatxo txikia	<i>Egretta garzetta</i>	I	I	I	*			Ezez.	
10154	Belatz txikia	<i>Falco columbarius</i>	I	I	I	*	BAKAN A		Ezez.	
10156	Belatz handia	<i>Falco peregrinus</i>	P	I	I	*	BAKAN A		Ona	
10157	Zuhaitz-belatza	<i>Falco subbuteo</i>	R			*	BAKAN A		Ezez.	
10159	Euli-txori beltza	<i>Ficedula hypoleuca</i>	R			*	BAKAN A		Ezez.	
10173	Ugatza	<i>Gypaetus barbatus</i>	P	I	I	EP	EP	(1)	Txar- Kaskar	
10174	Sai arrea	<i>Gyps fulvus</i>	P	I	I	*	IE	(1)	Ona	
14014	Arrano txikia	<i>Hieraetus pennatus</i>	R	I	I	*	BAKAN A		Txar-Ezek.	
10182	Lepitxulia	<i>Jynx torquilla</i>	R			*	IE		Ezez.	
10183	Antzandobi arrunta	<i>Lanius collurio</i>	R	I	I	*			Ezez.	
10626	Antzandobi handia	<i>Lanius excubitor</i>	P			*	VU		Ezez.	
10206	Miru beltza	<i>Milvus migrans</i>	R	I	I	*			Txar-Ezek.	
10207	Miru gorria	<i>Milvus milvus</i>	P	I	I	EP	EP		Txar-Ezek.	
10208	Harkaitz-zozo gorria	<i>Monticola saxatilis</i>	R			*	IE		Ezez.	
10216	Sai zuria	<i>Neophron percnocterus</i>	R	I	I	VU	VU	(1)	Txar-Ezek.	

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
10236	Erle-txoria	<i>pernis apivorus</i>	R		I	*	BAKAN A		Txar-Ezek.	
10246	Txio horia	<i>Phylloscopus trochilus</i>	R			*	BAKAN A		Ezez.	
10253	Murgil handia	<i>Podiceps cristatus</i>	R			*	IE		Txar-Ezek.	
10258	Mendi-tuntuna	<i>Prunella collaris</i>	P			*	IE		Ezez.	
10263	Belatxinga mokohoria	<i>Pyrrhonorax graculus</i>	P			*	IE		Ezez.	
10264	Belatxinga mokogorria	<i>Pyrrhonorax pyrrhonorax</i>	P		I	*	IE		Ezez.	
10269	Mendi-erregetxo	<i>Regulus regulus</i>	P			*	IE		Ezez.	
10273	Pitxartxar nabarra	<i>Saxicola rubetra</i>	R			*	IE		Ezez.	
10298	Etze-txinboa	<i>Sylvia undata</i>	P		I	*			Ezez.	
10313	Zozo paparzuria	<i>Turdus torquatus</i>	R			*	IE		Ezez.	
UGAZTUNAK										
10349	Elur-elursagua	<i>Chionomys nivalis</i>	P				BAKAN A		Txar-Ezek.	
10322	Baratze-saguzarra	<i>Eptesicus serotinus</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
10323	Basakatua	<i>Felis sylvestris</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
14144	Muxar grisa	<i>Glis glis</i>	P			VU	VU		Ezez.	
10331	Lepahoria	<i>Martes martes</i>	P				BAKAN A		Ezez.	
10333	Schreibers saguzarra	<i>Miniopterus schreibersii</i>	P	II-IV		VU	VU	(2)	Ezez.	

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak										
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan	
10334	Bisoi europarra	<i>Mustela lutreola</i>	P	II-IV		EP	EP	ABG	Txar-Kaskar	
10336	Ipurtatsa	<i>Mustela putoris</i>	P	V			IE		Ezez.	
10338	Arratoi-belarri ertaina	<i>Myotis blythii</i>	P	II-IV		VU	VU		Ezez.	
10339	Ur-saguzarra	<i>Myotis daubentonii</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
10340	Geoffroi saguzarra	<i>Myotis emarginatus</i>	P	II-IV		VU	VU	(2)	Ezez.	
10341	Arratoi-belarria	<i>Myotis myotis</i>	P	II-IV		VU	EP	(2)	Ezez.	
10342	Saguzar biboteduna	<i>Myotis mystacinus</i>	P	IV		VU	EP		Ezez.	
10343	Natterer saguzarra	<i>Myotis nattereri</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
10345	Gau-saguzar txikia	<i>Nyctalus leisleri</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
10347	Kuhl pipistrela	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
10349	Saguzar arrunta	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	P	IV		*	IE		Txar-Ezek.	
13984	Saguzar mediterranea	<i>Pipistrellus pygmaeus</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	
10350	Iparraldeko belarrihandi arrea	<i>Plecotus auritus</i>	P	IV		*	VU	(2)	Ezez.	
10351	Hegoaldeko belarrihandi grisa	<i>Plecotus austriacus</i>	P	IV		*	IE	(2)	Ezez.	
10354	Ferra-saguzar handia	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	P	II-IV		VU	VU	(2)	Ezez.	
10355	Ferra-saguzar txikia	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	P	II-IV		*	IE	(2)	Ezez.	
10356	Saguzar buztanluzea	<i>Tadarida teniotis</i>	P	IV		*	IE		Ezez.	

7. Taula Kontserbatu beharreko basafauna espezieak, Aizkorri-Aratz KBEan adieraziak. DH eranskina. Adierazita dago Habitat Zuzentzarauaren zein eranskinetan jasota dagoen espeziea; DA eranskina: Adierazita dago Hegazti Zuzentzarauaren zein eranskinetan jasota dagoen espeziea; LESPRES eta

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

CEEA: Adierazita dago espeziea Babes Berezikoa Araubidea duten Espezieen Zerrendan dagoen (*), eta zer kategoriatan katalogatuta dagoen espeziea Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan (139/2011 Errege Dekretua); CVEA: Adierazita dago zer kategoriatan katalogatuta dagoen espeziea EAEko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (2011ko urtarrilaren 10eko Agindua eta 2013ko ekainaren 18ko Agindua, EAEko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena. EP: Galtzeko Arriskuan, VU: Zaurgarria, BAKANA: Bakana, IE: Interes Berezikoa; PG EAEn: Adierazita dago zer lurralde historikok onetsi duen espeziea Kudeatzeko Plana. A: Araba, B: Bizkaia, G: Gipuzkoa. (1) EAEko batasunaren Intereseko hegazti nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana. (2) EAEko kobazuloetako edota eraikinetan bizi diren kiropteroak Kudeatzeko Baterako Plana (prestaketan).

Honako taula honetan adierazita dago zer espezieren presentzia ez den egiaztatu Aizkorri-Aratz KBEan, baina litekeena da izatea.

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak									
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan
ANFIBIOAK ETA NARRASTIAK									
16549	Gailurretako uhandrea	<i>Ichthyosaura alpestris</i>				*	VUL		
10055	Baso-igel jauzkaria	<i>Rana dalmatina</i>	IV			*	VUL		
10056	Baso-igel iberiarra	<i>Rana iberica</i>	IV			*	IE		
10044	Iparaldeko suge leuna	<i>Coronella austriaca</i>	IV			*			
10421	Hegoaldeko suge leuna	<i>Coronella girondica</i>				*			
HEGAZTIAK									
10143	Okil ertaina	<i>Dendrocopos medius</i>			I	*	IE		
10116	Basoetako gerri-txoria	<i>Certhia familiaris</i>				*	IE		
10250	Elur-berdantza	<i>Plectrophenax nivalis</i>				*	IE		
UGAZTUNAK									
10319	Baso.saguzarra	<i>Barbastella barbastellus</i>		II-IV		*	EPE		

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kontserbazio xede diren Basafaunaren Espezieak									
DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan
10324	Muturluze piriniotarra	Galemys pyrenaicus		II-IV		VUL	EPE	G	
10447	Lursagu lusitaniarra	<i>Microtus lusitanicus</i>							

11. Taula Aizkorri-Aratz KBEan zurrerera dauden ornodun espezieak.

4.- FUNTSEZKO ELEMENTUAK EDO KUDEAKETA XEDEA AIZKORRI-ARATZ KBEan

Ondoren zerrendaturik daude lekua maila erregionaleko interes berezikotzat izendatzea eragin duten funtsezko elementuak eta/edo kontserbazio eta kudeaketarako neurri aktiboak hartzea behar duten funtsezko elementuak.

Funtsezko elementuak honako irizpide hauek aplikatuta aukeratzen dira:

1. Lekuan oso toki esanguratsua eta nabarmena duten habitatak edo espezieak Natura 2000 Sarean bere osoan kontserbatzeko bai eskala erregionalean, bai estatukoan, bai Europakoan, eta haien kontserbazio egoera txarra ikusita, kudeaketarako neurri aktiboak hartu beharra dagoenean.
2. Informazio teknikoaren edo zientifikoaren arabera, egoera txarrean egon daitezkeen edo egoera horretara irits daitezkeen habitatak edo espezieak, hori eragozteko neurriak hartu ezean.
3. Giza erabileren mendean dauden habitatak edo espezieak, hots, arautu edo sustatu behar direnak kontserbazio egoera onera iristen direla edo egoera horretan mantentzen direla bermatzeko.
4. Talde taxonomikoen eta ekosistemen osasuna nola dagoen adierazten duten habitatak edo espezieak eta/edo biodibertsitatearen gaineko presioak atzemateko erabilgarriak direnak; beraz, monitorizaziorako ahalegin berezia behar dutenak.
5. Habitat edo espezieak, haien erabilerak beste habitat edo basa espezieei mesede egingo dietena, edo leku guztiaren osotasun ekologikoari mesede egingo dietena.

a) Habitatak.

Funtsezko elementua	Justifikazioa
<p>Pagadiak eta hariztiak</p> <p>Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus</i> (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>) (EBko kodea: 9120).</p> <p>Pagadi basofiloa edo neutroa</p> <p><i>Quercus petraea</i> nagusi den harizti azidofiloa</p> <p>Basoei lotutako flora: <i>Narcissus pseudonarcissus</i> subsp. <i>pseudonarcissus</i>, <i>Prunus padus</i>, <i>Pyrola minor</i> eta <i>Sorbus hybrida</i>.</p> <p>Basoei lotutako fauna: <i>Dryocopus marthius</i>, <i>Felix silvestris</i>, <i>Martes martes</i>.</p>	<p>Batasunaren, Estatuaren edo EAEn intereseko habitat naturalak dira.</p> <p>Aizkorrin daude 2000 Natura Sarean sarturiko EAeko pagadi azidofiloen % 30etik gora, eta <i>Quercus petraea</i> hariztien % 63, eta funtsezko lekua da baso horien EAEn kontserbatzeko. Pagadi basofiloen % 15 dago; beraz, ekarpen garrantzitsua da.</p> <p>Baso gehienak kontserbazio-egoera txarrean daude, berrikitan izaniko aprobetxamenduen ondorioz; beraz, basoek kudeaketa aktiboa behar dute, eta biodibertsitatearekin bat datorren aprobetxamendu-eredua.</p> <p>Basoen zati nabarmena bat titularitate publikoko lurzoruetan daude, eta horrek kontserbatzeko aukera ematen du.</p> <p>Pagadiak eta hariztiak hagin unada berezi batzuk dituzte; unada horiek berez dute balioa eta heterogeneotasuna sortzen dute.</p> <p>Pagadi eta hariztien azalera eta kontserbazio egoera handituko duten neurriak hartu behar dira, bai eta basoei loturiko espezieek ekologiaren aldetik dituzten beharrak beteko dituztenak ere.</p> <p>Basoek babes, janari eta kumeak hazteko ingurune egokiak dira fauna espezie askorentzat, batzuetan mehatxatuta daudenak, eta interes berezia dute hegaztien eta basoko kiropteroek. Okil beltzaren hainbat lurralde barnebiltzen dituzte.</p>

Funtsezko elementua	Justifikazioa
	<p>Briofito, liken eta flora baskular nemoralen espezie askoren habitata dira, hala nola <i>Narcissus pseudonarcissus</i>, <i>Taxus baccata</i> eta <i>Paris quadrifolia</i>, lehena Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean jaso, eta beste biak Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Eskusiboak ez badira ere, bestelako landare espezie babestuak ere ageri dira, hala nola <i>Gentiana lutea</i>, <i>Prunus padus</i>, <i>Pyrola minor</i>, <i>Sorbus hybrida</i> edo <i>Veratrum album</i>.</p> <p>CO2 xurgatu eta finkatzen dute, eta lekua ahalbidetzen dute, naturan jostatzeko eta bertan aisia garatzeko.</p>
<p>Larren menditarrak:</p> <p>Larre alpino eta azpialpino karedunak (EBko kodea: 6170).</p> <p>Larre bizikor mesofitikoak eta mesoxerofitikoak kareharrizko substratuen gainean, <i>Festuco-Brometea</i> (EBko kodea: 6210).</p> <p>Belar formazioak <i>Nardusekin</i>, espezie ugariarekin, inguru menditsueta silizeozko substratuen gainean (EBko kodea: 6230*).</p> <p>Larre menditarrei lotutako flora: <i>Aconitum anthora</i>, <i>Aconitum variegatum</i>, <i>Armeria pubinervis</i>, <i>Arnica montana</i>, <i>Botrychium lunaria</i>, <i>Carlina acaulis</i> subsp. <i>caulescens</i>, <i>Coeloglossum viride</i>, <i>Gentiana lutea</i>, <i>Gentianopsis ciliata</i>, <i>Geranium cinereum</i>, <i>Huperzia selago</i>, <i>Lathyrus vivanii</i>, <i>Lycopodium clavatum</i>, <i>Narcissus minor</i> subsp. <i>minor</i> (<i>N. asturiensis</i>), <i>Narcissus bulbocodium</i>, <i>Ophioglossum vulgatum</i>, <i>Persicaria vivipara</i>, <i>Pulsatilla alpina</i> subsp. <i>cantabrica</i>, <i>Silene ciliata</i>, <i>Tozzia alpina</i>, <i>Veratrum album</i>, <i>Viola biflora</i> eta <i>Viola bubanii</i>.</p>	<p>Batasunaren intereseko habitatak dira, eta lehentasunezko azpimota batzuk ere badira.</p> <p>Kontserbatuko badira, gainbehera etorri diren jarduera tradizionaleri eutsi beharko zaie.</p> <p>Aizkorri-Aratz funtsezko gunea da larre silizedun menditarrak kontserbatzeko (EAEko Natura 2000 Sarean sarturikoen % 32 barnebiltzen baitu), eta nabarmena da larre karedun xerofiloentzat (EAEko Natura 2000 Sarean sarturikoen % 13 barnebiltzen baitu).</p> <p>Espezie sarraskijale mehatxatu askoren habitata dira; hala nola, ugatzarena.</p> <p>Flora espezie mehatxatu askoren habitata dira: <i>Narcissus pseudonarcissus</i> <i>Narcissus minor</i>, <i>Arnica montana</i>, <i>Carlina acaulis</i> L. subsp. <i>caulescens</i>, <i>Coeloglossum viride</i>, <i>Gentianopsis ciliata</i>, <i>Geranium cinereum</i>, <i>Huperzia selago</i>, <i>Himantoglossum hircinum</i>, <i>Lathyrus vivanii</i>, <i>Meum athamanticum</i>, <i>Silene ciliata</i>, <i>Viola biflora</i> eta <i>Viola bubanii</i>.</p> <p>CO2 erresebatzeko leku garrantzitsua da, eta hori ezinbestekoa da klima-aldaketari aurre egiteko.</p>
<p>Zohikaztegiak eta lurzoru higroturbosoak</p> <p>Trantsizioko mirak (EBko kodea: 7140).</p>	<p>Interes berezia dute, flora espezie asko hazten direlako.</p> <p>Oso hauskor eta zaugarriak dira, abere karga handiegiaren aurrean edo maila freatikokoan gertatzen diren aldaketen aurrean</p>

b) Espezieak.

<p>Harkaitzetako komunitateak</p> <p>Harkaitzetako flora: <i>Allium victorialis</i>, <i>Arum cylindraceum</i>, <i>Asperula hirta</i>, <i>Dryopteris submontana</i>, <i>Gypsophila repens</i>, <i>Hugueninia tanacetifolia</i> subsp. <i>suffruticosa</i>, <i>Paris quadrifolia</i>, <i>Ribes petraeum</i>, <i>Saxifraga losae</i> eta <i>Scorzonera aristata</i>.</p> <p>Harkaitzetako fauna: <i>Gypaetus barbatus</i>, <i>Neophron percnopterus</i> eta <i>Chionomys nivalis</i>.</p>	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean, Aizkorri-Aratz Hegazti Nekrofagoentzako Interes Berezikoko Ereku gisa sartuta dago, eta era berean, Batasunaren Intereseko Espezie Nekrofagoen Elikadura Babesteko Ereku gisa.</p> <p>Harkaizti horietan dauden harkaitzetako harrapari guztiak Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 1. eranskinean sartuta daude.</p> <p>Europako sai zurien % 75 baino gehiago Iberiar penintsulan bizi dira, baina azken datuen arabera, ale kopurua izugarri murriztu da; % 30 inguru, zehazki. KBEaren esparruan, sai zuriaren lau hazkuntza lurralde ezagutzen dira.</p>
---	---

	<p>Aizkorri-Aratz funtsezkoa da, ugatza Kantabriar mendikatera zabaldu dadin, Ugatzaren Estatuko Estrategiaren arabera.</p> <p>Aizkorriko harkaiztietan elur-lursagua (<i>Chionomys nivalis</i>) bizi da, eta espezie hori EAeko hiru populazio ezagunetan bakarrik bizi da.</p> <p>Flora espezializatuko espezieak dira, eta 29 espezie bakan sarturik daude flora mehatxatuko EAeko katalogoan eta banaketa lokalizatua duena: <i>Aconitum antora</i>, <i>Aconitum variegatum</i> subsp. <i>pyrenaicum</i>, <i>Allium victorialis</i>, <i>Armeria pubinervis</i>, <i>Arum cylindraceum</i>, <i>Asperula hirta</i>, <i>Dryopteris submontana</i>, <i>Geranium cinereum</i>, <i>Gypsophila repens</i>, <i>Hugueninia tanacetifolia</i> subsp. <i>suffruticosa</i>, <i>Lathyrus vivanii</i>, <i>Narcissus pseudonarcissus</i>, <i>Paris quadrifolia</i>, <i>Pulsatilla alpina</i>, <i>Saxifraga hirsuta</i> subsp. <i>pirenaica</i>, <i>Ribes petraeum</i>, <i>Saxifraga losae</i>, <i>Scorzonera aristata</i>, <i>Sorbus hybrida</i>, <i>Tozzia alpina</i>, <i>Veratrum album</i>, <i>Viola biflora</i>, <i>Viola bubanii</i>, <i>Leucanthemum gaudinii</i> subsp. <i>Barrelieri</i>, <i>Myrrhis odorata</i>, <i>Polygonum birsota</i>, <i>Polystichum lonchitis</i> eta <i>Saxifraga hirsuta</i> subsp. <i>paucicrenata</i>.</p> <p>Harkaiztietako landare mehatxatu gehienek mehatxu maila handitu da EAEn, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa aldatzeko 2011ko urtarrilaren 10eko Aginduaren arabera.</p>
<p>Kiropteroak:</p> <p><i>Rhinolophus ferrumequinum</i></p> <p><i>Rhinolophus hipposideros</i></p> <p><i>Myotis daubentonii</i></p> <p><i>Myotis emarginatus</i></p> <p><i>Myotis nattereri</i></p> <p><i>Myotis mystacinus</i></p> <p><i>Myotis myotis</i></p> <p><i>Myotis blythii</i></p> <p><i>Nyctalus leisleri</i></p> <p><i>Pipistrellus pipistrellus</i></p> <p><i>Pipistrellus pygmaeus</i></p> <p><i>Pipistrellus kuhlii</i></p> <p><i>Eptesicus serotinus</i></p> <p><i>Plecotus auritus</i></p> <p><i>Plecotus austriacus</i></p> <p><i>Tadarida teniotis</i></p> <p><i>Miniopterus schreibersii</i></p>	<p>Aizkorri-Aratzek potentzialtasun handia du Kiropteroetan komunitate aberatsa eta askotarikoa izateko, baso habitatak askotarikoak direlako eta inguru karstikoa delako.</p> <p>Kiroptero espezie guztiak Habitat Zuzentarauaren IV. eranskinean sarturik daude, eta batzuk II. eranskinean, eta autonomia nahiz estayu mailan katalogatuta daude.</p> <p>KBEan bizi dira EAEn ditugun 17 kiroptero espezie gutxienez, eta honako espezie hauek dira nabarmentzekoak: <i>R. ferrumequinum</i>, <i>Myotis myotis</i>, <i>M. mystacinus</i> edo <i>M. emarginatus</i>.</p> <p>EAeko Kiropteroentzako Ekintza Planak Kiropteroentzako lehentasunezko eremutat jo du Aizkorri-Aratz.</p> <p>Espezie horietako askok Batasunaren intereseko habita hau erabiltzen dute beren bizitza-zikloaren uneren batean: «Turismoak ustiatzen ez dituen kobazuloak (EBko kodea: 8310)».</p> <p>Talde honetan ez dago informaziorik populazioaren ugaritasunaz, estatusaz eta joeraz, baina espezie ornodunik mehatxatuen artean dagoela jotzen da.</p> <p>Gizakiak erabiltzen duen lurraldearen mendekoak dira: abeltzaintza, baso eta aisia erabilera, eta kobazuloetako espezieak oso sentiberak dira gizakiaren perturbazio eta eragozpenen aurrean.</p> <p>Baso-espezieak zuhaitz zahar zulodunen mendean daude, eta holakoak gutxi dira lekuan.</p> <p>Kobazuloetako espezieak oso sentiberak dira gizakiak sortzen dituzten eragozpenekiko edo asaldurekiko.</p> <p>Saguzarren habitatak ongi gobernatzea oso onuragarria da beste espezie batzuentzat; basokoak, intsektujaleak eta trogloditak.</p>

c) Habitaten banaketaren eta funtsezko espezieen arteko lotura Aizkorri-Aratz Naturagune Babestuan:

Funtsezko elementua	Habitatak	Loturiko espezieak	PN zonifikazioa	Azalera (ha) *	% eramuaren arabera
Pagadiak eta hariztiak	Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus</i> (<i>Quercion robripetraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>) (EBko kodea: 9120).	<i>Erica arborea</i> , <i>Fagus sylvatica</i> , <i>Gentiana lutea</i> , <i>Ilex aquifolium</i> , <i>Narcissus pseudonarcissus</i> , <i>Sorbus hybrida</i> , <i>Taxus baccata</i> , <i>Vaccinium myrtillus</i> .	Landazabal Eremua	0,42	0,01
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	2.744,33	61,67
			Ekipamendu eta azpiegitura eremua	4,20	0,09
			Babes Eremua	326,77	7,34
			Erreserba Eremua	55,56	1,25
			Baso-Abeltzaintza eremua	1.307,90	29,39
			Inguruko Babes Eremua	0,53	0,01
	Pagadi basofiloa edo neutroa	<i>Betula celtiberica</i> , <i>Carex caudata</i> , <i>Cephalanthera longifolia</i> , <i>Crataegus monogyna</i> , <i>Epipactis microphylla</i> , <i>Fagus sylvatica</i> , <i>Ilex aquifolium</i> , <i>Narcissus minor</i> , <i>Narcissus pseudonarcissus</i> , <i>Neottia nidus-avis</i> <i>Paris quadrifolia</i> , <i>Prunus padus</i> , <i>Pteridium aquilinum</i> , <i>Pyrola minor</i> , <i>Quercus robur</i> , <i>Rubus ulmifolius</i> , <i>Ruscus aculeatus</i> , <i>Taxus baccata</i> .	Landazabal Eremua	6,77	0,32
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	1.545,33	73,52
			Ekipamendu eta azpiegitura eremua	0,63	0,03
			Babes Eremua	126,90	6,04
			Erreserba Eremua	317,68	15,11
			Baso-Abeltzaintza eremua	104,47	4,97
			Inguruko Babes Eremua	0,00	0,00
	<i>Quercus petraea nagusi den harizti azidofiloa</i>	<i>Fagus sylvatica</i> , <i>Ilex aquifolium</i> , <i>Narcissus pseudonarcissus</i> , <i>Quercus petraea</i> , <i>Ruscus aculeatus</i> eta <i>Taxus</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	205,77	96,60
Baso-Abeltzaintza eremua			7,08	3,32	

Funtsezko elementua	Habitatak	Loturiko espezieak	PN zonifikazioa	Azalera (ha) *	% eramuaren arabera
		<i>baccata</i> .	Inguruko Babes Eremua	0,16	0,08
	Basoei lotutako flora	<i>Narcissus pseudonarcissus</i> subsp. <i>pseudonarcissus</i> , <i>Prunus padus</i> y <i>Pyrola minor</i> .	Ez dago nahikoa informazio kartografikorik banaketa Parke Naturalaren zonifikazioaren arabera jotzeko.		
		<i>Sorbus hybrida</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	100
Larren menditarrak	Larre alpetar eta azpialpetar karedunak (EBko kodea: 6170).	<i>Aconitum lamarkii</i> , <i>Armeria pubinervis</i> , <i>Asplenium viride</i> , <i>Botrychium lunaria</i> , <i>Carex brevicollis</i> , <i>Carex sempervirens</i> , <i>Cystopteris fragilis</i> , <i>Festuca gautieri</i> ssp. <i>scoparia</i> , <i>Festuca herviericostei</i> , <i>Festuca indigesta</i> , <i>Gentiana ciliata</i> , <i>Geranium cinereum</i> , <i>Koeleria vallesiana</i> , <i>Narcissus asturiensis</i> , <i>Ononis striata</i> , <i>Satureja alpina</i> , <i>Saxifraga paniculada</i> , <i>Sesleria albicans</i> , <i>Teucrium pyrenaicum</i> , <i>Thymus praecox</i> subsp. <i>polytrichus</i> , <i>Viola bubanii</i> .	Kontserbazio Aktiboko Eremua	171,48	41,56
			Babes Eremua	27,29	6,62
			Erreserba Eremua	204,07	49,46
			Baso-Abeltzaintza eremua	9,71	2,35
	Larre bizikor mesofitikoak eta mesoxerofitikoak kareharrizko substratuen gainean, Festuco-Brometea (EBko kodea: 6210).	<i>Armeria pubinervis</i> , <i>Brachypodium pinnatum</i> subsp. <i>rupestre</i> , <i>Briza media</i> , <i>Bromus erectus</i> , <i>Carex flacca</i> , <i>Carlina acaulis</i> , <i>Eryngium campestre</i> ,	Landazabal Eremua	2,95	2,44
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	65,07	53,69
			Ekipamendu eta azpiegitura eremua	20,59	16,99

Funtsezko elementua	Habitatak	Loturiko espezieak	PN zonifikazioa	Azalera (ha) *	% eramuaren arabera
		<i>Helianthemum nummularium</i> , <i>Koeleria vallesiana</i> , <i>Narcissus asturiensis</i> , <i>Potentilla neumanniana</i> , <i>Scabiosa columbaria</i> , <i>Thymus praecox</i> subsp. <i>polytrichus</i> , <i>Trifolium montanum</i>	Babes Eremua	26,73	22,05
			Erreserba Eremua	1,60	1,32
			Baso-Abeltzaintza eremua	3,81	3,14
			Inguruko Babes Eremua	0,39	0,32
	Belar formazioak Nardusekin, espezie ugariarekin, inguru menditsuetako silizeozko substratuen gainean (EBko kodea: 6230*).	<i>Agrostis capillaris</i> , <i>Agrostis curtisii</i> , <i>Calluna vulgaris</i> , <i>Carex pilulifera</i> , <i>Cirsium eriophorum</i> , <i>Danthonia decumbens</i> , <i>Deschampsia flexuosa</i> , <i>Erica cinérea</i> , <i>Festuca gr. Rubra</i> , <i>Festuca microphylla</i> , <i>F. ovina gr.</i> , <i>Galium saxatile</i> , <i>Gentiana lutea</i> , <i>Huperzia selago</i> , <i>Jasione lavéis</i> , <i>Lotus corniculatus</i> , <i>Luzula campestris</i> , <i>Lycopodium clavatum</i> , <i>Merendera montana</i> , <i>Nardus stricta</i> , <i>Narcissus minor</i> , <i>Narcissus bulbocodium</i> , <i>Narcissus pseudonarcissus</i> , <i>Pinguicula lusitánica</i> , <i>Polygala serpyllifolia</i> , <i>Potentilla erecta</i> , <i>Spiranthes aestivalis</i> , <i>Trifolium repens</i> , <i>Silene ciliata</i> , <i>Veratrum album</i> , <i>Veronica officinalis</i> .	Landazabal Eremua	7,17	0,69
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	707,11	68,24
			Ekipamendu eta azpiegitura eremua	2,03	0,20
			Babes Eremua	121,70	11,75
			Erreserba Eremua	94,85	9,15
			Baso-Abeltzaintza eremua	97,14	9,37
			Inguruko Babes Eremua	5,65	0,55

Funtsezko elementua	Habitatak	Loturiko espezieak	PN zonifikazioa	Azalera (ha) *	% eramuaren arabera
		<i>Aconitum antora</i> , <i>Botrychium lunaria</i> , <i>Coeloglossum viride</i> , <i>Narcissus minor subsp. minor</i> (<i>N. asturiensis</i>), <i>Narcissus bulbocodium</i> , <i>Ophioglossum vulgatum</i> , <i>Persicaria vivipara</i> , <i>Silene ciliata</i> .	Ez dago nahikoa informazio kartografikorik banaketa Parke Naturalaren zonifikazioaren arabera jotzeko.		
		<i>Aconitum variegatum</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Armeria pubinervis</i>	Erreserba Eremua	3	75
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	25
		<i>Arnica montana</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	100
	Larre menditarrei lotutako flora	<i>Carlina acaulis subsp. caulescens</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Gentiana lutea</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	100
		<i>Gentianopsis ciliata</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	100
		<i>Geranium cinereum</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Huperzia selago</i>	Erreserba Eremua	1	50
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	0,1	5
			Periferiako Eremu Babestua / Ekipamendu Eremua	0,9	45
		<i>Lathyrus vivanii</i>	Erreserba Eremua	1	100

Funtsezko elementua	Habitatak	Loturiko espezieak	PN zonifikazioa	Azalera (ha) *	% eramuaren arabera
		<i>Lycopodium clavatum</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	0,1	10
			Periferiako Eremu Babestua / Ekipamendu Eremua	0,9	90
		<i>Pulsatilla alpina subsp. cantábrica</i>	Erreserba Eremua	4	100
		<i>Tozzia alpina</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Veratrum album</i>	Erreserba Eremua	9	90
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	10
		<i>Viola biflora</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Viola bubanii</i>	Erreserba Eremua	1	100
Zohikaztegiak eta lurzoru higroturbosoak	Trantsizioko mirak (EBko kodea: 7140).	<i>Anagallis tenella,</i> <i>Carex demissa,</i> <i>Carex hostiana,</i> <i>Carex equinata,</i> <i>Carex lepidocarpa,</i> <i>Carex panicea,</i> <i>Carex paniculata,</i> <i>Caltha palustris,</i> <i>Erica ciliaris,</i> <i>Drosera rotundifolia,</i> <i>Epilobium hirsutum,</i> <i>Hydrocotyle vulgaris,</i> <i>Hypericum elodes,</i> <i>Menyanthes trifoliata,</i> <i>Molinia caerulea,</i> <i>Narcissus pseudonarcissus,</i> <i>Ranunculus aconitifolius,</i> <i>Ranunculus flammula,</i> <i>Scrophularia minor,</i> <i>Sanguisorba officinalis,</i> <i>Veratrum album</i>	Kontserbazio Aktiboko Eremua	1,99	56,34
			Ekipamendu eta azpiegitura eremua	0,01	0,29
			Erreserba Eremua	1,24	35,16
			Baso-Abeltzaintza eremua	0,25	7,18

Funtsezko elementua	Habitatak	Loturiko espezieak	PN zonifikazioa	Azalera (ha) *	% eramuaren arabera
		<i>Veronica becabunga</i> , <i>Viola palustris</i> .			
Harkaitzetako komunitateak	Harkaitzetako flora:	<i>Arum cylindraceum</i> , <i>Asperula hirta</i> , <i>Gypsophila repens</i> , <i>Hugueninia tanacetifolia</i> subsp. <i>suffruticosa</i> , <i>Ribes petraeum</i> , eta <i>Scorzonera aristata</i> .	Ez dago nahikoa informazio kartografikorik banaketa Parke Naturalaren zonifikazioaren arabera jotzeko.		
		<i>Allium victorialis</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Dryopteris submontana</i>	Erreserba Eremua	1	50
			Kontserbazio Aktiboko Eremua	1	50
		<i>Paris quadrifolia</i>	Erreserba Eremua	1	100
		<i>Saxifraga losae</i>	Erreserba Eremua	1	100
			<i>Gypaetus barbatus</i> y <i>Chionomys nivalis</i>	Ez dago nahikoa informazio kartografikorik banaketa Parke Naturalaren zonifikazioaren arabera jotzeko.	
Kiropteroak		<i>Rhinolophus ferrumequinum</i> , <i>R. hipposideros</i> , <i>Myotis blythii</i> , <i>M. daubentonii</i> , <i>M. emarginatus</i> , <i>M. mystacinus</i> , <i>M. nattereri</i> , <i>M. myotis</i> , <i>Nyctalus leisleri</i> , <i>Pipistrellus pipistrellus</i> , <i>P. pygmaeus</i> , <i>P. kuhlii</i> , <i>Eptesicus serotinus</i> , <i>Plecotus auritus</i> , <i>P. austriacus</i> , <i>Tadarida teniotis</i> eta <i>Miniopterus schreibersii</i> .	Ez dago nahikoa informazio kartografikorik banaketa Parke Naturalaren zonifikazioaren arabera jotzeko.		

8. Taula Lotura elementu nagusien eta Aizkorri-Aratz Naturaguneko zonetan identifikatutako habitat eta espezieen banaketaren artean. (*) Espezieen kasuan, kartografiatutako populazioen kopurua adierazten da. Kontuan izan aipatutako habitat eta espezieen zerrendan, batzuk sartuta daudela Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan, eta beste batzuk, berriz, ez.

5.- FUNTSEZKO ELEMENTUEN KONTSERBAZIO-EGOERA.

Habitat Zuzentarauaren arabera, habitat naturalaren gainean (edozein den ere) eta hartan finkaturiko espezie bereizgarrien gainean jarduten duten eraginen multzoari esaten zaio «habitat baten kontserbazio egoera», eta epe luzera, haren banaketa naturala, egitura eta eginkizunak uki ditzakeena, bai eta espezie bereizgarrien biziraupena ukitu ere. Habitat natural baten «kontserbazio egoera» «ontzat» jotzen da, haren banaketa naturala eta aipatu eremuan dauden azalera egonkorak direnean edo handitzen direnean; halaber, hori guztia epe luzera mantentzeko behar diren egitura eta berariazko eginkizunak existitzen direnean nahiz etorkizunean existitzen jarraitzen ahal dutenean, eta era berean, espezie bereizgarrien kontserbazio egoera ona denean. Era berean, «espezie baten kontserbazio egoera» espezieen gainean jarduten duten eraginen multzoa da, eragin horiek populazioen banaketa eta garrantzia uki ditzaketenean. Eta espezie baten «kontserbazio egoera» «ontzat» jotzen da, populazioei buruzko datuek diotenean ez dagoela arriskuan bere presentzia epe luzera bere habitategian, horretarako behar adinako azalera izango duela, hau da, beren banaketa naturaleko azalera murriztuko ez den maneran, eta etorkizunean ere murrizteko arriskua ez dela izango.

Batasunaren intereseko habitat mota eta espezie guztiek kontserbazio egoera ona lortzea da azken helburua; egoera horretan habita mota bakoitzak eta espezie bakoitzak aurrera jo beharko dute hala kalitatean nola hedaduran, eta perspektiba onak izan behar dituzte etorkizunean ere aurrera jotzen jarraitzeko. Helburu horrek balio du lekuan kontserbazio xedetzat jotzen diren elementu guztientzat.

Kontserbazio egoerak elementuaren KBri egiten dio aipamena KBEan, eta Europako Batzordeak garaturiko metodologia erabilita zehazten da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan ezarritako jarraipen arloko betebeharrak betetzeko, eta era berean, Espainiako Batasunaren intereseko habitat motak kontserbatzeko atariko Oinarri ekologikoek ezarritakoa betetzeko; oinarriok Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak garatu ditu.

Era berean, **presioak, mehatxuak eta jarduerak** daude adierazita; hots, lekuaren kontserbazioa eta kudeaketan eragin onuragarria edo kaltegarria izan ditzaketen giza jarduerak eta prozesu natural guztiak. Presioak eta mehatxuak ezartze aldera, lekuari buruzko datuen galdetegi normalduaren presioen zerrenda eta kodeak erabili da, Batzordeak 2011ko uztailaren 11n hartutako Erabakian ezarritakoarekin bat, Natura 2000 Sareko lekuei buruzko informazio galdetegiari dagokiona.

Azkenik, **baldintzatzaileak** sartu dira, hots, ekologia, gizarte, ekonomia eta kultur arloko beste faktore batzuk dira, zein eta kontserbazio egoera ona edo KBEarentzat ezarritako kontserbazio helburuak baldintzatu, hobetu edo lor ditzaketenak.

5.1.- PAGADIAK ETA HARIZTIAK

Alde batera utzita eskura dagoen informazioa azalera okupatuaz, orban kopuruaz, orbanen tamainaz eta haien arteko distantziaz, gaur egun ez dago behar bezalako ezagutzarik habitat horiei buruz, eta era berean, ez dago informaziorik habitat egituraren eta osaketaren zenbatekoa zehatzari buruz; horren ondorioz, ezin esan behar

adina zehaztasunez zertan den haien egoera. Era berean, ez da adierazle finkatuetan oinarrituriko datu-serie luzerik eskura; beraz, bilakaeraren joera ere ezin da ebaluatu.

Lehen hurbilketan, esan daiteke Aizkorri-Aratz eremuko baso mota guztiek egiturazko aberastasun urria dutela ezaugarri. Horren eraginez, fauna dibertsitatea txikiagoa da baso helduetan dagoena baino. Baso helduetan, izan ere, badira zuloz eta hutsartez beteriko zuhaitz zaharrak, zuhaitz-formako oihanpe aberatsa, soilguneak, egur hila, eta inguruko larreekiko trantsizioko ekotonoak. Baso helduek, halaber, aterpea eta elikagaiak ematen dizkiete era askotako eta ongi egituratutako fauna komunitateei

Oro har, egur hil gutxi dago eskura. Dena den, maiz samar interes nabarmena duten zuhaitz lepatuak ageri dira, berez hazten diren zuhaitz urrien ordeztuak, fuste lodiak baitituzte, eta haietan hutsarteak sortu dira, eta haien koroen gainean, landare epifitoak hazten dira. Horri esker, arestian esandakoa gorabehera, Aizkorri-Aratz eremuko basoetan oraindik ere badago nola halako aberastasuna basoko faunan, eta aldi berean, espezie mehatxatu askoren erreserba tokiak dira.

Toki jakin batzuetan baizik ez dira ageri espezie exotiko inbaditzaileak (*Robinia pseudoacacia*, *Buddleja davidii*), eta ia beti jarduera antropikoei lotuta daude, hala nola baso sailak edota hari elektrikoen kaleak garbitzea.

Aizkorri-Aratz eremuko basoek etenik gabeko masa zabalak osatzen dituzte, ez dute zatikatze arazorik, eta sarritan beste pagadi eta *Quercus petraea* edo *Q. robur* hariztiekin daude kontaktuan, eta halako baso-jarraipen bat osatzen dute, zenbaitetan KBetik kanpo zabaltzen dena.

Basoentzako etorkizuneko perspektibak oro har ontzat jo daitezke, gero eta baso aprobetxamendu gutxiago dagoelako, ezinezkoa delako orban batzuetara iristea, eta gizartean eskari handiagoa dagoelako baso helduak kontserbatzeko eta aisiarako erabiltzeko, eta era berean, jabeak gero eta gehiago engaiatzen direlako basoen kudeaketa iraunkorrean.

Babes bereziko eremuko baso-masetan, biodibertsitatearen kontserbazioa kontserbazio aktiboaren ikuspegitik egin behar da, baso-kudeaketa jasangarriaren barruan, mendien funtzioak bete eta susta ditzan (ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak). Alde horretatik, dokumentu honetan kudeaketaren xede den zer bakoitzerako jasotako arauak eredu jasangarri eta funtzio anitzeko batetik planteatu behar dira.

a) Pagadi azidofilo atlantikoak *Ilex* oihanpearekin eta batzuetan *Taxus* (*Quercion robori-petraeae* edo *Ilici-Fagenion*) (EBko kodea: 9120), eta pagadi basofiloak.

Pagadi azidofiloak Aizkorri-Aratz eremuko habitatik zabalena dira (4.449,95 hektarea), eta naturagune babestuaren azaleraren ia % 30 hartu dute. Pagadi basofilo edo neutroak ere luze-zabalera nabarmena hartu du (2.107,48 ha), hau da, azaleraren % 13 inguru. Ez da beti erraza izaten banaketa zehaztea eta bi pagadi mota horiek bereiztea. Ereku karstiko askotan, pagadi azidofiloak sakonuneetan eta substratu handiagoa garatu den lekuetan finkatuta daude; pagadi basofiloa, aldiz, lurzoru garbiko kareharrizko azaleratzeetan ageri da, eta mosaiko etengabea osatzen dute.

Banaketa potentziala mantentzen dute hein handian, eta orban batzuek tamaina nabarmena dute, hala nola Iturrigorriko pagadiak Litekeen banaketa horri dagokionez,

pagadi basofiloaren % 50 inguru kontserbatzen da, eta azidofiloaren % 64 inguru, baina, guztiarekin ere, baso-berritzeek azidofiloak ordeztu dituzte toki askotan. Hori bereziki da agerikoa, besteak beste, Beunden, Arlabanen eta Aizkorriko gailur-lerroaren iparraldean, pagadi horien ordeztu *Larix sp.*, *Pinus nigra* eta *Pseudotsuga menziesii* landatu baitira, eta oso eremu handiak hartu batzuetan.

Bi pagadi motak oso ongi ordezkaturik daude EAEko Natura 2000 Sarean bere osoan. Izan ere, azidofiloen azalera guztiaren % 57 eta basofiloen % 63 sarean sarturik daude. Beraz, banaketa-eremuari dagokionez, balorazioa «ontzat» jo daiteke.

Aizkorri-Aratz KBEan EAEko Natura 2000 Sareko pagadi azidofiloen % 30,79 dago; beraz, funtsezko lekua da, habita hori EAEn mantentzeko, eta basofiloari dagokienez, % 15,32 dago.

Baso-aprobetxamenduek nabarmen sinpletu dituzte pagadion egitura eta dibertsitatea, eta azidofiloek berez dute dibertsitate urria, beste pagadi mota batzuen aldean, eta oso gutxi dira bestelako espezieak, eta, oro har, eite txikia dute.

Ez dugu eskura datu kuantitatiborik masen egituri buruz. Baina, ageriko da masa batzuek mendi beheko egitura dutela, eta gehienetako berezko birsorkuntza baldintzatuta dago. Diametro handiko zuhaitz gutxi daude bizirik, eta are gutxiago, gainbehera egoera aurreratuan dagoenik. Era horretako zuhaitzik ez dagoenez, gutxi da zutik dagoen egur hila; gainera, bakantze-lanetan hondarrak ateratzen dira, egurra ere aprobetxatzen da, eta horren ondorioz, zur gutxi gelditzen da basoaren lurzoruan (González-Esteban eta Villate, 2003).

Hala ere, eremu batzuen naturaltasuna da nabarmentzekoa. Leze alderdiko pagadi azidofiloen kasua da, eta Partzoneriako nahiz Gatzagako unada batzuen kasua ere bai, non zuhaitz zahar lepatuekin batera tamaina handiko ale helduak tartekaturik baitaude. Beste zenbait tokitan pagadi lepatuen unadak daude (Arbarrain, Gomiztegi-Arantzazu, Oñati, Gatzaga, Iturrigorri, Artía, Artaso edo Aldaola). Oltzaipurdiko pagadi basofiloak ere aipatu behar dira, eta Aloña imendiko eta Aizkorri edo Basotxoko iparraldea (Eginoko iparraldea); izan ere, eremu karstikoaren eraginez, ez dira hainbestean ustiatu.

Pagadi azidofiloetan *Narcissus pseudonarcissus* espeziearen populazioak daude. Espezie hori bakana da Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera, eta Batasunaren interesekoa ere bada, Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta baitago. Gainera, soilgune eta orletan, katalogoan sarturiko intereseko beste espezie batzuen populazioak aurkitu dira, hala nola *Gentiana lutea* (Zaurgarria), *Sorbus hybrida* (Galtzeko Zorian), eta zabalduagoa, *Taxus baccata* eta *Ilex aquifolium*, biak ere Interes Bereziak.

Pagadi basofiloari dagokienez, halaber badira kontserbatzeko interesa duten espezieak, hala nola *Narcissus pseudonarcissus*, *Narcissus minor* (Interes Berezi gisa katalogatua eta Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean jaso), *Paris quadrifolia* (Interes Berezia), *Pyrola minor* (Zaurgarria) edo *Prunus padus* (Galtzeko Zorian).

Bi pagadi motetan, egiaztatu da badirela basoko ornogabeen eta ornodunen espezieak, baina populazio kopuruari buruzko ezean, badirudi formazio helduei dagozkienak baino dentsitate txikiagoak daudela.

Beraz, zabalak izanik ere, ondorioztatu behar da Aizkorri-Aratz eremuko pagadi azidofiloek egitura txarra dutela, eta eskaintza urria dute baliabide trofikoetan eta aterpeetan faunarentzat (hala ornodunak nola ornogabeak). Horregatik, beste arrazoi batzuen artean, haien funtzionaltasuna ere ezegokitzat jo behar da. Hala ere, etorkizun ona dutela ondoriozta daiteke. Izan ere, erauzketa-arloko jarduera antropikoak gutxitu egin dira; naturaz gozatzeari lotutako basoerekiko gizarte-eskariak gora egin dute; eta Natura Parke izendatzeak nahiz Aizkorri-Aratz Natura 2000 Sarean sartzeak babesa dakarte berekin.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa eta Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala		X		

b) *Quercus petraea* nagusi den harizti azidofiloa.

Horrelako hariztiak ugari kendu dira KBEan, lurzoruan bestelako erabilerak ezartzeko. Horren ondorioz, gaur egun, azalera potentzialari legokiokeenaren % 30 bakarrik hartzen dute.

Hariztien artean, haritz kandugabez osaturikoak baso bananak eta bereziak dira EAEn. Nahiz eta Gorbeia mendietan ere badauden, eta hein txikiagoan Ordunten, Aizkorri-Aratz eremukoak EAeko masarik zabalena dira, eta EAeko Natura 2000 Sarean sartutakoaren % 65 jotzen dute kasik; beraz, gune hau funtsezkoa da baso mota hori kontserbatzeko.

KBEan, bi eremuk dute interes berezia kontserbaziorako: Barrendiolak (Legazpi), 190 hektarea ingurukoa, non gehienbat *Quercus petraea* espezieaz osaturiko masa bat baitago; eta Gatzagak, 300 bat hektareakoa, non haritzak masa mistoak osatu baititu pagoarekin batera, salbu eta Tantaduin (Hiruerreka), *Quercus petraea* espezieak osaturiko masa gutxi-asko homogeenoa bat baitago.

Bazterreko basoak badira ere, mantenuari gutxiko eta nolabaiteko malda duten lurzoruetara mugatuak badaude ere, beren eremu potentziala berezko arrazoiek eraginda etorri da behera, pagadiak lehia egin diolako, goialdean pagadien jarraipena ematen diotelako, eta gainerakoan, inguruan baso sail landatuta daude.

Barrendiolako masa baso gaztea da, eta ia ez da esku hartu azken urteotan; horri esker, badu egituran nola halako konplexutasuna, eta ahazia nagusi den oihanpe bereizgarria garatu da, eta beste espezie batzuk ere ageri dira, hala nola *Quercus robur*, *Fagus sylvatica* (trantsizio eremuan, batez ere), *Betula alba* edo *Fraxinus excelsior*. Era berean, badira kontserbaziorako intereskoak diren flora espezieak: adibidez, *Narcissus pseudonarcissus*, *Ilex aquifolium*, *Ruscus aculeatus* edo *Taxus baccata* ugaria dena.

Gatzagako hariztiei dagokienez, *Q. petraea* espeziearen aleak tamainaz handiagoak dira, baina oso egur hil gutxi dago, eta egitura oso sinplea da, oihanpea oso urria, eta ia ez da berezko birsorkuntzarik.

Kontuan hartu behar da, altuerari dagokionez, haritz kandugabez osaturiko hariztiak hazten direla behealdeko *Quercus robur* harizti azidofiloen eta goialdeko pagadien artean (gehienbat, azidofiloak); beraz, pagoa ugari da baso horietan, eta ugaria ere tarteko komunitateen garapena eta ale hibridoak.

Ez dago dibertsitaterik, ez berariazkorik, ez egiturari dagokionik, eta hori bereziki da agerikoa Tantadui aldeko (Hiruerreka) 14 ha inguruko unada txiki batean, baso pista asko baitaude, enborrak zuzenak eta erregularrak dira, eta batez beste, 40 cm-ko diametroa dute. Azienda ugari dabil, eta baso lan batzuk bideratuta daude etorkizunean basoan aprobetxamenduak eragitera; bada, hori guztia arriskuan jartzen ari da oihanpearen berezko birsorkuntza eta garapena; habitataren egitura sinpletzen da, eta kontserbazio-egoera onerantz bilakatzea eragozten du.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).			X (Egitura)	X (Eginkizunak)
Etorkizunerako perspektibak				X
Ebaluazio globala			X	

c) Basoei lotutako flora.

Aizkorri-Aratz eremuko basoetan badira flora mehatxatuko hainbat espezie:

Narcissus pseudonarcissus subsp. pseudonarcissus (bakana): Europako hegomendebaldeko espezie endemikoa da (Pirinioak, EAEko Mendiak, Kantabriar Mendikatea eta Portugalgo erdigunea). EAEn, sakabanatuta ageri da EAEko erdialdeko eta iparraldeko hainbat mendi eta ibarretan. Habitat motari dagokionez, espeziea ageri da hala baso naturaletan (pagadiak, hariztiak, baso mistoak, haltzadiak) eta baso landatuetan, nola larre gutxi-asko hezeetan, zohikaztegi eta harkaiztietan, eta lapiaz-arrailetan. KBEan ale asko osaturiko populazioak osatzen ditu; bereziki, Beunde-San Adrian, Iturrigorri, Zaraia, Alabita, Arbarrain, Barrendiolako goialdea, Aitzandia-Jarondo edo Iruaitz. Zenbaitetan, populazioak milaka alez osaturik daude.

Prunus padus (Galtzeko Zorian): Oso espezie urria da Iberiar Penintsulan; zehazki, sakabanatuta ageri da Kantabriar Mendikatean, Pirinioetan eta Iberiar Mendikatean. Hainbat motatako baso soilguneetan hazten da, oihanpeetan, eta mendi-hegal eta sakan ospeletan, beti oso ingurune heze eta freskoetan, estai menditarraren eta azpialpetarraren artean, substratu azidoen edo deskaltzifikatuen gainean. Aizkorri-Aratz eremuko populazioa EAEn ezagutzen den bakarra da, eta oso bakartuta dago Pirinioetako eta Kantabriar Mendikateko populazio hurbilenekoetatik. Populazio hori bi dolina karstikoetan sartuta dago, pagadi baten barnean, 1.150 metroko altueran, Portuzarretik gertu. Oso ale gutxi aurkitu dira (7 baizik ez); beraz, populazio hori bereziki da zaugarria. Azken urteotan, espeziea *ex situ* landatzeko lanak egin dira, aldaxken bidez, eta haziak Landare Germoplasmaren EAEko Bankuan gordez.

Pyrola minor (Zaugarria): Espeziea ugari samarra da Pirinioetako eta Iberiar Mendikateko mendi garaienetan. EAEn, ordea, oso-oso bakana da; horrela, Toloño Mendiko eta Aizkorri-Aratz KBEetan baizik ez da ageri. Basoen orletan bizi da

(pagadietan, nagusiki), eta Aizkorri-Aratzen oso toki gutxitan ageri da, Sancti Spirituko ermitatik Aizkorrira doan igoeran (Nardaundi gain-gainean, hain zuzen); kareharriaren gainean daude, orbela eta gai organikoa metatu den leku batean, *Huperzia selago* espezieraren populazio baten ondoan. Populazio ñimiñoa da, gehienez doznea bat alek osatutakoa, eta mendigoizale asko dabilen toki batetik hurbil dagoena.

Sorbus hybrida (Galtzeko Zorian): oso espezie urria Iberiar Penintsulan; populazio txiki batzuk daude oso barreiatuta Pirinioetan, Kantabriar Mendikatean, Iberiar Mendikatean (Albarracín mendilerroan) eta Sierra Nevada. Urkidi, harizti, pagadi, piornal eta besteetako soilguneetan eta baso bazterretan ageri ohi da, edozein substraturen gainean, 300 eta 1.800 metroren artean. EAEn, oso espezie bakana da eta Ordunteko KBEan (Santiago Patinok aurkitua), Altzaniako mendian (Aizkorri-Aratz KBEa), Urkilla mendian eta Arriola mendian baizik ez da aurkitu (Antzuola, Gipuzkoa). KBE barruan, ale bakar bat baizik ez da egiaztatu Apota aldean, pagadiaren baso pista baten ertzean. Eite txikiko alea da, eta orain arte ez du lorerik atera. Gainera, KBEeko egungo mugetatik oso hurbil, Urkillako mendian ere aipatua izan da, Lusukarri eta Arganbelate arteko alderdian (bain azken urteotan, ezin izan da populazio hori baieztatu) eta Rescibido aldeko pinudi baten ertzean (Amador Prietok aurkitua). Ez dakigu alea zer egoeratan dagoen, pinudia berrikitan moztu baitute. Era berean, badago egiaztatu gabeko erreferentzia bat Aratz mendirako (Jabier Elortzak aurkitua); baieztatuko balitz, zubi-lana egungo luke egungo bi gune ezagunen artean: Urkilla eta Altzania.

Kontserbaziorako interesa duten beste flora espezie batzuk (basoetakoak) ere sartuta daude Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan, eta hemengo basoetan daude: *Ruscus aculeatus*, *Ilex aquifolium* eta *Taxus baccata*. *Taxus baccata* eta *Ilex aquifolium* espezieei dagokienez, Barrendiolako goialdeko populazioak dira nabarmentzekoak. Gainera, Aizkorri-Aratzen bestelako inguruneetan ugariagoak diren espezieak diren arren, honako hauek aurki ditzakegu: *Narcissus minor* (Gorosotxo), *Huperzia selago* (Aratz, Aizkorri), *Gentiana lutea* (Aitztiandia-Iturtzaeta), *Veratrum album* (Arbarrain) edo *Paris quadrifolia* (Portu zaharra-Oltza).

a) *Narcissus pseudonarcissus* subsp. *Pseudonarcissus*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

b) *Prunus padus* y *Sorbus hybrida*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua			X	
Populazioa			X	
Espeziearen habitata		X		

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

c) *Pyrola minor*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak		X		
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

Presioak, mehatxuak eta jarduerak

Ondoren, Presioak, mehatxuak eta jarduerak zerrendatzen dira; hau da, lekuaren kontserbazioan eta kudeaketan eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduerak eta natura-prozesu guztiak.

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus</i> (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>) (EBko kodea: 9120).	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.02	Zuhaitz mozketak
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	B02.06	Basoak bakantzea
	B03	Baso ustiapena, birlandaketarik edo berezko birsortzerik gabe
	B04	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (silbikultura)
	B06	Artzaintza /baso / zuhaiztietan
	J03.01	Habitat baten berriazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.01	Temperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago	

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Pagadi basofiloak edo neutroak eta <i>Quercus petraeanagusi</i> den Harizti azidofiloak	A04.02.01	Artzaintza ez-intentsiboa (behi-azienda)
	A04.02.05	Artzaintza ez-intentsibo mistoa
	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.02	Zuhaitz mozketa
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	B02.06	Basoak bakantzea
	B03	Baso ustiapena, birlandaketarik edo berezko birsortzerik gabe
	B04	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (silbikultura)
	B06	Artzaintza /baso / zuhaiztietan
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
M01.02	Lehorreak eta prezipitazio gutxiago	
Basoei lotutako flora	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.02	Zuhaitz mozketa
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	B02.06	Basoak bakantzea
	B03	Baso ustiapena, birlandaketarik edo berezko birsortzerik gabe
	B04	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (silbikultura)
	B06	Artzaintza /baso / zuhaiztietan
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago

Baldintzatzaileak

Basoek denboraldi luzeak behar dituzte bai egituran konplexutasun handiagoa hartzeko, bai beren ekosistema-funtzioak garatzera bideratutako gaitasuna handitzeko, eta ingurumeneko ondasunez nahiz zerbitzuz hobetzeko. Aipatu behar da KBEko basoen kontserbazio-egoerari buruzko balorazioak zenbatespen kualitatiboak direla, ez baitago behar adina datu kuantitatibo eta kartografiko zehatzik baso heldu bateko egiturazko elementu nagusien gainean: zuhaitz zaharrak, adin dibertsitatea, egur hila, bigarren mailako espezieen dentsitatea eta aberastasuna, soilgune eta ekotono kopurua. Beraz, zaila da baso horien egungo kontserbazio egoerari buruzko balorazio zehatzik egitea indize fidakor eta konparagarrien bidez nahiz epealdi laburreko aldaketak atzemateko moduko indizeen bidez, kudeaketa birbideratzea ahalbidetuko luketenak; beraz, balio kuantitatiboak ezarri behar dira hainbat eskalatan ebaluatu ahal izateko. Horren haritik, egia da egur hila neurtzea adierazle egokia izan daitekeela epe laburreko aldaketak atzemateko, baina beste adierazle batzuk eraginkorrak bakarrik omen dira epe erdirako edo luzerako aldaketak ebaluatzeko. Nolanahi ere, adierazleen emaitzak konparagarriak izan behar dira, eta beste espazio batzuetan erabilgarriak, hainbat analisi-eskalatan informazio fidagarria emate aldera.

Era berean, ez dago kontserbatu beharreko interes bereziko baso txikien gaineko kartografia osorik eta zehatzkorik, ezta basa flora eta faunarentzako mikrohabitaten eta elementuen gainekorik ere. Informazio hori beharrezkoa da, kudeaketa arloko prebentzio neurriak eta proaktiboak ezartzeko.

Zaila da pagadi basofiloak eta azidofiloan argi bereiztea. Biak ere kontaktuan daude eta masa trinkoa osatzen dute eta ia KBE osoa hartzen dute, altuera handieneko eremuetan izan ezik (bertan larre menditarrak ageri baitira). Gainera, badira trantsizio-eremuak pagadien eta bestelako basoen artean, hala nola haritz kandugabez osaturiko hariztiak eta ameztiak (Artiakoa, kasu); beraz, beharrezkoa litzateke berezko basoen kudeaketa integratua egitea.

Harizti kandugabeak garai hotzagoetako erlikiatzat hartzen dira, eta badirudi, pagadia hartzen air dela haien lekua, antzeko betebeharrak ekologikoak baitituzte. Izan ere, pagoaren sartzea altua da masetan. LIFE Lepatuak proiektuaren baitan egindako lanen artean, *Fagus sylvatica* aleak ezabatu dira Barrendiolako hariztitik, pagadi-hariztiaren arteko trantsizio-eremuan, etorkizunean haritzari lehia egin ez diezaion, haritzak argia behar baitu, eta pagoek argia kenduko liokete.

Arlabanen ere bakantze-lanak egin dira hariztian. Dena den, masa horien arazo handiena ez da pagoa bertan haztea, ez argirik ez, baizik eta zaldi nahiz behi gehiegi ibiltzea urte osoan; horrek oihanpearen garapena baldintzatzen baitu, eta horren ondorioz, birsorkuntza urria da. Horregatik, lan horiek ez dira beharrezkotzat jotzen, masak hobetzearen ikuspegitik.

Gatzagako harizti kandugabeak Erabilgarritasun Publikoko Mendi batean dauden, eta badago kudeaketarako plan tekniko bat, etorkizunean zura aprobetxatzera bideratua.

Egurketarako baimenak ia beti pago-zura ateratzeko ematen dira, eta urtero, 15 tona zur inguru ateratzen dira; horrek haritz kandugabeari egiten dio mesede pagoaren aurrean. Aizkorri-Aratz KBEan, 2000. urtean, 50 hektareako bi lurzati zedarritu ziren, aziendarik ez sartzeko, eta basoa birsortzea sustatzeko, epe laburrera tamaina handieneko zuhaitzak aprobetxatze aldera, eta ale gazte egokienak hautatze aldera enborrak hazteko. Azienda sartzen ez den lurzati horietan, basoa birsortzen ari da, haritz eta pago ale gazteak hazten ari baitira; pagoa gehiago sortzen ari da haritza baino. Kudeaketa mota horrek ez du basoa heltzea bermatzen, 2025 baino lehen tamaina handieneko aleak moztea aurreikusia baitago. Nolanahi ere, baso honen egun egituraren duen gabezia eta birsorkuntza urria zor zaio inguruan azienda etengabe ibiltzeari.

Aitzondon eta Gatzagan, basoen inguruan baso sail helduak daude, batzuk lurzoru publikoan, eta batzuetan nabarmen garatu da oihanpe autoktonoa. Koniferoak mailaka ezabatuz eta gerrikituz, eta egur hila lurtean utziz, ona izan liteke harizti kandugabeak eta *Quercus robur* hariztiak hedatzeko.

Baso-biodibertsitatea estuki lotuta dago espazioaren heterogeneotasunari eta egituraren konplexutasunari. Horregatik, kudeaketa aktiboa egin behar da, lekuaren heterogeneotasuna nahiz egituraren konplexutasuna hobetzera edo mantentzera bideratua. Dena dela, orain arte, Aizkorri-Aratz eremuko pagadiak kudeatzean, zure produktu jakin batzuk eskuratzeari eman zaio lehentasuna, eta horrek basoaren egituraren dibertsitatea sinpletzeaz gain, ezabatu egin ditu basoko flora eta faunarentzat funtsezkoak diren egiturazko elementuak: hots, ekotonoak, egur hila, soilguneak, adin eta espezie askotarikoak, zuhaitz begidun zulodunak, eta zuhaitz zaharrak. Beraz, kudeaketa basoen naturalizazio eta heltze prozesua sustatzera bideratu beharko da. Lepatuak inautetik ateratzen den zurak eta haien inguruko lehengoratzea bakantzetik ateratzen denak hein batean egur eskaria ase dezakete. Baina kontuan hartu behar da zuhaitz errietatik egurra ateratzeak egur hila mugatu dezakeela, bai eta ingurune horietan bakarrik dauden nitxo jakin batzuk ere. Hona hemen pagadietako egur hilaren balioak, gure inguruan erreferentzia gisa balio dezaketanak; 40 eta 55 m³/ha artean; eta gaur egun, balioak askoz ere txikiagoak dira. Hala ere, erreferentziazko maila horiek ezin dira lortu plan honen indarraldian.

Bestalde, zuhaitz lepatuek hein batean egiten du zuhaitz helduek eta zaharrek egingo luketen eginkizuna. Horregatik, Iturrigorrin mantentze-lanak egin dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak gidaturiko Life Lepatuak proiektuaren baitan. Antzinako zuhaitz lepatuetan esku hartu da, luzaroago bizi daitezen, eta zuhaitz batzuk lepatu dira, horrelako zuhaitzetan eta habitatetan bizi diren intsektu saproxilikoentzako habitat egokien biziraupena bermatzeko. Hala ere, zuhaitz lepatuen balio kulturala aitortuta ere, eta kontuan hartuta beren mantentze kostua, basoa kudeaketa ale helduak haztera bideratu beharra dago.

Horren haritik, kontuan hartu behar da zuhaitz lepatuak erortzea dela pagadietan soilguneak eragin dezakeen gauza bakarrenetako bat; beraz, zuhaitz lepatu sakabanatuak mantentzea planifikatu beharra dago, faunarentzako intereseko zuhaitzen eta soilguneen toki banaketaren arabera. Bigarren mailako espezie dentsitate txikiko pagadi fustal erregularretan zaila da bigarren mailako espezie horiek berez bidea egitea, pagoak abantaila baitu argiarekiko lehian; beraz, beharrezkoa izan daiteke soilgune txikiak irekitzea, kudeaketa molde berriak pagoaz bestelako espezieen berezko lehengoratzea eragin arte. Era berean, azienda baso hauetan erdi aske larratzen ibiltzea

hein batean ari omen da baldintzatzen oihanpearen garapena eta KBEko baso-masa batzuen berezko birsorkuntza.

Bestalde, Aizkorri-Aratz eremuko basoetako onddoak eta perretxikoak neurrigabe biltzen dira, bai eta basoko beste fruitu batzuk ere, eta ez dago onddoen eta perretxikoen produktibitateari buruzko azterlanik. Horrek arazoak ekar ditzake espezie eta prozesu batzuen gainean.

Inguruneotako flora mehatxatuko populazioei dagokienez, jarraipen lanak egin dira, Germoplasma Bankuan *ex situ* gordetzeko. Dena den, baso-lanek eta ibilgailuek oso mehatxatuta dauden espezie batzuk kaltetu ditzakete, hala nola *Sorbus hybrida*, pisten ertzetan eta baso landatuetatik hurbil hazten baitira.

Galanthus nivalis espeziea nabarmendu behar da, Interes Berezikotzat katalogatuta dagoena Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Penintsulan, adibidez, populazio gutxi jakin batzuk bakarrik ditu, iparraldean, eta herbario-plegu bat gordea dago Madrilgo Lorategi Botanikoan (MA 22583), iragan mendearen hasieran Zaraiako mendian hazten zela erakusten duena, Eskoriatzako udalerrian. Populazio hori ipar-mendebaleko banaketaren muga izango zen Iberiar Penintsulan, eta EAEko populazio bakarra, baina ezin izan da baieztatu azken garai honetan, inguru horretan bazterrak miatu badira ere. Hala ere, litekeena da populazioak iraun izana, eremu potentzial asko baitaude espeziearentzat hala Zaraiako mendian (Asuntzeta-Erlaitz, Alabieta txiki, Aranguren-Andarto, Olaburueta...) nola Aloñak, Oltza, Iturrigorri, Gorosotxo, Aizkorri, Aratz eta beste mendi batzuen iparraldeko basoetan. Beraz, halako miaketa handi eta zehatz bat egin beharko litzateke eremu potentzialetan. Kontuan hartu behar da espezie oso goiz loratzen dela (negu betean); beraz, erraza da inor hartaz ez ohartzea.

5.2.- LARRE MENDITARRAK

Kontserbaziorako interesa duten larreek eta sasidiek 3.089,81 ha hartzen dituzte Aizkorri-Aratz KBEan; hau da, azaleraren % 19 inguru. Dena dela, orbanen azalerari eta banaketari buruzko datuez gain, ez dugu behar adina informazio zehatzik zer kontserbazio-egoeratan dauden zehaztasunez jakiteko; beraz, habitat horien egungo kontserbazio-egoerari buruzko balorazioak balioespen kualitatiboetan oinarritu dira.

Askotan, mendiko larreak mosaikoan banatuta ageri dira interes naturaleko beste komunitateekin: harkaiztiak (EBko kodea: 8130, 8210, 8220), txilardiak (EBko kodea: 4020*, 4030, 4060, 4090), megaforbioen komunitateak (EBko kodea: 6430) edo trantsizioko mirak (EBko kodea: 7140). Horrek huraxe kartografian biltzea zailtzen du, baina egun eskura dagoen informazioa ontzat jotzen da. Mosaikoak heterogeneotasun handia du, landare komunitateak txikiak dira luze-zabaleran, eta gehienak leku iristezinetan daude.

Aizkorri-Aratz eremuko larreetan daude habita mota horietako kontserbazio-egoera oneko habitatetako espezie bereizgarriak. Espezie bereizgarriez gain, askotariko flora espezieak daude mehatxatuak, hala nola *Narcissus bulbocodium*, *Narcissus pseudonarcissus* edo *Narcissus minor*, hirurak ere Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta.

Ez da ikusi higadura-prozesu nabarmenik agerian jartzen duen ezaugarririk. Hala ere, arazo berezi batzuk nabaritu dira, lurra zapaltzeari eta trinkotzeari lotuta, abereek

bereziki gogokoak dituzten lekuetan, hala nola ur-begietan, batez ere Aloña-Urbia inguruan, Portu Zaharrean eta Burgamendin.

Bestalde, Urbia aldean, *Ulex sp.*-en sasi-garbitzea egin da, larreak mantentzea bermatzeko; izan ere, egungo abere-kargak eraginda, larreak komunitate helduagoak bilakatzen ari dira.

Azkenik, azpimarratzekoa da badirela hainbat elementu natural sakabanatuak, hala nola istil txikiak eta tranpalak (Urbia, Portu zaharra, Alabita, Jarondo, Burgalaitz), landare-hesiak (Araotz-Arantzazu), elorri unadak (Beunda, Arantzazu), txabolak eta harrizko horma txikiak (adibidez, Urbia, Oltza, Degurixa, Alabita, Unaimendi-Malla, Arbelar, Jarondo) edo harrizak eta antzinako harrobietako eskoria-metak (adibidez, Jarondo, Oamendi), mikrohabitaten dibertsitatea handitzen dutenak eta intereseko hainbat espeziaren presentzia sustatzen dutenak.

a) Larre alpetar eta azpialpetar karedunak (EBko kodea: 6170).

EAEEn, 5.868 ha-ko azalera hartua dute, eta horien % 57 Natura 2000 Sareko lekuetan dago. Aizkorri-Aratz KBEan, 412 ha-ko azalera hartua du, hau da, lekuaren % 2,59, eta Natura 2000 Sarean, habitat horrek % 11,43 du.

Aizkorri-Aratzen bada EAEEn horren ohikoa ez den larre harritar azpimota bat; *Festuca gautieri* espeziea haztea du ezaugarri, eta mendiko harkaiztietan banatuta dago. Larre horien azalera egonkorra da, eta haien egitura, oro har, habitat horri bereaz dagokiona da; beraz, egokitzat jo behar da.

Etorkizuneko perspektibak ontzat jotzen dira, betiere abere-karga egokia mantentzen bada.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

b) Larre bizikor mesofitikoak eta mesoxerofitikoak kareharrizko substratuen gainean, *Festuco-Brometea* (EBko kodea: 6210).

Brachypodium pinnatum espeziearen larre mesofilo horiek 12,11 ha-ko azalera dute KBEan, azaleraren % 0,70 pasatxo baizik ez. Habitat hori ez dago ongi ordezkatua EAEko Natura 2000 Sarean, inbentarioan jasotakoaren % 21 baizik ez; dena den, zabal hedatuta dago EAEko 41 KBEetan. Aizkorri-Aratzen, zehazki, babestutako azaleraren % 7 dago.

Gaur egun ez dugu eskura datu kuantitatiborik; beraz, ezin balorazio zehatzik egin haren kontserbazio-egoeraz.

Era berean, kontuan harturik larre horiek duten aldakortasuna, abeltzaintza erabileraren arabera duten dinamika azkarra, zaila da haren funtzionaltasuna eta egitura baloratzea, baina hasiera batean, behintzat, egokitzat jotzen da. Hala ere, eremu batzuetan abere-karga txikiagoa da, eta sasiak larre horiek kolonizatzen ari dira; Urbiako hegaletan, adibidez. Beste toki batzuetan, berriz, abere-karga neurritsua-altua da, eta ondorioz, albitza ez da egokiro garatzen; Aloñan, adibidez.

Abeltzaintza estentsiboa desagertzeak eragin kaltegarria izango luke larre horietan, aziendarik egon ezean sasiak azkar inbaditzen dituztelako. Hala ere, etorkizuna ona izango dela pentsa dezakegu; izan ere, epe laburrean ez dago aurreikusita abeltzaintza-karga gutxitzea, habitat horretarako jarritako helburuak lortzea arriskuan jartzeraino.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

c) Belar formazioak *Nardusekin*, espezie ugariarekin, inguru menditsuetako silizeozko substratuen gainean (EBko kodea: 6230*).

Agrostis eta *Festuca* espezieen larre menditarrek 1.036,2 ha-ko azalera hartua dute Aizkorri-Aratz KBEan; hau da, lekuaren % 6,5. Hala ere, zaila da haren kartografia egitea azaleko lurzorua dagoen bazterretan, eta mosaikoan ageri da larre harritar azpialpetarrekin (EBko kodea: 6170), txilardi lehorrekin (EBko kodea: 4030) eta albitziekin, non, zenbaitetan, larre mesofiloetaranzko trantsizioan ari den flora komunitate bat ageri baita (EBko kodea: 6210). Hori atzematen da belar latz hosto zabalak daudelako -albitza, adibidez (*Brachypodium pinnatum*)- eta bertan ere arnika hazten delako (*Eryngium campestre*).

EAEn duen azalera 8.341,28 ha da, eta horren % 12,42 KBE honetan dago; beraz, Aizkorri-Aratz funtsezko lekutzat jotzen da horrelako larreak kontserbatzeko. EAEn inbentariatutakoaren % 68, 08 Natura 2000 Sarearen barruan dago, hau da, habitat honetarako eskatzen diren nahikotasun-mailen oso gaitetik. Hortaz, oso ondo dago sarean ordezkaturia.

Gaur egun, ez dugu eskura datu kuantitatiborik larre horien kontserbazio-egoeraz. Dena dela, egiaztatua da larrea ezaugarritzen duten espezieak hazten direla (*Jasione laevis*, *Festuca gr. rubra*, *Agrostis capillaris*, *Galium saxatile*, *Lotus corniculatus*, *Potentilla erecta*, *Danthonia decumbens*, *Merendera montana*, *Trifolium repens*...).

Ez da atzeman habitataren egitura eta funtzioa osotasunean eta modu esanguratsuan ukitzen dituen unean uneko eraginik. Aloña eta Urbia edo Degurixa artean, urtearen gehienean azienda kopuru handia biltzen da; bereziki ura darion tokietan eta Urbiako erreka inguruan. Horrek, abere-kargaren inguruko gogoetaz harago, larreak higatu eta trinkotzen ditu unean-unean.

Dena dela, etorkizuneko perspektibak onak dira; izan ere, larre horiek dute kalitaterik handiena. Hortaz, aziendak lehentasunez hautatzen ditu.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

d) Larre menditarretako flora.

Larre menditarretako florari dagokionez, oro har oso ale gutxi daude kokapenetan eta, zenbaitetan, oso bakartuta daude beste mendi batzuetako populazio hurbilenekoetatik. Nahiz eta nolabaiteko posibilitatea baden populazioen «erreskate efakturako», munta handiagoko kasuren batean, oso populazio sentiberak dira, eta datu gutxi dugu haien banaketaz, dinamikaz, eta kontserbazio-egoeraz.

Aconitum anthora (Zaurgarria): EAEn bi populazio bakarrik ezagutzen ditugu; bata Entzian, eta bestea, Aizkorri-aratzen. Bi populazioak tamainaz oso txikiak dira eta elkarren artean nahiko bakartuta daude; horrek haien arteko trukaketa genetiko edo propagulo-trukaketa zailtzen du. KBEko populazioa Aizkorriko gailur-lerroaren oinetan dago, Aitzabal eta Arbelaitz mendien artean, erlaitz belartsuetan. 100 eta 250 ale arteko populazioa jotzen da, eta horietatik oso gutxi loratzen dira urtean.

Aconitum variegatum (Zaurgarria): EAEn hiru lekutan bakarrik dago, eta espezieak mundu mailan duen bi gune bakarretako bat osatzen dute. Aizkorri-Aratz eremuko populazioa oso txikia da; hots, dolina bat bakarrik eta Arazko hainbat erlaitz belartsu baizik ez. KBEko populazioa gehienez 100 gara ugaltzailez osatuta dagoela jotzen da; dena den, errizomen bidez birsortzeko duen gaitasuna ikusita, ez dakigu zenbat aleri dagozkien. Populazio hori espeziearen banaketaren mendebaldeko muga da. Inguruan ahuntz-azienda ibiltzea mehatxu-faktore nabaria da.

Armeria pubinervis (Bakana): EAEn, Natura 2000 Sareko bost lekutan aurkitu da, eta ale kopurua oso aldakorra da. Toki mailan ugariak izan badaitezke ere, populazioak bakartuta daude elkarren artean. Europako hegoaldeko mendietako endemismo atlantiar menditar bat da, eta haren kokapen ezagun gehienak EAEn daude. KBEko populazio adierazgarrienak Biozkorgaina eta Nardategi artean daude (Artzanburu mendia oinetan); ehunka ale dira.

Arnica montana (Zaurgarria): EAEn, Natura 2000 Sareko bost lekutan aurkitu da. Populazioa 250 ale helduz osatuta dagoela jo da. Pagadi azidofiloen lekua hartu duten larre eta txilardietan dago. Aizkori-Aratzen, zehazki, Urkillako mendian aipatu da, baina haren presentzia ezin izan da baieztatu azken urteotan.

Botrychium lunaria (Bakana): Espezie boreo-alpetarra da, eta gure mendietan oso populazio murrizak osatzen ditu. EAEn, Gorbeia, Salbada Mendia eta Aizkorri-Aratz eremuko naturagune babestuetan dago. Hain zuzen ere, Aizkorri-Aratz eremuko

populazioa oso txikia da, eta praktikan, ale bakartuak dira, Aizkorriko gailur-lerroetan eta Aratz mendian kokatuak.

Carlina acaulis subsp. *caulescens* (Bakana): unean uneko banaketa dauka ale gutxiz osaturiko populazioetan. Penintsulari dagokionez, Pirinioetan, Kantabriar mendikatean eta Erdialdeko Mendikatean bakarrik dago. EAEn, hiru lurraldeetako mendilerro gutxi batzuetan baizik ez dago, ur-banalerroan (Salbada, Zاراia, Aizkorri, Altzania eta Aralar), Iturrietako mendietan, bai eta Gasteizko Mendietan eta Toloño Mendian ere (Araba). Guztira, EAeko Natura 2000 Sareko bost gunetan. Populazio txikiak osatzen ditu, eta aleak dozena gutxi batzuk izaten dira; baina leku jakinetan aleak ehun ere izan daitezke; Jarondoko belardietan, adibidez. Mehatxatua ez dirudien arren, bilketak uki dezake, oso infloreszentzia ikusgarria duelako (euskal mitologiaren arabera, gaitasun babeslea du, baserrien sarreran zintzilikatzen bada).

Coeloglossum viride (Zaurgarria): orkidea txikia da eta Iberiar Penintsulan Pirinioetako, Kantabriar mendikateko eta Iberiar Mendikateko bazkalekuetan dago. EAEn, oso bakana da eta oso kokatuta dago, hiru populazio ezagun besterik ez baitu, Salbada, Aizkorri eta Aralarren. Populazio txikiak osatzen ditu eta bakartuta daude elkarren artean; EAEn, populazio ugaltzailea gehienez 1.000 alez osaturik dagoela jotzen da. Aizkorri-Aratzen ez dakigu zertan den haren egoera, non larrerik garaienetan izan baita aipatua, Aizkorri eta Arbelaitz artean.

Gentianopsis ciliata (Zaurgarria): EAEn, guztiz bakana da, eta Aizkorri, Altzania eta Salbadan dago, Araban eta Gipuzkoan. Badira kokapenak inguruetan, mendebalderantz, Salbada mendiko Burgosko aldean, eta ekialderantz, Aralarko alde nafarrean; hortik ekialdera hutsune bat dago landarearen banaketan mendebaldeko Pirinioetara iritsi arte. Aizkorri-Aratzen populazio txikiak osatzen ditu Arazko larre harritarretan, Aizkorriko gailur-larretan, Nardaunditik eta Lizarragatik hurbil.

Gentiana lutea (Zaurgarria): espezie hau Europako mendi garaienetan hazten da, eta ugari samarra da penintsula iparraldeko mendietan (Kantabriar Mendikatea eta Pirinioak). EAEn, oso espezie bakana da. Badirudi Gorbeiko populazioetako bat desagertu dela. Gaur egun, Ordunteko eta Aizkorriko KBEetan dago (Urkill, Altzania eta Aizkorriko mendietan) eta Legazpiko Gorostiaga mendian (Gipuzkoa). Haren habitat bereizgarria ingurune ospel eta freskoetako belardiak, larreak, iralekuak eta erlaitz belartsuak dira, baina era berean basoko soilguneetan ageri da (*Quercus petraea* pagadi eta basoetan), bai eta baso-sailetan ere (Gorostiagan, kasu). Aizkorri-Aratzen, ale kopurua mugatu samarra da; kalkuluen arabera, 1.500 ale baino gutxiago, eta ugaltzaileak, berriz, 330etik behera. Ale gehienak Askiola mendiko iraleku batean daude (Urkillako mendian), eta gutxiago dago Portu zaharra, Oltza, Aitztiandia eta Altzola alderdietan.

Geranium cinereum (Galtzeko Zorian): Mendebaldeko Pirinioetako endemismoa da. Aizkorri-Aratzen, banaketaren muga-muga da (mendebalderago, Castrovalneran bakarrik ageri da, Burgos eta Kantabria artean). EAEn, KBE honetan baizik ez da espeziea ezagutzen, eta populazio hau oso bakartuta dago bai Pirinioetakoetatik bai Castrovalnerakotik. Aizkorri-Aratzen, erlaitz belartsu, larre herritar eta harkaiztietako arrailen artean hazten da, 1.300 eta 1.550 metroren artean. Oso ale gutxi dira, Aratzen batez ere; 2011ko zenbaketaren arabera, 59 ale baizik ez (horietariko 21 ugaltzaileak). Beste gunea Aizkorri eta Iraule artean garatuta dago, eta ale gehiago ditu. Horrela, 2011ko erroldaren arabera, 711 ale (46 ugaltzaile).

Huperzia selago (Interes Berezia): espeziea zabal banatuta dago Ipar Hemisferioko eremu epel eta hotzetan (Zirkunboreala), bai eta Makaronesia, Australia, Tasmania eta Zeelanda Berrian ere. Iberiar Penintsulan, Pirinioetan, Kantabriar Mendikatean, Iberiar Mendikatean eta Erdialdeko Mendikatean. EAEn, ongi banatuta dago ur-banalerroaren mendietan; oro har, substratu silizedunen gainean, baina era berean, kareharri lixibiatuen gainean hazten da (Aizkorri-Aratzen, adibidez). Aizkorri-Aratzi dagokionez, ezagutzen dugun ia populazio guztia Aloña eta Katabera arteko alde ospeleko larreetan eta txilardietan dago (ale asko Akaitz eta Jarondo artean daude); 2004an, 650etik gora ale zenbatu ziren. Gainera, Aratzen ere badago, baina gutxiago (ale epifito bat ere topatu da pago baten hurtsartean), eta Nardaundiko hartxingadien gain-gaineko pagadi kaltzikolan. Azken kokapen hori bereziki da harrigarria, kareharrizko arroka baten gainean sortutako humusaren gainean baitago, beste espezie guztiz azidofiloaren ondoan: *Pyrola minor* (Zaugarria). Oso sentibera da zapalketaren aurrean, eta askotan, errotik erauzitako aleak ikus daitezke.

Lathyrus vivanii (Galtzeko Zorian): Mendebaldeko Pirinioetako endemismoa da, eta hiru populazio bakarrik daude Pirinioetako gunen nagusitik kanpo: Beriain mendia (Nafarroa), Aralar (Nafarroa eta Gipuzkoa) eta Aratz (Araba eta Gipuzkoa), azken hori Aizkorri-Aratz KBE barruan. Hain zuzen ere, populazio hori da banaketa-muga erabatekoa. Megaforbio, harkaizti eta erlaitz belartsuetako komunitateen parte da. EAEn, guztira, 21 ale ezagutzen ditugu, Alzania eta Aralar mendietan; 3 eta 18 ale, hurrenez hurren. Arazko aleak (Alzania mendia) erlaitz belartsuetan daude, eta azken urteotan, ez da gara loretsurik garatu. EAeko populazioak oso urrun daude Pirinioetako populazioen gunen nagusitik.

Lycopodium clavatum (Bakana): EAEn, hainbat menditan dago (Ordunte, Gorbeia, Elgea, Aizkorri eta Urkilla), eta kokapen bakartu batzuk daude Gipuzkoako beste mendi batzuetan. Mendi horietan, txilardi heze, larre eta iturburuetakoko ertzetan bizi da, lur silizedunen gainean. ez dakigu zer-nolako egoera duen Elgean eta Urkillan, ez baitira baieztatu azken urteotako aipamenak. Aizkorri eta Aloña mendien artean garatzen den populazioari dagokionez, hamar bat ale aurkitu dira Arriurdin, Iturria eta Jarondo artean.

Narcissus minor subsp. *minor* (*N. asturiensis*) (Interes Berezia): Habitat Zuzentarauko espeziea da eta populazio ezagun asko ditu EAEn, eta haietako bakoitza, gainera, ale ugariz osatuta dago. Iberiar Penintsulako ipar-mendebaldearen endemismo bat da. Aizkorri-Aratz eremuko populazioak ugari samarrak dira (batzuek milaka ale dituzte); bereziki, Zاراia-Orkatzategi, Aloña eta Oltzan. Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta dago.

Narcissus bulbocodium (Interes Berezia): Bizkaiko golkoko endemismo bat da. Asturiastik Euskal Herrira zabaltzen da, eta sarrera berezia egiten du Burgosko eremuetarantz. EAEn, han-hemenka banatuta dago, eta populazio batzuk oso ugariak dira. Aizkorri-Aratzen, batez ere substratu azidoaren edo kareharri lixibiatuen gainean ageri da. Bereziki da ugaria Zاراian (Krutzebarri, Degurixa, Arluz), Elgea-Urkilla mendi-lerro guztian; Alzanian bakanagoa da (Apota). Habitat Zuzentarauaren V. Eranskinean sartuta dago.

Ophioglossum vulgatum (Bakana): Mediterraneo aldeko, Europa erdialdeko eta mendebaldeko eta Makaronesiako uharteetako berezko landarea da. Iberiar Penintsulan sakabanatuta dago klima leuneko eskualdeetan. EAEn banaketa sakabanatua eta unean unekoa du, eta populazioak hiru Lurralde Historikoetan barrena banatuta daude. Zehazki, larre hezeetan bizi da, hala nola iturburuetan, ihitokietan, haltzadietan edota ibar

hondoko hariztietan. 10x10 Km²-ko 28 UTM laukitan dago, eta kalkuluen arabera, populazio guztien artean, milatik gora direla ale helduak. Aizkorri-Aratzen, bi iralekutan aurkitu da; populazio bat Arantzazuko sakanean, eta bestea, Jarondo eta Katabera artean. Bi-biak unean uneko populazioak dira, baina ugari samarrak.

Persicaria vivipara (Zaurgarria): landare honen banaketa boreo-alpetarra da. Iberiar Penintsulan, zehazki, Pirinioetan eta Kantabriar Mendietan ageri da. EAEn oso toki gutxitan hazten da; horrela, erlaitz belartsuetan, Aizkorriko kareharrizko harkaitzen arteko bisuts-lekuetan, Iraule eta Aketegi artean. Ez dakigu zenbat ale ugaltzaile diren, baina Aizkorriko guneak ale talde txikiz osatuta daude. Klima-aldaketek eragin dezakete landarea kontserbatzeko arazo nagusia, ingurune freskoak eta hezeak behar baititu.

Pulsatilla alpina subsp. cantabrica (Bakana): landareak azpiespezie lerruna du, eta Kantabriar Mendietako, EAeko Mendietako eta Pirinioetako endemismo bat da. EAEn, garaiera handieneko mendietan baizik ez dugu ezagutzen (Gorbeia, Aizkorri, Altzania eta Aralar). Gune txikiak osatzen ditu mendietako kareharrizko gailur-lerro iristezinetan. Ale ugaltzaileak eta populazioak, guztira, gutxi badira ere, ez dirudi zuzeneko arriskurik duenik, ez badira faktore bioklimatikoetatik heldu direnak edo aziendak unean-unean sortzen dituenak. Aizkorri-Aratzen, Arazko erlaitz belartsuetan, Aizkorriko gailur-lerroan, eta Kataberako karstean dago, eta beti oso populazio txikiak osatzen ditu.

Silene ciliata (Zaurgarria): EAEn, espezie hau bakarrik da ezaguna Aizkorriko (Gipuzkoa) eta Arcena (Araba) mendiko oso toki gutxitan. Populazioak, txikiak izanda ere, toki batzuetan ugariak izaten dira, eta ez diete eragiten ez aziendak, ez mendizaleen zapalketek. Badirudi landare bakana dela, arrazoi bioklimatikoek eraginda (egungoa baino klima hotzagoko garaietako erlikiatzat jotzen da), eta ez horrenbestean gizakiaren zuzeneko eraginaren ondorioz. Erlikia-populazioak direnez, oso zaurgarriak dira klima-aldaketen aurrean. Aizkorri-Aratzen, Jarondo aldean eta Biozkorgaina eta Nardategin dago; horrela, lekuotako larre-iralekuetan nahiz larre harritarretan hazten da. Populazio horiek ehunka alez osatuta daude.

Tozzia alpina (Zaurgarria): landare hemiparasito hau Europako mendietako berezkoa da, eta estai azpialpetar eta alpetarretan bizi da. EAEn, oso bakana da, eta egun baino hotz handiagoa egiten zuen garaietako lekuko bizia dela esaten da. Ordunte, Gorbeia, Aizkorri-Aratz eta Anboto aldean aurkitu da. Ale gutxiz osaturiko populazio txikiak osatzen ditu. Belar handietako belardietan bizi da, lurzorua oso freskoa dela eta gai organikoetan oso aberatsa; gehienbat, haitzebakien oinetan, baina aldi berean lur silizedunetan estu doazen erreka batzuetan, gehienetan ingurune oso heze eta freskoan, eta sarri lainoak daudela. Aizkorri-Aratzen, megaforbioetan, eta Kataberako eremu karstikoko dolinan, eta Aratz mendian.

Veratrum album (Interes Berezia): ongi banatuta dago Europako toki gehienetan, eta sakabanatuta dago Natura 2000 Sareko zazpi lekutan. Era askotako inguruneetan dago banatua, hala nola erreka-bazterretan, megaforbioetan, harkaiztietako irtenguneetan, larreetan eta/edo txilardietan. Aizkorri-Aratzen, gainera, Arbarrain aldeko tranpal eta hezeguneen ertzetan hazten da. Hain zuzen ere, populazio hori da ugariena, Kataberako eremu karstikoaren erdigunean dagoen gunearekin batera. Urriagoa da Aloña, Buetraitz, Askiola, Andraitz eta Aratzen. Populazio horietako asko aziendarentzat iristezinak diren erlaitzetan badaude ere, hau da, mehatxu handirik gabe (kontuan hartu behar da espezie pozoitsua dela), Arbarraingo populazioa hurbil dago, eta guneren bat baso-sailen eta baso pisten barruan.

Viola biflora (Zaurgarria): espezie boreo-alpetar hau gure inguruko mendirik garaientan dago, hau da, Pirinioetan eta Kantabriar Mendikatean. Eta tarteko populazio gutxietako bat Aizkorri-Aratz KBEan dago. EAEn populazio bakarra da, gainera. Osta-Zuritako (edo Katabera) karstean badagoela dioten erreferentzia bat egonik ere (Pedro Uribe-Echebarria), bakarrik baieztatu da Aratz mendiko iparraldeko elurtegietan, erlantz belartsuetan eta harkaiztietako arrailen artean dagoela. 2004an, kalkuluen arabera, gara galtzaileak 2.354 eta 4.154 artean ziren.

Viola bubanii (Bakana): Pirinioetako eta Kantabriar Mendikateko endemismoa da. EAEn, Aizkorri eta Aralarren bakarrik da ezaguna. Aizkorri-Aratzen, beti unean-unean ageri da elurtegi, larre harritar eta *Juniperus communis subsp. alpina* sasietan, luzaroan elurrez estalitako bazterretan, Aratz, San Adrian, Aizkorri, Katabera eta Artzanburun.

Beste era bateko komunitateetan ageri bada ere, halaber beste espezie babestu batzuk aurki ditzakegu Aizkorri-Aratz eremuko larre menditarretan, hala nola *Allium victorialis* (Bakana) edo *Asperula hirta* (Bakana).

a) *Aconitum anthora*, *Aconitum variegatum*, *Gentianopsis ciliata*, *Geranium cinereum*, *Lathyrus vivanii* eta *Tozzia alpina*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

b) *Armeria pubinervis* eta *Carlina acaulis subsp. caulescens*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

c) *Arnica montana*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

d) *Botrychium lunaria*, *Gentiana lutea* eta *Viola bubanii*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

e) *Coeloglossum viride* eta *Persicaria vivipara*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala				X

f) *Huperzia selago*, *Narcissus minor subsp. minor* (*N. asturiensis*), *Narcissus bulbocodium*, *Ophioglossum vulgatum* eta *Veratrum album*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala	X			

g) *Lycopodium clavatum*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa			X	

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

h) *Pulsatilla alpina subsp. cantabrica*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

i) *Silene ciliata*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak		X		
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

j) *Viola biflora*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala				X

Presioak, mehatxuak eta jarduerak

Ondoren, Presioak, mehatxuak eta jarduerak zerrendatzen dira; hau da, lekuaren kontserbazioan eta kudeaketan eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduerak eta natura-prozesu guztiak.

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Larre alpetar eta azpialpetar karedunak (EBko kodea: 6170).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02	Artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G091.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
Larre bizikor mesofitikoak eta mesoxerofitikoak kareharrizko substratuen gainean, <i>Festuco-Brometea</i> (EBko kodea: 6210).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02	Artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G091.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
Belar formazioak <i>Nardusekin</i> , espezie ugariarekin, inguru menditsuetako silizeozko substratuen gainean (EBko kodea: 6230*).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02	Artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
	M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertpena
Larre menditarrei lotutako flora	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02	Artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02.03	Trukaketa genetikoaren murrizketa
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
	M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertpena

Baldintzatzaileak

Mendiko larreak eta sasiak kontserbatuko badira, bai eta bertako flora eta fauna bereizgarriak ere, era aktiboan kudeaturiko abeltzaintza estentsiboa behar da, eta sinergia handiak ingurumen eta nekazaritza arloko politiken artean; horren ondorioz, akordioak egin daitezke tokian tokiko abeltzainekin, ingurumeneko laguntzak jaso ditzaten, erreferentziazko nekazaritza errenta iriste aldera eta beren lan-baldintzak hobetze aldera.

Albiztiak (EBko kodea: 6210) dinamika azkarra dute, abeltzaintza-erabileraren arabera. Horrela, abere-karga txikia den tokietan, *Ulex sp.* sasiak larreak berehala kolonizatzen dituzte. Abere-karga txikia lagungarria da albizia garatzeko, harik eta, zenbaitetan, espezie bakarreko azalerak osatu arte; abere-karga neurritsu-altuak, berriz, albiza garatze eragozten du. Horrexegatik, mantentzeak oreka zailean dagoen karga behar du.

Abeltzaintza-presioaren banaketa desorekatua da, eta zuhaixka-erako formazioen aitzinamendua lekuan-lekuan baldintzatzen du.

Habitat funtzional horien kudeaketa abeltzaintza-sektorearen errealitate sozio-ekonomikoa eta mendiaren idiosinkrasia elkarri egokitzera bideratuta egon da, artzain-jarduera antolatuz eta arautuz tokian tokiko abeltzain-elkarteak sustatu eta sortzearen bidez, eta haiekin, eta onura publikoko mendien titular diren erakundeekin elkarlanean jardunda, kudeaketa- eta aprobetxamendu-planak itundu dira, zeinetan honako hauek sartzen baitira: artzaintza-ordenantzak egitea; ganadua mendian sartzeko eta handik irteteko egunak erabakitzea; abeltzaintza-zama arautzea; oinarrizko azpiegituraz hornitzea, besteak beste iturburuetatik ura hartu eta bordetan eta urasketan banatzeko; sasiak garbitzea sastrakazko inguruneetan; erabilera-itxiturak abeltzaintzan; erabilera-mahukak; ibiltzeko moduko pistak; hobekuntzak jerteko eta gazta egiteko bordetan eta azpiegituretan; ongarritze zuzentzailea; gaitzea, ahulak izan daitezkeen aldeetan presioa gutxituta aldi batez abeltzaintza-karga handiagoa jasan dezaketen gunetan belar-haziak ereitearen bidez; eta abar.

Urtetik urtera, nola halako aldakortasun maila bat ikusi da, klima-baldintzen arabera. Aldi begetatiboa hasten da, batez besteko tenperatura 7°C edo hortik gorakoa denean, eta behin belar-landaredia hazten hasi denean, larrea hazten utzi beharra dago 3-4 cm-ko altuerara iritsi arte, eta orduantxe sartu beharko litzatekeazienda. Behaketa horiek, hala ere, ez dute aldaketarik eragin larreen antolaketan, eztaazienda mendira sartzeko eta handik ateratzeko datetan ere. Komeni da egiten den jarraipena hobetzea, eta horren ematzek kudeaketa-erabakietan eragina izatea, larreen egoera ona bermatze aldera.

Era desberdinean gobernatu eta kudeatzen dira ardi, behi eta zaldi aziendak. Desberdinak dira mendian sartzeko eta ateratzeko egutegiak. Oso zaila da larreen kudeaketa eskasia dagoen urteetan, eta oso zaila ere bada sasiaren hedapenaren ondorioz hondatzen ari diren inguruak kudeatzea. Izan ere,azienda ez da era aktiboan gobernatzen, behin larreetan sartzen denean. Eta manei hori ez daiteke inposatu, baldintzatu, ezta behar adina bultzatu egungo egoeran. Horrek, zalantzarik gabe, bere ondorioak izango ditu larreen kalitatean eta kantitatean epe ertain eta erdira.

Urte arteko aldaketek (arestian esan dugunez) eta behe-larreen produktibitateak oso nabarmen baldintzatzen dute baiazienda mendian sartzea, baita mendian sartzeko eta ateratzeko datak ere. Egoki kudeatuz, kalitate handiko belar idorra sor dezakete, ustiapenen elikadura autonomia handitzeko, eta larreen aprobetxamendu orekatuak sustatzeko. Beraz, epe erdira eta luzera, ez dago bermatua larreak egoera onean mantentzea, ezta behealdeko sega-belardiena ere, horietako asko KBEko mugetatik kanpo daudenak. Bi-biak KBEko ekoizpen-sistemaren osagai ezinbesteko eta osagarriak dira, eta programa integratu bati jarraikiz kudeatu beharko lirateke. Programa horrek abeltzaintza estentsiborako laguntzak aurreikusi beharko lituzke, ingurumenari egiten dizkion zerbitzuak saritzeko.

Datorren sei urte hauetan aldaketa nabarmenik aurreikusita ez badago ere, ez behintzat abere-kargak mantentzeari dagokionez, badirudi aurreikusteko modukoa dela abeltzain kopuruak behera egingo duela epe labur eta erdira, sektorean oro har ez baitago belaunaldi txandaketarik.

Ustiapen estentsiboen bideragarritasuna oso lotuta dago ustiapenez kanpoko pentsuei eta bazka-landareei, eta azken urteotan prezio altuak izan dituzte. Beraz, larre menditarren larre-baliabideen optimizazioa ez da soilik behar ingurumenaren ikuspegitik, baita diruaren ikuspegitik ere.

Bestalde, egiaztatu da handiagoa dela esnetako ardien ustiapenen marjina garbia eraldakuntzarekin, esne eta haragitako behien ustiapenena baino, hein batean kalitateko izendura batekin merkaturatzen delako. Dena dela, ez direnez baloratzen biodibertsitatearen gainean eragiten dituzten kanpo-zerbitzu onuragarriak (besteak beste, larre horiek mantentzea), ustiapen intentsiboek baino askoz ere laguntza urriagoak jasotzen dituzte, eta era berean, haragitako behien ustiapenek jasotzen dituztenak baino.

Horrenbestez, larre menditarrak zaintzeko alderdirik garrantzitsuenetako bat izan beharko zen abeltzaintza estentsiboa sustatzeko gaitasuna, aldeko kudeaketa aktiboaren bidez; bereziki, ardi-aziendari dagokionez. 2007-2013 aldian, Landa Garapenerako Programak bereziki abeltzaintza estentsiboari buruzko laguntza orokorrak bildu ditu, hala nola eremu pobreetarako laguntzak; era berean, nekazaritza eta ingurumen arloko berezko neurriak bildu ditu mendiko larreak aprobetxatzeko, eta horiek nola halako eragina izan dute Aizkorri-Aratzen. Ez dugu eskura datu fidagarriak KBEko larreak erabiltzen dituzten abere-ustiapenen finantza-errentagarritasunaz, baliabide exogenoekiko duten mendekotasunaz, eta nekazaritza arloko laguntzen eraginaz. Antzeko eremuetan egindako azterlanek adierazten dute beharrezkoa dela laguntzak banatzeko sistema berrikustea 2014-2020 aldiko Landa Garapenerako Programarako.

Horren haritik, erregelamendu horizontal berriak baldintzatu egiten du zuzeneko laguntzetan sarturiko «ordainketa berdea»; hau da, larre egonkorak mantendu behar dira. Beraz, tresna ona da, KBEan ardi-azienda gehiago izatea sendotzeko.

Sua mendez mende erabili izan da, mendiko larreak mantentzeko, eta sasien kolonizazioa geldiarazteko. Gaur egun, beste bitarteko batzuk erabiltzen ari dira suaren orde (sasi-garbitzea, ongarritze zuzentzailea eta abar), oldarkortasun txikiagokoak litezkeen higadura-fenomenoen aurrean, eta beste prozedura agronomikoen kasuan bezala (luberritzea eta/edo berrereintza), murrizketekin hartu eta arautu behar dira, eta betiere komunitate-intereseko bazkalekuak eta sastrakak mantendu eta kontserbatzeko helburu nagusia lortzearen mesedetan.

Ibilgailuak, batez ere mendiko motorrak, pistetatik kanpo ibiltzeak higadura larria eragiten du lurrian, eta mendiko larreak andeatzen ditu.

Gipuzkoan lanak egiten ari dira, flora espezie mehatxatu batzuen habitataren jarraipena egiteko, *ex situ* kontserbatzeko eta kudeatzeko (Garmendia & Oreja, 2007, Garmendia *et al.*, 2008, 2010).

Inguruan ganadua egotea arriskutsua izan daiteke arriskuan dauden harkaitzetako loreen eta larre menditarren arteko espezie batzuentzat.

Sendaketa edo apainketa xedeetarako egiten den bilketak eragina izan dezakete lore-espezie bakan edo katalogatu batzuetan, hala nola basa nartzisoetan, *Gentiana lutea*, *Coeloglossum viride* orkidea eta *Carlina acaulis L. subsp. caulescens*, oso infloreszentzia ikusgarria duena (euskal mitologiaren arabera, gaitasun babeslea du, baserrien sarreran zintzilikatzen bada).

Ez dago egiaztatua *Meum athamanticum* espeziearen presentzia (Galtzeko Zorian), mendiko larreetako berezko espeziea, oso bakana EAEn. Populazio ezagun bakarrak Ordunten eta Gorbeian daude. Aizkorri-Aratzi dagokionez, dagoen erreferentzia bakarra da Araotz aldean bildutako herbario-plegu bat (Zaraia mendian), baina ezin izan da berriz

ere baieztatu 1988an aurkitu ondoren (J. A. Aperribay). Espeziearen bilaketa areagotu beharko litzateke Zاراia aldean (Krutzeberri, Degurixa...), baina baita potentzialki egokiagoak izan daitezkeen beste eremu batzuetan ere beste alde batzuetan ere, Elgea-Urkilla, Aizkorri, Aloña edo Aratz-Altzaniako mendietan.

Azkenik, aipa dezagun zeinen interes handia duten ingurune horiek fauna komunitate aberatsa eta askotarikoa mantentzeko. Nabarmentzekoak dira erbi arrunta (*Lepus europaeus*) eta mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ale ugaltzaileak izugarri murriztu baitira eskualde mailan.

5.3.- ZOHIKAZTEGIAK ETA LURZORU HIGROTURBOSOAK

a) Trantsizioko mirak (EBko kodea: 7140).

Bere osoan 3,5 ha baino azalera pixka bat handixeagoa hartzen badute ere, banaketa eteneko habitatak dira, azalera murrizak; beraz, datu hori hutsala da haren kontserbazio-egoera baloratzeko. Garrantzitsuak dira, ingurune horietakoak berezkoak diren landare espezie ugari hazten direlako, gehien-gehienak oso urriak, eta batzuk galtzeko zorian.

EAEn, 152,64 ha bildu dira kartografian, eta habitat horren % 80,56 Natura 2000 Sarean sartuta dago. Hala ere, hauskorak, bereziak, bakanak dira, eta flora espezie asko mehatxatuta daude; hori dela eta, helburua da habitat horietan inbentariatu diren ordezkariak guztiak kontserbatzea.

Kontserbazio-egoera hau edo bestea da, non kokatuta dauden, nahiz eta esan daitezkeen gehienak gaur egun egoera onean daudela. Tranpal jakin batzuetan, unean-unean lurzoruan trinkotze arazoak daude eta landare estaldura aldatuta dago, nagusiki azidaren ekintzaren ondorioz; arazo horiek kontrolatu behar dira, lekune horiek etorkizunean hondatu ez daitezzen.

Ez da egiaztatu lekunerik batere desagertu izana, eta ez da atzeman drainatze-lanik batere egungoak lehortzeko, eta berrikitan horrelako habitaten garrantzia nabarmendu EAEn; baina, hala ere, zaila da bere kasa bazkatzen den azidaren kontrolatzea, eta azidaren bereziki maite dituen horrelako eremuak; beraz habita horien etorkizuneko perspektibak ezin dira ontzat jo.

Espezie aloktono inbaditzaileek sortutako eraginari dagokionez (oso ohikoak horrelako habitatetan), ez da halakorik atzeman KBeko tranpaletan.

Gaur egun, informazio kuantitatiboa dugu eskura ingurune horietako espezie bereizgarrien aberastasunaz, hala nola briofitoen dibertsitatea; informazio interesgarria ematen badigute ere, oraindik ez dakigu behar adina habitat horien funtzionaltasunaz. Nabarmentzekoa da hainbat tranpaletan Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta dauden hainbat espezie daudela:

Carex hostiana (Galtzeko Zorian): espeziea Europako erdialdetik eta mendebaldetik Suedia erdialdera, Turkiara eta Ipar Amerikako ipar-mendebaldera bitarte zabaldua dago. Iberiar Penintsulan oso urria da, eta Lugo, Ourense, Kantabria, Burgos, Soria, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako toki gutxi batzuetan bakarrik hazten da. EAEn, Urbian (Aizkorri-Aratz KBEn), Mendizorrosten (Orio) eta Izkiko KBeko Kapildui aldean bakarrik da ezaguna. Gipuzkoan, aspaldiko erreferentziak daude Adarra mendiaz eta Jaizkibelez,

baina berrikitan ezin izan dira baieztatu. Aizkorri-Aratz KBEan, tranpal txiki batean ageri da Urbiako erreka ondoan, interes handiko beste espezie batzuekin batera, hala nola *Menyanthes trifoliata*.

Menyanthes trifoliata (Galtzeko Zorian): espezie zirkunboreala da, eta Ipar Hemisferioko lurralde hotz eta epeletan hazten da. Oso bakana da Europako hegoaldean, eta Iberiar Penintsulan, erditik iparraldera baizik ez dago. EAEn, gaur egun Urbiako zelaietako espeziea baizik ez da ezaguna (Aizkorri-Aratz KBEa) eta Orduntekoa, eta Barazarko populazioa desagertu da. KBEan, 2006an baieztatu zen haren presentzia, hainbat urtez haren bila aritu ondoren. Espeziea eraginkortasunez babesteko neurriak *in situ* hartu ondoren, eta *ex situ* ugaltu ondoren, haren okupazio azalera halako hiru da gaur egun, eta beste hiru gunetan sartu da.

Ranunculus aconitifolius (Galtzeko Zorian): Europako erdialdeko eta hegoaldeko mendietako oso bazter garaietako da (estai azpialpetarra eta alpetarra). EAEn, bi kokapenetan baizik ez da ezagutzen: Gorbeian eta Aizkorri-Aratzen. Zohikaztegi eta erreka txikien bazterretan hazten da. Aizkorri-Aratzen, 250 ale inguru izan daitezke (ale begetatibo eta ugaltzaileen artean). Populazio onenak Arbarrainen eta Lezen daude, eta baten bat Burgalaitzen eta Portu zaharran.

Pinguicula lusitanica (Bakana): espeziearen banaketa funtsean atlantikoa da, eta klima epel eta hezei lotuta dago. Zohikaztegi eta erreka bazterretan bizi da, substratu azidoaren gainean, eta zapalketak nahiz beste arazo batzuek sortutako soilgune txikiak hartzen ditu. EAEn, populazio ugari baditu ere, beti bakana izaten da eta kopuruz urria. KBEan, tranpal txikietan eta erreka bazterretan baizik ez da aurkitu, hots, Oamendi eta Arranoaitz mendien arteko ur-azaleratzeetan sortzen diren haietan, mendebaldeko isurialdean. Zapalketa eta abere-karga neurrigabeak espezie galaraz dezake, baina aziendarik batere ez badago, litekeena da habitat potentziala murriztea; beraz, lekunearen abeltzaintza-kudeaketa egokia ezinbestekoa da haren biziraupena ziurtatzeko.

Espezie horiez gain, intereseko beste espezie batzuk ere badaude horrelako inguruneetan. Espezie horietako batzuk espezie Mehatzatuen EAEko Katalogoan jasoak daude, hala nola *Narcissus pseudonarcissus* (Arbarrain, Alabieta, Portu Zaharra), *Lycopodium clavatum* eta *Huperzia selago* (Jarondo) edo *Veratrum album* (Arbarrain), eta beste, ez sartuak, baina EAEn bakanak direnak, hala nola *Viola palustris* (Arbarrain) edo *Hydrocotyle vulgaris* (Arbarrain, Oamendi).

Halaber, Otzaurten *Apium inundatum* espeziea aipatua izan da (Zaugarria). Espeziea berezkoa da istil, aintzira eta erreka bazterreko osinetan, baina erreferentzia hori ia duela 50 urtetik hona ezin izan da baieztatu.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).		X		
Etorkizunerako perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Presioak, mehatxuak eta jarduerak

Ondoren, Presioak, mehatxuak eta jarduerak zerrendatzen dira; hau da, lekuaren kontserbazioan eta kudeaketan eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduerak eta natura-prozesu guztiak.

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Trantsizioko mirak (EBko kodea: 7140).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02	Aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J02.05	Kalteak hidrografia orokorrean
	K02.01	Aldaketak espezieen osieran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
	M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertzea

Baldintzatzaileak

Habitat hauek banaketa sakabanatua dute eta erraz alda daitezkeen ur-azaleratze txikien mendean daude; beraz, lehengoratzeko aukera zaila da benetan, eragina moderatua izanda ere.

Gaur egun, ez da inolako programarik egiten habitat higrotrubosen jarraipena aldi berean behin egiteko, parametro kuantitatiboen bidez. Alabita eta Jarondo aldean, trantsizioko mirek mosaikoak osatzen dituzte *Erica ciliaris* espeziearen txilardi heze atlantiarrekin (EBko kodea: 4020*); horiek ereformazio higrofiloak dira, *Erica tetralix*, *E. ciliaris* eta *Calluna vulgaris* espezieez osatuak, esfagnorekin batera, eta zaila da batzuetan bereizita inbentariatzea; beraz, ziurrenera, zohikaztegi inguruneetako horrelako txilardiak uste baino gehiago izan daitezke. Nolanahi ere, bi habitatak bat datoz espazioari dagokionez, eta presio nahiz mehatxu berberak dituzte. Hortaz, biak era bateragarrian kudeatu behar dira.

Mehatxu-eragile nagusiak jatorriz antropikoak dira. Sua mehatxua esfagnoentzat, eta duela gutxi arte, ohikoa izaten zen bazterrak erretzea, sasi azidofiloen bilakaerari aurre egiteko eta mosaiko irekia irekitzeko; Alabita aldean, batez ere. Erreketa, batetik, lagungarria da esfagnalek behar dituzten baldintza irekiak mantentzeko, baina askotan egiten badira eta oso handiak badira, eragin kaltegarria dute, flora dibertsitate murrizten baitute, espezie sentiberenak galtzen direlako (Heras & Infante, 2004).

Gaur egun, abeltzaintza-jarduera da habitat horiek kontserbatzeko arazorik handiena, azienda bazkan aritzeak berak nahiz lurzorua zapaltzeak eraginda, lurzorua trinkotzen baita; Urbian, bereziki, hantxe baitago abere-karga handiena. Aziendak eremu higroturboso urdunak maite dituen bitartean, hurbileko hegal batzuetan otea sasien dentsitatea handitzen ari da (*Ulex europaeus*). Kontrolik gabeko abeltzaintza-jarduerak lurzorua, uraren kalitatea eta landaredia ukitzen ditu, eta bestalde, drainatze-lanek, ongarriek, makina bidezko sasi garbiketek eta erreketek landaredia pixkana eraldatuko lukete. Dena dela, abeltzaintza-erabilera bateragarria da horrelako habitatak kontserbatzeko, eta gomendagarria ere bada abere-karga txiki bat mantentzea, ingurune hauetakoa berezkoa den landaredia irekia mantentzeko, eta dibertsitatea eragiten du mikroinguruneetan. Ez dakigu zer abere-karga den egokia habitat horiek mantentzeko, baina antzeko egoeretarako egindako azterlanek hauxe finkatu dute: 0,03 UGM/ha/urtea.

Abere-karga bezain garrantzitsua da, edo are garrantzitsuagoa, artzaintza zer urtarotan egiten den. Izan ere, trantsizioko miretan dagoen flora mehatxatua bereziki zaugarria da abuztuaren erdialdea baino lehenago egiten den artzaintzaren aurrean, hau da, landareak oraindik ere ugalketa-zikloa osatu gabe daudenean. Inguru horiek aldi baterako hesitzea, eta abuztuaren erdialdetik aurrera irekitzea, ona gertatu da ingurune horietako landaredia babesteko eta, baldintza onenetan, azaleretan zabaltzeko. Izan ere, Urbian, non hainbat urtez bila eta bila aritu ondoren, 2006an aurkitu baitzen *Carex hostiana* espeziearen ale ugaltzaile bakarra zuen populazioa, bi hesi jarri ziren 2007an, artzaintza eta zapalketa neurrigabea eragozte aldera, eta tranpalen nahiz *Menyanthes trifoliata* eta *Carex hostiana* espezieen kontserbazioa bermatze aldera, bi espezie horiek Galtzeko Zorian baitaude EAEn. Eraitza ona izan da, *Carex* espeziearen ale ugaltzaile gehiago baitira (30 eta 40 artean, urtearen arabera) eta *Menyanthes trifoliata* espeziearen okupazio-eremua hirukoiztu da. Bi espezieen haziak bildu eta Landare Germoplasmaren EAeko Bankuan landatu dira, *ex situ* kontserbatzeko, eta espeziea berriz ere sartzeko eta populazioak sendotzeko programetan erabiltze aldera. 2012an, *Menyanthes trifoliata* espeziearen 15 ale birsartu dira, eta 3 gune berri sortu dira Urbiako zelaietan. Gaur egun, ale horien jarraipena egiten ari da, eta egiaztatu da 13ek ere bizirik dirautela. Baina, urtero, hesiak moztuak agertzen dira; ziurrenera, ustekabeen sartzen diren ardiak atera daitezten.

Litekeena da artzainek eremu horien berezitasunaren eta garrantziaren berri ez izatea, eta hori arazoaren parte bat izan liteke. Jendeak, oro har, ez du horrelako habitaten berri, ezta abeltzainek ere. Beraz, ez dira eraginkortasunez aritzen ingurune horiek babesteko eta kontserbatzeko lanetan. Otea ugaritzen ari den mendi-hegalak sasiz garbitu eta larreak hobetzeak konpentsatu dezake Urbiako tranpalak aldi baterako itxi behar izatea.

Inguruz inguru hesiak jarri ondoren, beharrezkoa izaten da habitaten eta espezie bereizgarrien kontserbazio-egoeraren bilakaera zaintzea, eta beharrezkoa ere, egokia denean, abere-karga eta artzaintza aldia doitzea.

Ranunculus aconitifolius eta aipatu diren beste espezie batzuei dagokienez, arestian esan dugu zaugarriak direla neurrigabe artzaintzaren eta zapalketaren aurrean; horrez gain, pistak egiteak eta baso sail landatuen kudeaketak ere arazoak sor ditzake (habitatak drainatzea eta zapaltzea) hainbat lekutan; Arbarrain edo Burgamendi aldean, adibidez. Leze aldeko ale asko baso-sail landatuak zeharkatzen dituzten erreka bazterretan daude. Beraz, baso landatu horiek kudeatzean eta aprobetxatzean, espezie horiek kontuan hartu beharko dira.

5.4.- HARKAITZETAKO KOMUNITATEAK

a) Harkaiztietako flora.

Aizkorri-Aratzen 12 dira harkaiztietei lotuta dauden flora espezie mehatxatuak: *Allium victorialis* (Rara), *Arum cylindraceum* (Zaurgarria), *Asperula hirta* (Rara), *Dryopteris submontana* (Zaurgarria), *Gypsophila repens* (Zaurgarria), *Hugueninia tanacetifolia* (Galtzeko Zorian), *Paris quadrifolia* (Rara), *Ribes petraeum* (Rara), *Saxifraga losae* (Rara) eta *Scorzonera aristata* (Interes Berezia). Beste ingurune batzuei lotutako beste espezie batzuek mosaikoak osatzen dituzte harkaiztietekin, hala nola mendiko larreek edo megaforbioek, aurreko atalean baloratu ditugunak; adibidez, *Geranium cinereum* (Galtzeko Zorian), *Lathyrus vivanii* (Galtzeko Zorian) edo *Viola biflora* (Zaurgarria).

Ez dakigu zehazki KBEko flora populazio mehatxatuen tamaina, ezta zer banaketa eta dinamika duten ere: *Ribes petraeum* (Rara), *Saxifraga losae* (Rara), *Scorzonera aristata* (Interes Berezia) y *Gypsophila repens* (Zaurgarria). Izan ere, ez dira aztertu espezie horietarako Aizkorri-Aratzen dauden leku potentzial guztiak. Orain arte dakigunaren arabera, populazioak oso ale gutxiz osatuta daude, eta horrek oso zaurgarri egiten ditu, leku iristezinetan kokatuta badaude ere; beraz, ezinbestekoa da luzaroan haien dinamikari buruzko jarraipenak egitea. Era berean, harkaiztietei lotutako espezie batzuen egoera jada sartua izan da mendiko larreei dagokien atalean: *Geranium cinereum* (Galtzeko Zorian), *Lathyrus vivanii* (Galtzeko Zorian) eta *Viola biflora* (Zaurgarria).

Allium victorialis (Bakana): espezie zirkunboreala da, ugari samarra Iberiar Penintsulako iparraldeko mendietan, bai eta Pirinioetan ere. EAEn, ur-banalerroko mendietan aurkitu da: Ordunte, Gorbeia, Urkiola, Ernio, Aralar eta Aizkorri. Mendi horietako alde ospeletako lapiaz-arrailetan eta erlaitz belartsuetan bizi da. Aizkorri-Aratzen gune txikiak osatzen ditu Aloñako eta Aizkorriko erlaitz belartsuetan eta kareharrizko harkaitzen arteko arrailetan.

Arum cylindraceum (Zaurgarria): Europako hego-mendebaldeko toki askotan banatuta dago Turkiara bitarte, eta iparralderantz, Danimarkaraino bertaraino iristen da. Iberiar Penintsulan erdialdeko eta mendebaldeko mendietan dago, Kantabriar Mendikatean, Iberiar Mendikatean, Mendikate Subbetikoetan eta Sierra Nevada. EAEn, berrikitan aurkitu da, eta Oltzako lapiazetan eta larreetan bakarrik da ezaguna. Gutxi dakigu ale kopuruaz, kontserbazio-egoeraz eta populazioen dinamikaz.

Asperula hirta (Bakana): Pirinioetako eta Kantabriar Mendikateko endemismo bat da, eta Aizkorri-Aratz bi mendikate horien arteko lotura da. EAEn, KBE honetan baizik ez da ezagutzen: Zehazki, Biozkorgaina eta Aloña mendiaren artean, eta harkaiztietako arrailetan eta larre menditarretan ageri da. Unean-unean oso ugaria izaten da, eta ale asko leku iristezinetan hazten dira, baina bakartuta dagoenez, eta betebeharrak ekologikoak kontuan hartuta, oso zaurgarria da.

Dryopteris submontana (Zaurgarria): Iberiar Penintsulan, Pirinioetatik Mendikate Betikoetaraino zabaltzen da, baina beti kokapen bakartu eta baztertuetan. EAEn, Alzania, Aizkorri, Aralar eta Urkiola mendietan bakarrik dago, eta ale kopurua urria da. Oso behar ekologiko zorrotzak ditu, eta Aizkorri-Aratzen Kataberako karstaren lapiazeko arrailetan bakarrik aurkitu dugu, eta Aratz mendiko dolina batean. Oso populazio urriak osatzen ditu.

Gypsophila repens (Zaurgarria): Europako erdialdeko eta hegoaldeko mendietan banatuta dago. Iberiar Penintsulan, Pirinioetan eta Kantabriar Mendikatean bizi da, eta kokapen bakarturen bat dauka EAEn, non hegoaldeko muga baitu. EAEn, Anboto mendian ageri da (Bizkaia), kareharrizko malkarraren gainean. Toloño eta Kodes mendietan aipatua izan da, baina lehen horretan ez da aurkitu azkenaldian. Bigarreanean, duela urte gutxi osatu zen, mendiko pista bat egitearen ondorioz. Ziur aski, haziak oso hurbil zegoen nafar herri batetik iritsi ziren. Aizkorri-Aratzen, 2012an aurkitu zen, baina ez dakigu zertan den gaur egun haren kontserbazio-egoera.

Hugueninia tanacetifolia subsp. *suffruticosa* (Galtzeko Zorian): Kantabriar Mendikateko eta Pirinioetako espezie endemikoa. Aizkorri-Aratz eremuko populazioa bi mendikateen arteko lotura da. Populazioa Artzanburu mendiko dolina iristezin baten barean dago, eta guztiz bakartuta dago hurbileneko populazioetatik: Benasque, ekialderantz, eta Pico Tres Mares, mendebaldean. Espezieak 70 m² inguruko orban homogeneoa osatzen du Artzanburuko dolinaren barruan, eta normaltasunez loratzen bada ere (urtean 2.000 gara ugaltzaile baino gehiago garatzen ditu), ezin izan da hazi bideragarririk lortu; beraz, uste izatekoa da ale bakarra dela. Dolina horren barruan, ahuntz-aziendaren arrastoak ere atzeman dira, eta horrek espeziearen biziraupena ukitu du, bai eta *Tozzia alpina* espeziearen biziraupena ere, dolina barruan ere baitago, baina ez da atzeman ahuntzak barruan ibili ondoren.

Paris quadrifolia (Bakana): ongi banatuta dago ia Europa osoan, mediterraneo aldean izan ezik. Iberiar Penintsulan, kokapen gehienak Pirinioetan eta Kantabriar Mendikatean daude, eta Iberiar Mendikatean populazio bakartu batzuk daude. EAEn, nekez ikusiko dugu ur-banalerroko mendiz hegoaldera, eta 5 KBEetan banatuta dago. Aizkorri-Aratzen, espeziea oso lokalizatuta dago (Aratz, Portu Zaharra, Arbelaitz, Artzanburu eta Katabera), eta ingurune ospel eta freskoetan bizi da, lurzoru aberatsetan, pagadi barruan, kareharrian, larreetan, lapiaz-arrailetan eta haitzebakiko oinetako basoetan.

Ribes petraeum (Bakana): European banaketa zabala badu ere, EAEn bi populazio bakarrik ezagutzen ditugu Aizkorrin eta Aralarren. Ale kopuruak, guztira, gutxi dira (150 eta 250 artean, gehienak Aralar aldean). Aizkorri-Aratzen, ale talde txikiak osatzen ditu Kataberako eremu karstikoan, Aizkorriko gailur-lerroan eta Aratz mendiko dolina batean. Ale gehienak leku iristezinetan daude, kareharrizko harkaitzetako arrail eta erlaitzen gainean, ingurune fresko eta itzaltsuetan, eta 1.200 metrotik gora.

Saxifraga losae (Bakana): Iberiar arkuko endemismo bat da, Errioxatik Nafarroara, eta EAEn tarteko populazioak ditu. KBEan, Eginoko harkaitzetan hazten da, eta ale ugari samarrez osaturiko populazioak eratzen ditu leku iristezinetan. Oro har, meatzaritza edo bestelako giza jarduerak (eskaladak, kasu) dira faktore mugatzaile nabariak.

Scorzonera aristata (Interes Berezia): espezie honen banaketa orokorra Europako hegoaldeko mendietara mugatuta dago. Pirinioetan eta Kantabriar mendikatean ugari samarra da. EAEn, ordea, bakana da. Ezagunak ziren Salbada Mendiko eta Izkiko Mendiko populazioak, baina berrikitan, Aratzen aurkitu da, bai eta Gasteizko Mendietan ere. Belardi latzetan bizi da, hala iparraldera begira dauden kareharrizko harkaitzen oinetan, nola basoetako soilguneetan, inguruen heze eta freskoetan. Arazko populazioa 2009an aurkitu zen, eta ez dugu daturik haren kontserbazio-egoeraz, ale kopuruaz edo arrisku-faktoreez.

a) *Allium victorialis*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

b) *Arum cylindraceum*, *Gypsophila repens* eta *Scorzonera aristata*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala				X

c) *Asperula hirta*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak		X		
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

d) *Dryopteris submontana*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

e) *Hugueninia tanacetifolia* subsp. *suffruticosa*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak			X	
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

f) *Paris quadrifolia*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

g) *Ribes petraeum*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

h) *Saxifraga losae*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala				X

b) Harkaitzetako fauna:

Aizkorri-Aratzen, ugari samarra eta askotarikoa da harkaitzetako hegazti komunitatea. Horren haritik, nabarmentzekoa da ugatza hemen noizbehinka ageri dela (*Gypaetus barbatus*), eta sai zuria ere badagoela (*Neophron percnocterus*) ugaltzaile gisa, penintsula mailan gainbehera nabarmenean ari denean; zehazki, bost bikote ugaltzaile daude KBE barruan. Halaber, azpimarratzekoa da badaudela intereseko beste espezie batzuk, hala nola belatz handia (*Falco peregrinus*), KBEan hainbat hazkuntza lurralde dituen; edota sai arrea (*Gyps fulvus*), KBEa ugaltzeko, bizi-eremurako eta elikatzeko erabiltzen duena.

Ugatza (*Gypaetus barbatus*) egotea oso gauza interesgarria da, Europan oso gainbehera nabarmena izan baitu. Orain, Pirinioetako populazio guneraino mugatua gelditu da, eta Galtzeko Arriskuan dago. Azken urteotan, badirudi espeziea lehengorutzen ari dela. Baina Pirinioetako gunen nagusian lurralde kopurua eta unitate ugaltzaileen kopurua asko handitu badira ere, Pirinioetatik kanpo ez da finkatu lurralde egonkor berririk. Azken urteotan, EAEko mendiak kolonizatzekeo saiakera bat egin da, eta 90eko urteetatik aurrera, gutxienez hiru lurraldetan erregistratu da; Aralarren (Nafarroa eta Gipuzkoa artean), Urbasa-Lokizen (Nafarroa eta Araba artean) eta Andian (Nafarroa). Gaur egun, bi lurralde mantentzen dira, Aralarkoa eta Andikoa, eta horiei erantsi behar zaio espeziearen gaineko aipamen kopurua handitu izana Aizkorri-Aratzen.

Espeziarentzako habitat potentziala 1.000 eta 3.000 metro arteko inguru menditsuak dira, eremu malkartsuetan eta ibar zabaletan. Hazkuntza garaian, inguru malkartsu eta iristezinak aukeratzen ditu, baina aldi berean ibarrak eta inguru gizatiartuetan ibiltzen da maiz elikagai bila, askotan herrietatik eta etxaldeetatik hurbil. Haren presentzia basa edo etxe herbiboroak izateari dago lotuta. Aizkorri-Aratzek, beraz, baldintza onak ditu espeziea egonkor finka dadin.

Era berean, Aizkorri-Aratzen ugaltzaile gisa belatz gorria aipatu da (*Falco tinnunculus*) eta, berez ingurune horietakoak diren intereseko hegazti paseriformeak ere, hala nola haitz enara (*Ptyonoprogne rupestris*), harkaitz-zozo gorria (*Monticola saxatilis*), harkaitz-zoro zurdina (*Monticola solitarius*), mendi-tuntuna (*Prunella collaris*), belea (*Corvus corax*), edo belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) eta belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*).

Habitata egokitzen jotzen da hegazti espezie horien bizi eremua izateko, askotariko ingurunean baitaude, bai eta espazio irekiak ere, aziendak erregimen estentsiboan erabiltzen dituen. Horren haritik, hegazti horiek ugari eta askotarikoak direnez, Aizkorri-Aratz funtsezkotzat jotzen da populazio horiek epe luzera mantentzeko; beraz, Hegazti Nekrofagoentzako Interes Berezikoko Eremu gisa sartuta dago, eta era berean, Batasunaren Intereseko Espezie Nekrofagoen Elikadura Babesteko Eremu gisa, EAEko hegazti nekrofagoak batera kudeatzeko Planean.

Azkenik, harkaitzietan lotutako ornodun txiki bat ere aipatu behar da: elur-lursagua (*Chionomys nivalis*). Izan ere, Aizkorri-Aratzen dago espezie horri EAEn ezagutzen zaizkion hiru populazioetako bat; espezie horri buruz KBEan egin diren azken azterlanetan haren presentzia baieztatu da. Horrela, Aizkorri-Aratz eremuko populazioak 120 ha inguruko azalera hartzen du. Populazio dentsitatea apala izanda ere, ongi banatuta dago adinei eta sexuei dagokienez, eta berrikitan ugalketa egiaztatu da; beraz, uste izatekoa da haren biziraupena ez dago arriskuan epe laburrera.

a) *Gypaetus barbatus* eta *Neophron percnopterus*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala			X	

c) *Chionomys nivalis*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak		X		
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

Presioak, mehatxuak eta jarduerak

Ondoren, Presioak, mehatxuak eta jarduerak zerrendatzen dira; hau da, lekuaren kontserbazioan eta kudeaketan eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduerak eta natura-prozesu guztiak.

Espezia	Kodea	Presioa/Mehatxua
Harkaitzetako flora	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02	Aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A0403	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02	Txangozaletasuna, ekitazioa, eta ibilgailu ez motordunak erabiltzea
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02.03	Trukaketa genetikoaren murrizketa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago	

Espezia	Kodea	Presioa/Mehatxua
<i>Gypaetus barbatus</i> y <i>Neophron percnocterus</i>	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	G01.02	Txangozaletasuna, ekitazioa, eta ibilgailu ez motordunak erabiltzea
	G01.04.01	Alpinismoa eta eskalada
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.01.01	Ehizaki eskuragarritasunaren jaitsiera (sarraskia barne)
<i>Chionomys nivalis</i>	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago

Baldintzatzaileak

Ingurune hauek irisgarriak ez izatearen ondorioz, zaila da landare eta fauna komunitate mehatxatuak aztertzea. Nahiz eta gaur egun *in situ* baieztatu den egon badaudela harkaitzetako landare espezie mehatxatu horiek, ez dira populazio errolda osorik egin; beraz, ezin jakin populazioen egungo egoera. Era berean, ezin da baztertu kontserbaziorako intereseko espezie gehiago egotea habitat horiei lotuta.

Habitataren egiturak berak eraginda, flora espezie gehienak geldo eta oso hauskor hazten dira, eta bakartze maila handia duten; populazioak gutxi eta ale gutxiz osaturikoak dira eta, horren ondorioz, lehengoratzea zailagoa da. Bestalde, hegaztiak oso sentiberak dira eragozpenen aurrean. Espezie horiek egoten diren habitatak normalean leku helezinak edo jarduerak aire zabalean egiteko desegokiak izan arren, ez dago informaziorik jolas-jarduera horiek egiten diren maiztasunari, aldiei eta guneei zehatzei buruz, eta, horregatik, ezin da zehaztu zer-nolako eragina izan dezaketen jarduerak horiek harkaitzen eta kontserbaziorako interesekoak diren harkaitzetako espezieen kontserbazio-egoeran.

Ugatzak badu Estrategia Nazional bat bere Kontserbaziorako. Espezieak mugitzeko gaitasun handia duenez, funtsezkoa da EAEko mugez harago doazen eskualdeekin koordinaziopean eta lankidetzan aritzea. Horregatik, badago ugatzari buruzko Jarduketa Plan Koordinatua, eta partaide dira Andaluzia, Aragoi, Katalunia, Nafarroa, EAE, Estatuko Administrazio Zentrala, Andorra eta Frantzia. Planaren baitan populazioaren errolda eta jarraipen koordinatua zehazturik daude.

Estrategia horrek proposatzen du espeziearen arriskuak prebenitu eta zuzentzea, bai eta ugatzaren hilkortasun ez-naturala eragiten duten faktoreak prebenitu eta zuzentzea

ere, eta era berean, ugatzaren hedapen naturala edo artifiziala sustatzea, kolonizatu daitezkeen eremuetara zabaldu dadin, betiere aurrez habitataren bideragarritasuna aztertuta, espeziearengan eragin kaltegarria izan dezaketen arrazoiak aldatuta.

EAEko hegazti nekrofagoak batera kudeatzeko Plana tresna egokia izango da EAE mailan ugatza, sai zuria eta sai arrea kontserbatzeko; hortaz, Aizkorri-Aratzen aplikatzea lagungarria izango da espezie horien populazioen kontserbazio-egoera hobetzeko. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar mugitzeko gaitasun handia duten espezieak direla. Beraz, espezie horiek kudeatzea dokumentu honetako eskalaz harago planteatu behar dela hala haien kumeak nola haien bizi eremuak babesteko; halaber, beste eskualde batzuekin koordinazioan eta elkarlanean aritu beharko litzateke, EAEko mugetatik harago; hori funtsezkotzat jotzen da, sai zuria babesteko, batez ere.

Esan behar da ezen, espezie nekrofago horiek erabiltzeko, nahitaezkoa dela espezie horiek babestearekin bateragarria den abeltzaintza estentsiboa izatea, eta, horregatik, onuragarritzat jotzen da Administrazioak gaur egun sustatzen duen politika; hau da, abeltzaintza estentsiboaren alde egitea, hondakindegia gehiago jarri beharrean, beste zenbait ingurumen-onurarekin batera, bateragarria izan dadin espezie horien babesarekin.

Flora harkaiztarreko espezieentzako arrisku handienetako batzuk aldaketa globalaren ondoriozkoak dira, baina faktore hori babes bereziko eremu honen kudeaketatik kanpo dago, espezie horien populazio-gune gehienak dauden lekuak iristeko zailak direlako, eta zuzeneko edozein giza eraginetik babestuta. Gaur egun, ez da arrisku zuzenik ikusten flora harkaiztarrerako, baina, ahula denez, jarraipena egin behar da.

Gaur egun, harkaitzetako flora espezie batzuk ex situ kontserbatzeko lanak egiten ari dira. Haietako batzuen haziak bildu eta gorde dira (Garmendia & Oreja, 2007, Garmendia *et al.*, 2008, 2010, 2012, 2013).

Aizkorri Mendiaren izaera karstikoa dela eta, zirkulazio hidrikoa, funtsean, lurpekoa da, eta hainbat iturbururen bitartez azaleratzen da. Iturburu horiek, Urkuluko urtegiak gain, bestelako hartuneak hornitzen dituzte giza kontsumorako. Azalera karstikoan egiten den isuri oro zuzenean barneratzen da eta lurpeko urei eragiten die, bai eta koben nahiz leizeen kalitateari, espezie troglobioen habitat gisara. Horrelako akuifero karstikoetan auto-arazketa prozesuak kutsagarrien diluzioa baizik ez dira izaten ia. Akuiferoaren deskontaminazioa oso geldoa izan daiteke, eta are gehiago, itzuliezina, kutsagarria zein den.

Beraz, lurpeko ura oso zaugarria denez kutsaduraren aurrean, eta egungo uren kalitatea bikaina den arren, komeni da arreta berezia jartzea lurpeko sistema hidrologikoari nahiz kobetako habitatei kaltea eragin ahal dieten jarduketetan, betiere kontrolik gabe akuiferoak kargatzeko eremuetan egiten badira.

5.5.– KIROPTEROAK

Egiaztatu da Aizkorri-Aratzen 17 kiroptero espezie daudela. Honatx: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*, *Myotis daubentonii*, *Myotis nattereri*, *Myotis mystacinus*, *Myotis emarginatus*, *Myotis blythii*, *Myotis myotis*, *Nyctalus leisleri*, *Pipistrellus pipistrellus*, *Pipistrellus pygmaeus*, *Pipistrellus kuhlii*, *Eptesicus serotinus*, *Plecotus auritus*, *Plecotus austriacus*, *Miniopterus schreibersii* eta *Taradida teniotis*. Hala

ere, taldea gutxi aztertuta dago; beraz, azterlan sakonagoak egiten badira, litekeena da bestelako espezieen presentzia azaleratzea, hala nola *Barbastella barbastellus*.

Europako kiroptero espezie guztiak Batasunaren intereseko espezie gisara jaso dira Habitat Zuzentarauren IV. Eranskinean, babes zorrotza behar dutela. EAEn, *Myotis mystacinus* eta *Myotis myotis* «Galtzeko Zoprian» gisara katalogatuta daude; *Rhinolophus ferrumequinum*, *Myotis blythii*, *Myotis emarginatus* eta *Miniopterus schreibersii* «Zaurgarriak» gisara, eta *Rhinolophus hipposideros*, *Myotis daubentonii*, *Myotis nattereri*, *Nyctalus leisleri*, *Pipistrellus pipistrellus*, *P. pygmaeus*, *P. kuhlii*, *Eptesicus serotinus*, *Plecotus auritus*, *P. austriacus* eta *Tadarida teniotis* «Interes Bereziak» gisara.

Ez dugu eskura populazioei eta banaketari buruzko daturik, ezta hazkuntza nahiz hibernazio garaiko aterpeei buruzkorik ere. Nolanahi ere, talde horren populazioen joerak oro har atzeranzkoak dira, hala Estatu mailan nola EAE mailan, betiere informazioa eskura dagoen tokietan.

Aizkorri-Aratz, Araozko eta Arantzazuko sakanarekin batera, lehentasunezko eremutat jo dira EAEko kobazuloetako Kiropteroak Kudeatzeko Baterako Planean. Eremu horiek halakotzat hartzen dira aintzat, espezieen aberastasunean eta lehentasunezko aterpeen presentzian oinarrituriko irizpideak aplikatu ondoren. Aizkorri-Aratzen eta inguruetan daude Gipuzkoan kiropteroentzat lehentasunezkoetat jo diren lau aterpeetatik hiru; hau da, Mutiloko eliza, Kobaundi (Arrasate) eta Iritegiko kobazuloa, Arantzazuko sakanean.

Eskura ditugun datuak ikusita, KBeko habitataren kalitatearen balorazio kualitatiboen bidez bakarrik egin dezakegu hurbilketa bat populazioen kontserbazio-egoerara. Horren haritik, gutxi dira luze-zabalera jakin bateko baso helduak; badira eite oneko zuhaitz zaharrak eta lepatuak, saguzarrek erabiltzeko modukoak, baina zulogune gutxi daude eskura kiropteroentzat basoetan. Era berean, soilguneak gutxi dira, eta gutxi ere orlako landaredia garatu duten eremuak, bazter horietan kiropteroen ehizaki gaiak izaten baitira ugariak; ortoopteroak eta koleopteroak, batez ere. Azkenik, esan behar da badirela eremu irekiak baso eremuetatik hurbil, eta urte osoan ura dakarten erreka gutxi batzuk, bai eta abereentzako baltsak eta istilak ere, edo Urkuluko urtegia, non ehizaki gaiak ugariagoak izaten baitira espezie generalistenentzat, hala nola *Myotis daubentonii*, *Pipistrellus pipistrellus*, *P. kuhlii* edo *Eptesicus serotinus*. Nolanahi ere, esan daiteke espezie horien habitata ez dagoela egoera ezin hobean, espezieen populazioen kontserbazio-egoera ona mantentzeko.

Bestalde, badira inor sartu gabeko koba asko, eta karst-eremuko leize asko ere, eta horietan aterpe ugari daude kobetako kiroptero kolonientzat.

Dokumentu honetan proposatutako baso eta abeltzaintza kudeaketaren aplikazioak, eta barrunbe eta kobazuloen erabilera-intentsitate txikiak kiropteroentzako baldintzak hobetuko balituzte ere, erabat zaizkigu ezezagunak espezie horien populazioen banaketa, kopurua eta joera, eta, horrek eraginda, nahiko kontu espekulatiboa da Aizkorri-Aratzen dauden saguzarren etorkizuneko perspektibak zehaztea, eta ageriagoa da baso espezieei dagokienez; beraz, ezezagun gisa baloratu da, espezie generalistenentzat izan ezik.

a) *Rhinolophus ferrumequinum* / *Rhinolophus hipposideros* / *Myotis blythii* / *Myotis nattereri* / *Myotis mystacinus* / *Myotis emarginatus* / *Myotis myotis* / *Barbastella barbastellus* / *Miniopterus schreibersii*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala				X

b) *Myotis daubentonii* / *Nyctalus leisleri* / *Pipistrellus pygmaeus* / *Pipistrellus kuhlii* / *Eptesicus serotinus* / *Plecotus auritus* / *Plecotus austriacus* / *Tadarida teniotis*

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala				X

c) *Pipistrellus pipistrellus*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio egoeraren ebaluazio globala		X		

Presioak, mehatxuak eta jarduerak.

Espeziea	Kodea	Presioa/Mehatxua
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i> , <i>R. hipposideros</i> , <i>R. euryale</i> , <i>Barbastella barbastellus</i> , <i>Myotis daubentonii</i> , <i>M. emarginatus</i> , <i>M. mystacinus</i> , <i>M. Nattereri</i> , <i>M. myotis</i> , <i>Nyctalus leisleri</i> , <i>Pipistrellus pipistrellus</i> , <i>P. kuhlii</i> , <i>Eptesicus serotinus</i> , <i>Plecotus austriacus</i> , <i>Tadarida teniotis</i> y <i>Miniopterus schreibersii</i>	A02	Nekazaritza-lanen aldaketa
	A07	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea
	A10.01	Landare-hesiak eta ibaiertzeko landarerdia edo zuhaixkak ezabatzea.
	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea

Espeziea	Kodea	Presioa/Mehatxua
	B04	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (silbikultura)
	E06.02	Eraikinak berreraiki eta zaharberritzea
	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	G01.04.02	Espeleologia
	G01.04.03	Kobazuloetan bisita turistikoak egitea
	G05.04	Bandalismoa
	G05.07	Kontserbazio neurririk eza edo haiek gaizki kudeatzea
	G05.08	Kobazuloak eta galeriak ixtea
	H06.01	Zaratak, hots kutsadura
	J03.01	Habitat baten berriazko ezaugarrien murrizketa edo galera

Baldintzatzaileak

Ez dago behar bezalako ezagutzarik KBEan dauden espezieei buruz, ez populazioen ugaritasunaz eta tamainaz, ez habitat egokiak dauzkaten lekuez, ezta kumeak hazteko eta hibernatzeko aterpeen kokapenaz eta elikadura eremuez ere. Izan ere, egun eskura dauden datuen arabera, ezin da esan egonaldi egonkorra dutenik Aizkorri-Aratz KBEan aipaturiko kiroptero espezie ia denek. Populazioak egiazki zertan diren eta egun zer joera duten ez jakitearen ondorioz, zaila da toki zehatzetan neurri egokiak hartzea.

Aizkorri-Aratz Naturagune Babestuan dauden espezie guztiek urtaroen araberako joan-etorriak eta mugimendu nabarmenak egiten dituzte beren aterpeen eta ehiza eremuen artean, eta espezie batzuk KBetik kanpoko eremu irekietan aurki daitezke. Landare-hesi eta baso txikien sareak baliatzen dituzte joan-etorriak egiteko, tamaina handiagoko baso masak lotzen dituztelako, eta espezie ornogabeen presentzia sustatzen dutelako, eta kiropteroek, hain zuzen ere, espezie horiek jaten dituzte.

Zuhaitzetako zulo eta arrailak ezinbestekoak zaizkie baso espezieei aterpe hartzeko. Beraz, zuhaitz helduak behar dituzte, eta halakorik ez da ugaria KBEan. Bestalde, Aizkorri-Aratz eremuko basoak askotarikoak dira (hariztiak, artadiak, pagadiak edo haltzadiak), zuhaitz espezie asko hazten dira, eta hori interes handikoa da. Orain arte, sarritan berezko zulo eta arrail nahikorik ez zegoenez, kiropteroentzako kaxa-aterpeak jarri izan dira zuhaitzetan; kiropteroek ondo onartzen dituzte, eta horrela, errazago monitorizatzen dira. Berrikitan egindako azterlanek erakutsi dute kutxa gehienak espezie generalistek okupatzen dituztela, eta ez espezie urrienek. Horren ondorioz, espezie generalisten ale kopuruak handitzen dira, eta lehia ere handiagoa da espezie urrienentzat. Emaitza horiek oraindik erkatu behar badira ere, ez litzateke neurri hori hartu behar, ikerketarako ez bada, eta kudeaketarako ahaleginak berezko zuloak sortzera eta mantentzera bideratuko beharko lirake, eta hori sustatuko bada, beharrezkoa da tamaina handiko zuhaitzak, zuhaitz lepatuak edo hondatuak mantentzea.

Eremu hezeak eta errekek erakargarriak dira saguzarrentzat; ura edateko eta elikagaiak eskuratzeko tokiak dira, intsektu metaketa handia dagoelako. Alde horretatik, uraren baldintza fisikoak eta kimikoak aldatzea edota gai fitosanitarioak edo ongarriak erabiltzearen bidez kutsatzea oso kaltegarria da, ez bakarrik ingurune horien berezko kontserbazio-egoerarentzat, baizik eta baita kiroptero komunitatea mantentzeko ere.

Era berean, kiropteroen habitatetik gertuko alorretan gai toxiko zehaztugabeak erabiltzen badira izurriak kontrolatzeko, horrek eskura dauden ehizakien dibertsitatea murrizten du. Arazo bera dago baserrietako eta eraikin zaharretako zura tratatzeko erabiltzen diren produktu batzuen inguruan (organokloratuak), azken urteotan saguzar espezie batzuen koloniak bere osoan galdu baitira EAEn, hala nola ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*). Gai toxikoak erabiltzea arriskutsua bada ere, ez dago informaziorik produktu horiek Aizkorri-Aratzen egun erabiltzeak espezie horien populazioei eragiten dien kalteaz.

Txabolak eta bestelako eraikinak eta instalazioak zaharberritzeko edo berritzeko jarduketek eragin kaltegarria izan dezakete aterpetzat erabiltzen dituzten kiropteroengan, behar bezala planteatzen ez badira. Bertan dauden espezie batzuk fisurikolak dira, eta harkaitzetako arrailak erabiltzen dituzten aterpe natural gisa, eta askoz ere hein txikiagoan, zuhaitzetako hutsuneak; baina ederki egokitu dira giza eraikuntza mota orotan dauden zirrikitueta. Horregatik, gaur egungo aterpe ezagun gehienak zubien dilatazio juturetan, denetariko eraikuntzetan, pertsiana-kutxetan, eta antzeko beste edozein gunetan daude.

Ez dago araututa koba eta leize ugarietara sartzea. Gainera, espeleologian erabiltzen den karbuero bidezko argiztapena kaltegarria da saguzar kolonientzat. Kiropteroek hazkuntza eta hibernazio garaietan aterpe gisa erabiltzen diren kobazuloak bisitatu badira, eragozpenak sortzen dira, eta eragozpen horien ondorioz, kiropteroek aterpetik alde egin dezakete. Gure Erkidegoan, azterlan eta analisi batzuk egiten ari dira kobazuloak eta barrunbeak turismo eta kirolerako erabiltzeak kiropteroengan eta beste espezie troglobiengan izan dezakeen eraginaz, baina emaitzak oraindik ere behin-behinekoak dira.

Azkenik, jendeak ez daki zer-nolako eginkizun onuragarria betetzen duten espezie horiek, betidanik irudi txarra izan dute, eta eragozpen txikiak sortu ohi dituzte jatorri antropikoa duten aterpeetan; horrek guztiak espezie horien aldeko neurrien garapena baldintzatu dezake.

6.- KONTSERBAZIO HELBURUAK

Funtsezko elementu bakoitzaren egungo kontserbazio-egoera zehaztu ondoren (eskura dagoen informazioa baliatuta), Azken Helburu bat edo hainbat proposatu dira epe luzera, funtsezko elementu bakoitzerako edo kudeaketa xede den elementu bakoitzerako kontserbazio-egoera ona lortzea ahalbidetze aldera. Azken Helburuak ez dira beti lortuko kudeaketa dokumentuan bildutako neurrien aplikazio epealdian. Sarritan, natur sistemen erantzun eta bilakaera denbora oso geldoa izaten da, edo abiaburuko egoera oso hondatuta dago; horregatik, neurriak berehalakoan hartuta ere, kudeaketa tresna gauzatzeko epean aurrerapen partzialak bakarrik lor daitezke desiragarria den bukaerako egoerantz.

Azken Helburuak kudeaketaren azken helburuak dira eta, arestian esan dugunez, batzuetan ezin direnez lortu dokumentuaren denboraldi gisa ezarritako sei urtean, Azken

Helburu bakoitzerako ere Helburu Operatiboak zehaztu dira, hau da, sei urteko epealdiaren ondotik lortu behar diren Helburu operatiboak, zertarako eta ahalik eta denborarik laburrenean aurrera jotzeko edo lortzeko kontserbazio-egoera ona, betiere eskura dauden baliabideak kontuan hartuta.

Nolanahi ere, funtsezko elementuak edo kudeaketako xede diren elementuak banan-banan ikustea onuragarria da, lekuan dauden elementu esanguratsu horiek kontserbatzeko behar diren neurriak hartzeko, eta era berean, kudeaketa errazten du, oinarri harturik erraz ebaluatu daitezkeen helburuak. Dena dela, kontuan hartu beharko da beti kudeaketa dokumentu honen bidez hartzen diren neurrien azken xedea dela lekuaren osotasun ekologikoa babestea, EAEko eremu babestuen sarearen koherentziari ekarpena egitea, eta ekosistemetako ingurumen arloko ondasunez nahiz zerbitzuz hornitzea.

Funtsezko elementua: Pagadiak eta hariztiak	
Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalak eta erdi naturalak mantentzea, naturaltasunaren eta egitura-komplexutasunaren mailak handituta.
Helburu operatiboa 1.1	Baso naturalen eta erdi naturalen egungo kontserbazio-egoerari eta kudeaketa-beharrei buruzko ezagutza hobetzea.
Helburu operatiboa 1.2	Egungo harizti-azalera 50 hektareatan handitzea
Helburu operatiboa 1.3	Pagadien eta <i>Quercus petraea</i> hariztien naturaltasun mailak eta egiturazko kompleksutasun mailak handitzea.
Funtsezko elementua: Larren menditarrak	
Azken helburua 2	Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez ere 140 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorretan (EBko kodea: 6210), 185 ha Larre alpetar eta azpialpetar karedunetan (EBko kodea: 6170), 1.000 ha <i>Nardus</i> formazio belarkaretan (EBko kodea: 6230*), 4 ha de goi mendiko ipurudi herrestarietan (EBko kodea: 4060) eta 2,5 ha <i>Juniperus phoenicea</i> espeziearen ipurudi iraunkorretan (CodUE 5210).
Helburu operatiboa 2.1	Komunitate-intereseko larreen kontserbazio-egoera zehaztea, adierazle kuantitatiboan bidez.
Helburu operatiboa 2.2	Larre-aprobetxamendua antolatzea, larreak beren espezie bereizgarriekin mantentzea bermatzeko.
Helburu operatiboa 2.3	Larreetan, Zuzentarauaren II. eranskineko flora-populazio ezagunen biziraupena bermatzea.
Funtsezko elementua: Zohikaztegiak eta lurzoru higroturbosoak	
Azken helburua 3	Urari eta zohikatzari loturiko habitaten kontserbazioa ziurtatzea, hezetan gradienten aldakorrekiko mikrohabitat heterogeneoak izatea sustatuz, espezie tipikoen ahalik eta dibertsitate handiena hazi dadin.
Helburu operatiboa 3.1	Habitat higroturbosoak eta bertako espezie bereizgarriak dauzkaten lekune guztien babesa bermatzea.
Helburu operatiboa 3.2	KBEko habitat higroturbosoen eta berorietako espezie tipikoen populazioen kontserbazio-egoera hobeto ezagutzea, adierazle kuantitatiboan bidez.

Funtsezko elementua: Harkaitzetako komunitateak	
Azken helburua 4	Harkaitzei eta kobei lotutako habitaten eta berorietako espezie tipikoen egoera ekologiko ona ziurtatzea.
Helburu operatiboa 4.1	Komunitate harkaiztar horien gaineko ezagutza areagotzea.
Helburu operatiboa 4.2	Harkaitzei eta kobei lotutako habitatetarako arrisku-faktoreak prebenitzea eta desagerraraztea.
Funtsezko elementua: Kiropteroak	
Azken helburua 5	Komunitate-intereseko kiroptero-espezieak kontserbazio-egoera onean mantentzea Aizkorri-Aratzen.
Helburu operatiboa 5.1	KBEko kiroptero-espezieen populazioen banaketa eta egoera zehatz-mehatzari buruzko ezagutza areagotzea, bai eta zer faktorek mugatzen duten haien kontserbazio-egoera aldekoa.
Helburu operatiboa 5.2	Kiropteroen baliabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak handitzea, habitata kontserbatu eta hobetzearen bidez:
Helburu operatiboa 5.3	Kiropteroen lehentasunezko aterpeak egokiro babestea, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.
Helburu operatiboa 5.4	Gizartean, kiropteroen errekonozimendu eta balorazio maila hobetzea, haien garrantzia zabalduz.

7.- KONTSERBAZIORAKO ARAUAK

ARAUBIDE OROKORRA

Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala egin eta Kontserbazio Bereziko Eremuen kontserbazio-helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Horrelakotzat honako hauek har daitezke:

1. Nekazaritzako eta abelazkuntzako erabilerak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzko martxoaren 2ko 79/2010 Dekretuaren I. Eranskinean ezarritako nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onetan egiten badira.
2. Basogintzako erabilerak, zurgai, egurketa, larre, luberritze, basa fruitu, onddo eta landare eta lore aprobetxamenduak barne, betiere baso-baliabideen antolamenduko planen eta mendien antolamendurako planen arabera egiten badira, basogintzako kudeaketa jasangarrien irizpideei jarraituz, edo dagokien foru-aldundiek onetsitako larre-planen.
3. Ehiza, dagokien foru-aldundiek onetsitako ehiza-antolamenduko planak betez.

Foru-aldundiek aldaketak egingo dituzte erabilera horietan edo erabilerak egiteko moduan, eta borondezko akordioa lortzen saiatuko da honako hauekin: nekazariak, abeltzainak, baso-kudeatzaileak edo ehiza-eskubideen titularrak, bai eta aipatu planak egiteko ahalmena duten erakundeak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren arabera, dokumentu hau aplikatuta ondare-eskubide eta -interesak kentzeak, hori

egiteko modua edozein izanda ere, bidezko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ekarriko du berekin, azterketa ekonomiko egokiak egin ondoren.

Agiri honek ezartzen duen babes-araubidea bateragarria izango da autonomia-administrazioaren, Estatuko administrazioaren, lurralde historikoetako foru administrazioen eta toki-erakundeen eskudantziekin, eta eskumena duten sektore-gaietan haiek gauzatuko direla bermatuko da. Era berean, zuzenbide historikoko toki-erakundeek mendiak antolatzeko, administratzeko eta kudeatzeko dituzten eskumenekin bateragarria izango da, zehazki, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak dituenekin, eta eskumen horiek baliatzea bermatuko du.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, tokiaren kudeaketarekin zerikusi zuzenik ez duen edo kudeaketarako beharrezkoa ez den plan, programa eta egitasmo oro, toki horri nabarmen eragiten badio bakarka zein beste plan edo proiekturen batekin batera, behar bezala ebaluatuko da, eta aztertuko da zer ondorio eragingo dituen toki horretan, toki horretarako ezarritako kontserbazio helburuak aintzat hartuta

7.1 PAGADIAK ETA HARIZTIAK

Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalak eta erdi naturalak mantentzea, naturaltasunaren eta egitura-komplexutasunaren mailak handituta.
Helburu operatiboa 1.1	Baso naturalen eta erdi naturalen egungo kontserbazio-egoerari eta kudeaketa-beharrei buruzko ezagutza hobetzea
Erregulazioak	<p>1. Baso-baliabideak antolatzeko planek eta mendiak antolatzeko proiektuek edo onura publikoko mendietako plan dasokratikoek tokiko basoak errespetatzeko eta, hala egokituz gero, lehengoratzeko irizpideari jarraituko diote.</p> <p>2. Interes ekologikoko zuhaitzen iraunkortasuna sustatuko da, batez ere onura publikoko mendietan, eta zuhaitz horien aukeraketa ezaugarri hauek kontuan hartuta egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zirkunferentzia handia, espezie bereko besteen aldean. - Egituran eta osaeran ezaugarri bereziak dituzten aleak. - Barrunbe garrantzitsuak enborrean edo enborrean zulatze-egoera aurreratua egotea. - Adaburuan egur hil asko izatea. - Ura metatzen den berezko zuloak. - Zulo zaharrak. - Kalte fisikoak enborrean. - Azala galtzea. - Izerdia exudatzeko kanalak. - Arrailak azalean, adar azpietan edo enborraren oinarrian

Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalak eta erdi naturalak mantentzea, naturaltasunaren eta egitura-komplexutasunaren mailak handituta.
	<ul style="list-style-type: none"> - Onddoen gorputz fruitutsuak izatea. - Lotutako fauna espezie kopuru handia izatea. - Landare epifitikoak izatea (iratzeak, goroldioak, likenak). - Zuhaitz zaharraren itxura izatea. - Lapatua egotea edo iraganean erabili izanaren seinaleak izatea. - Balio kulturala edo historikoa izatea. - Paisaia leku nagusi bat izatea interes estetiko handikoa.
Helburu operatiboa 1.2	Egungo harizti-azalera 50 hektareatan handitzea
	3. <i>Quercus petraea</i> haritzaren ondare genetikoa babestu eta zaintzeko, babes bereziko eremuetan aukeratu diren edo jatorriko eskualde berekoak diren hazietatik lortutako landareak erabiliko dira nagusiki lehengoratzeko proiektuetan.
	<p>4. Egur hil gehiago izateko eta koleoptero saproxilikoak hobeki kontserbatzeko, borondatezko akordioak egingo dira, moztutako zuhaitzen egurra lurrian bertan uzteko, harik eta egur hilerako gomendatutako mailara iritsi arte.</p> <p>5. Onura publikoko mendietako espezie aloktonoen oihaneztatzeetan, baso-antolaketaarako plan teknikoak eta berorien betearazpena ingurumen-integrazioa eta -portaera hobetzen ahaleginduko dira lurretan, dibertsitate espezifikoak sustatu egingo da eta, ahal den neurrian, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak errespetatu.</p>
Helburu operatiboa 1.3.	Pagadien eta <i>Quercus petraea</i> hariztien naturaltasun mailak eta egiturazko kompleksutasun mailak handitzea.
Erregulazioak	<p>6. Naturagune babestuko pagadi azidofiloak eta <i>Q.petraea</i> espezieko hariztiak eraldatzea saihestuko da, horren ondorioa azalera osoa gutxitzea bada.</p> <p>7.- Pagadi azidofiloak eta <i>Q.petraea</i> espezieko hariztiei eragiten dieten eta, gainera, landare-estalkia edo lurrien erabilerak aldatzea eragiten duten baso-proiektuak direla eta, haiei buruz txostena egin beharko du nahitaez lurralde historiko bakoitzean Naturagune babestua kudeatzeko eskumena duen organoak.</p> <p>8.- Nekazaritzako eta basogintzako intsektiziden erabilera masiboak izan dezakeen eragina ebaluatuko du Naturagune babestua kudeatzen duen organoak, eta dosiak nahiz erabil daitezkeen guneak murriztu ahal izango ditu.</p> <p>9.- «Baso-kudeaketa jasangarrirako plan teknikoetan» sartutako neurrien artean, onura publikoko mendietako pagadi azidofiloak eta hariztiei eragiten dietenek tresna honetan ezarritakoaren arabekoak izan beharko dute.</p>

Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalak eta erdi naturalak mantentzea, naturaltasunaren eta egitura-komplexutasunaren mailak handituta.
	<p>10.- Pagadi azidofiloetan eta <i>Q. petraea</i> hariztietan basolanak egin bitartean, pistak eta bideak ireki edo konpontzean, edo makina astunak erabili beharra dakarren edozein jardueratan, makina horiek ibai-ibilguetan hara eta hona ibiltzea saihestuko da, ibilguetan aldaketarik eta uhertzerik gerta ez dadin. Nahitaezkoa bada ibaia alderik alde igarotzea, behar diren prebentzio-neurriak hartuko dira, ingurune horretan ahalik eta kalterik txikiena egiteko.</p> <p>11.- Onura publikoko mendietan, bertako baso bihurtu nahi diren aldeetan, trantsizioko ekotonoak sortuko dira basoaren ertzeko espezieekin.</p> <p>12.- Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetako zuhaitz lepatuak kontserbatu egingo dira, bereziki baso-flora eta -faunarako intereseko zuhaitzen intentsitatea apala den masa gazteetan barreiatuta daudenak.</p> <p>13.- Babes bereziko eremuaren organo kudeatzailea berak onura publikoko mendietan egindako itxiturak mantentzeaz eta egoera onean izateaz arduratuko da, eta beharrezkoak ez direnak kendu egingo ditu.</p> <p>14.- Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetan egiten diren birsortze-mozketetan, espezie sekundarioak mantentzea sustatuko da, pagoen berezko birsortzea bermatzeko.</p> <p>15. Enborrak luzaroan pilatuta utziko dira eta zur lehorra lurzoruan botata utziko da, zertarako eta <i>Rosalia alpina</i> kakalardoaren errunaldiak babesteko.</p> <p>16. Beharrezkoa ez bada, ez da lurperatutako edo erdi lurperatutako zurik mugituko, ezta inguruko lurra ere, <i>Lucanus cervus</i> espeziearen larbak babesteko.</p>

7.2.- LARRE MENDITARRAK

Azken helburua 2	Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez ere 140 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorretan (EBko kodea: 6210), 185 ha Larre alpetar eta azpialpetar karedunetan (EBko kodea: 6170), 1.000 ha Nardusdun formazio belarkaretan (EBko kodea: 6230*), 4 ha de goi mendiko ipurudi herrestarietan (EBko kodea: 4060) eta 2,5 ha Juniperus phoenicea espeziearen ipurudi iraunkorretan (CodUE 5210).
Helburu operatiboa 2.1	Komunitate-intereseko larreen kontserbazio-egoera zehaztea, adierazle kuantitatiboen bidez.
Helburu operatiboa 2.2	Larre-aprobetxamendua antolatzea, larreak beren espezie bereizgarriekin mantentzea bermatzeko.
Erregulazioak	17.- Naturagune babestu osoan, behar bezala antolatuta egongo da abeltzaintza-jarduera, organo eskudunek idatzi eta onartutako antolaketa-plan tekniko egokien bidez. Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko inbertsio egokiak jasoko ditu, beharrezkoak direlako gutxienez egungo azienda mantentzeko, eta zer baldintzatan gauzatu behar diren zehaztuko du.

Azken helburua 2	Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez ere 140 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorretan (EBko kodea: 6210), 185 ha Larre alpetar eta azpialpetar karedunetan (EBko kodea: 6170), 1.000 ha Nardusdun formazio belarkaretan (EBko kodea: 6230*), 4 ha de goi mendiko ipurudi herrestarietan (EBko kodea: 4060) eta 2,5 ha Juniperus phoenicea espeziearen ipurudi iraunkorretan (CodUE 5210).
	<p>18.- Onura publikoko mendietan, debekatuta dago belar-sastrakak garbitzea goi-mendiko ipurudi herrestariz eta <i>Juniperus phoenicea</i> espezieko miter iraunkorrez estalitako lekuetan, gunearen organo kudeatzaileak salbuespenezko kasuetan berariazko baimena eman ezean.</p> <p>19.- Foru-organook baimena eman ezean, debekatuta dago sua erabiltzea sasiak kontrolatzeko metodo moduan. Organo horrek baimena eman ahal izango du lotura izanez gero larre-habitatak mantendu eta kontserbatzearekin.</p> <p>20.- Onura publikoko mendietan, Habitaten Zuzentarauan jasotako larre- eta sasi-habitategen okupatzen dituzten eremu guztietan, larreak antolatzeako plan teknikoan arabera egingo dira jardun agronomikoak (ongarritzea, medeatzea, berrereintza, fitosanitarioak, herbizidak eta sasiak kentzea), edo, bestela, foru-organo eskudunak baimenduta eta larre-habitaten mantentze eta kontserbazioari lotuta.</p> <p>21. Ingurumeneko kontratua edo borondatezko beste akordio mota batzuk sina daitezten sustatzea, larrea-txilardia mosaikoa kontserbazio-egoera onean mantentzeko eta, era berean, abeltzaintza estentsiboak eragiten dituen ingurumen onurak saritzeko.</p> <p>22. Dokumentu honetako kontserbazio-helburuen gaineko eragina ahalik eta gehien gutxitzeko behar diren ingurumen-baldintzak eta neurri zuzentzaileak bildu beharko dituzte onura publikoko mendietako abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko neurri guztiek.</p> <p>23. Aizkorri-Aratz eremuko larreak erabiltzen dituzten abeltzainen parte-hartzea eta elkarlana sustatzea gomendatzen da, larreak eta txilardiak (eta intereseko beste habitat batzuk) babestu eta hobetzeko neurriak prestatu eta gauzatze aldera.</p> <p>24. Eremu horiei lotutako abeltzaintza-jarduera bultzatzeko eta beraren kontserbazioa bermatzeko behar diren azpiegiturak sortu, mantendu eta konpondu beharko dira.</p>
Helburu operatiboa 2.3	Larreetan, Zuzentarauaren II. eranskinen flora-populazio ezagunen (<i>Narcissus minor</i>) biziraupena bermatzea.
Erregulazioak	25. <i>Narcissus minor</i> -en populazioen bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen nahitako jarduerak baztertuko dira.
	26. Debeku da espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sarturiko espezieak biltzea KBE osoan, salbu eta behar bezala baimendurik dauden ikerlan zientifikoetan.
	27. Kontserbazio programen garapena <i>ex situ</i> egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko espezieen populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada.

7.3.- ZOHIKAZTEGIAK ETA LURZORU HIGROTURBOSOAK

Azken helburua 3	Habitat hidroturbosoen kontserbazioa ziurtatzea, hezetasun gradiente aldakorreko mikrohabitat heterogeneoak izatea sustatuz, espezie bereizgarrien ahalik eta dibertsitate handiena hazi dadin.
Helburu operatiboa 3.1	Habitat higroturbosoak dauden leku guztien eta bertako espezie bereizgarrien babesa bermatzea.
Erregulazioak	<p>28.- Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian jasotako habitatei (EBko kodea: 7140 eta EBko kodea: 4020) eragin diezaieketen turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzeke, baimena eman beharko du organo kudeatzaileak, zeinak, bere azterketan, honako hauek kontuan hartuko baititu: jariatze-uren norabidea eta drainatze naturalak, bai eta, hala egokituz gero, behar diren babes-perimetroak ere.</p> <p>29.- Onura publikoko mendietan, baldintzak eta abeltzaintza-zama aztertu ondoren arautuko da istingen eta berorien inguruaren kontserbazioa. Itxiturak jarriz gero, erakunde kudeatzailearen ardura izango da babes-hesiak egoera onean egotea, eta aziendarentzat aska izan daitezen bermatzea. Istingetan eta erretako txilardi higroturbosoetan, Naturagune babestuaren organo kudeatzailearen baimena beharko da abeltzaintza-erabilera egiteko.</p> <p>30.- Onura publikoko mendietan, edozein jarduera galaraziko da, baldin eta eremua txikiagotzen badu, edo habitat higroturbosoen kontserbazio-egoera edo berorien kontserbazioa baldintzatzen duten baldintza fisiko-kimikoak nahiz inguruneoak ezabatu, aldatu edo andeatzen baditu. Eragin hori izan dezakeen edozein jarduera aurrez aztertuko da, eta, hala egokituz gero, berariazko baimena eman beharko du organo kudeatzaileak.</p> <p>31. Naturagune Babestuan inolako ur aprobetxamendurako baimena emateko, horrek sor ditzakeen eraginaren gaineko txosten bat egin beharko da, maila freatikoa eta habitat higroturbosoetarako ur ekarpenetan zer eragin izan ditzakeen egokiro neurtzeko.</p> <p>32.- Organo kudeatzailearen aurretiazko baimena beharko du istinga eta txilardi hezeen inguruko edozein jarduerak, kalte egin badiezaieke gune horiei. Alde horretatik, habitat horren bideragarritasuna arriskuan jartzen duten neurrian, eta aipatu organo kudeatzaileak beharrezkotzat jo ezean, besteak beste honako hauek baztertuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ongarritzea, kaltziozko medeatzeak eta berrereintzak. - Sastraka-kentze mekanikoak, landareak erretzea eta landaretza naturala aldatu eta/edo deuseztatu dezaketan jarduerak egitea. - Katalogatutako florako espezieak edo beste edozein material biologiko edo geologiko biltzea edo hondatzea. - Zura ateratzeko bide berriak, pistak, bidexkak eta bestelako bideak egitea. - Lur gaineko drainatzeak, ur-jarioen desbideratzeak eta istingetarako ur-ekarpenak arriskuan jartzen dituen beste edozein jarduketa. <p>33. Kontserbazio programen garapena <i>ex situ</i> egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko espezieen populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada.</p>

Azken helburua 3	Habitat hidroturbosoen kontserbazioa ziurtatzea, hezetasun gradiente aldakorreko mikrohabitat heterogeneoak izatea sustatuz, espezie bereizgarrien ahalik eta dibertsitate handiena hazi dadin.
Helburu operatiboa 3.2	Babes bereziko eremuetako habitat higroturbosoen kontserbazio-egoeraren nahiz habitat horietako espezie tipikoen populazioen gaineko ezagutza handitzea, adierazle kuantitatiboan bidez.
Erregulazioak	34. Landa-lanerako teknikariak prestatuko dira, habitat higroturbosoen presentzia posiblea hauteman dezaten, eta landa-lanak egungo inbentarioak hobetzeko baliatuko dira.

7.4.- HARKAITZETAKO KOMUNITATEAK

Azken helburua 4	Harkaitzei eta kobei lotutako habitaten eta berrietako espezie tipikoen egoera ekologiko ona ziurtatzea.
Helburu operatiboa 4.1	Ingurune harkaiztar horien gaineko ezagutza-maila handitzea.
Helburu operatiboa 4.2	Harkaitzei eta kobei lotutako habitatetarako arrisku-faktoreak prebenitzea eta desagerraraztea.
Erregulazioak	<p>35. Naturagune Babestuan baimentzen diren erabilera eta aprobetxamendu berriek harkaitzetako komunitateen eta harkaitzeko hegaztien bizitza-ziklorako onuragarriak diren I. eranskineko koben kontserbazioa bermatzeko behar beste baldintza sartu beharko dituzte.</p> <p>36. Inolako obrarik, lanik edo jarduketarik egin behar bada harkaiztietako hegaztien bizitza-zikloarentzako interesekoak diren eremuetatik hurbil, garai kritikoetatik kanpo egingo dira, EAEko Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean ezarritakoarekin bat.</p> <p>37. Debeku da zentral eolikoak ipintzea 10 km-ko inguru batean Naturagune Babestuan, ugatzaren ohiko pausalekuen inguruan, edo EAEko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean eremu kritikotzat jotzen diren eremuetan.</p> <p>38. Debeku da zentral eolikoak ipintzea 5 km-ko inguru batean Naturagune Babestuan, sai zuriaren habia tokien eta belatz handiaren hazkuntza lurraldeen inguruan, edo EAEko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean eremu kritikotzat jotzen diren eremuetan.</p> <p>39. Debekatuta dago harkaiztietako ingurune horietan pista edo bidexka berriak egitea.</p> <p>40. Ingurune horietan debeku da biologia eta geologia gaiak biltzea, baita zientzia eta apainketa xedeetarako izanik ere, salbu eta aurrez Naturagune Babestuaren Administrazio kudeatzaileak baimentzen badu.</p>

Azken helburua 4	Harkaitzei eta kobei lotutako habitaten eta berorietako espezie tipikoen egoera ekologiko ona ziurtatzea.
	41. Hartxingadi basikoetako eta horiei lotutako landarediaren egonkortasuna ziurtatze aldera, higakinak erazte debeatuta dago.
	42. Debeatuta dago animalia hilak dolina eta hobi karstikoetara botatzea, dela hegazti nekrofagoen espezieentzako elikadura-baliabideak mantentzeko, dela lurpeko urak ez kutsatzeko. Abere hilak zorrotzago kontrolatuko dira, bai eta zaborrak dolinetan nahiz hobi karstikoeran botatzea ere; eta abeltzainak sentsibilizatzeko eta haiei informazioa emateko lanak areagotuko dira, egintza horiek lurpeko uren kalitatean duten eraginaz.
	43. Kontserbazio programen garapena <i>ex situ</i> egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko espezieen populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada.
	44. Debeku da ehiza-postu finakoak jartzea usoa eta birigarroa ehizatzen, ezta ereindako ehizarako eremuak jartzea ere, gutxienez ere 1.000 metrotan ugatzarentzako eta/edo sai zuriarentzako Ereku Kritikoaren inguruan, EAEko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean ezarritakoarekin bat, elikadura osagarriko programak garatzen diren eremuetan, eta era berean, gutxienez ere 500 metroko erradio batean sai arreen kolonien inguruan.

7.5.- KIROPTEROAK

Azken helburua 5	Komunitate-intereseko kiroptero-espezieak kontserbazio-egoera onean mantentzea Aizkorri-Aratzen.
Helburu operatiboa 5.1	Gehiago jakitea babes bereziko eremuetan dauden kiroptero-espezieen populazioen banaketaz eta egoeraz, bai eta espezie horiek kontserbazio-egoera onean egotea mugatzen duten faktoreez ere.
Erregulazioak	45. Ziurtatu beharko da kiropteroei jarraipenak egiteko teknikek ez dutela aurreikusi beharko animaliak harrapatzea eta maneiatzea, salbu eta irizpide teknikoek eta zientifikoek justifikatuz gero eta organo kudeatzaileak aldeztu aurretik baimenduz gero.
	46. Kontserbatu beharreko objektuen jarraipen- eta inbentariatze-lanetan biltzen den informazioa beste naturagune batzuetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura jarriko da; zehazki, udan Aizkorri-Aratzen dauden espezieen negualdiko aterpeak egon litezkeen naturaguneetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura.
Helburu operatiboa 5.2	Kiropteroen baliabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak handituko dira, habitata kontserbatu eta hobetzearen bidez:
Erregulazioak	47. Fitosanitarioen eta/edo pestiziden erabiltzaileak prestatzeko, informazioz hornitzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak sustatuko ditu organo kudeatzaileak, gai horien erabilera arduratsua eta kiroptero-populazioekiko bateragarria bermatzeko.

Azken helburua 5	Komunitate-intereseko kiroptero-espezieak kontserbazio-egoera onean mantentzea Aizkorri-Aratzen.
	48. Landazabal atlantikoan bereizgarriak diren egiturazko elementuak mantentzea bultzatuko da, hala nola landare-hesiak, landa-hesiak, horma txikiak, baso txikiak, e.a. Eta belazeetan iturbururik edo eremu istiltsurik badago, horiek mantentzea zainduko da.
Helburu operatiboa 5.3	Kiropteroen aterpeak egokiro babestea, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.
Erregulazioak	49.- Babes bereziko eremuaren barruko kiropteroen aterpe nagusiak identifikatuko ditu organo kudeatzaileak, betiere EAEko Kiroptero Harpetarrak Kudeatzeko Plan Bateratuaren barruan.
	50.- Kiropteroen aterpe nagusitzat jotako barrunbeetan sartzeko, Naturagune babestua kudeatzen duen organoaren aurretiazko baimena izan beharko da, bai eta aplikagarriak diren gainerako baimenak ere.
	51.- Debekatuta dago kiroptero-populazioak nahasten dituzten turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzea aurkitutako aterpe nagusien 100 metroko perimetroan, organo kudeatzaileak baimena eman ezean.
	52.- Naturagune babestun organo kudeatzaileak txostena egin behar du onura publikoko mendietako zubietan eta eraikinetan egiten diren obrei buruz, Habitaten Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetako kiropteroei ez eragiteko.
	53.- Kiropteroen aterpe nagusia diren eraikinen eta instalazioen eraberritze edo birmoldaketetan egiten diren zuraren tratamendu intsektu-hiltzaileetan, foru-organok eskudunak baimena emango beharko du organokloratuak, organofosforatuak edo permetrinak erabiltzeko.
	54.- Kiroptero-kolonia edo -aterpe nagusiak aurkitzen badira sarbide errazeko lekuetan, prebentzio-neurri egokiak hartuko dira, leku horietan bandalismorik ez izateko.
	55. Saguzar fisurikolen populazioak sendotuko dira, eta zirrikitu egokiak antolatuko dira, lan publiko batzuetan aterpetu daitezzen, hala nola zubietan eta biaduktuetan.
Helburu operatiboa 5.4	Gizartean, kiropteroen errekonozimendu eta balorazio maila hobetzea, haien garrantzia zabalduz

7.6.- BABES BEREZIKO EREMUAN IDENTIFIKATUTAKO HABITAT ETA ESPEZIEETARAKO ARAUEN LABURPENA

Taula honetan, labur biltzen dira babes bereziko eremuan identifikatutako habitat eta espezieen aldeko arauak (kontserbazio-arauak).

a) Tabla hábitats.

Kodea HIC/EUNIS	Izena	Errepresen tatibitatea	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
4020*/F4.12	Eremu epeletako txilardi heze atlantiarrek <i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i> espezieekin / Txilardi kantauriar higrofiloak <i>Erica tetralix</i> espeziearekin	C	Txarra-Ezegokia	28, 31, 32, 34 29 (EPM bakarrik)
4030/F4.21(X), F4.21(Y), F4.23(X), F4.237	Txilardi lehor europarrak / Ahabidia, <i>Erica arborea</i> txilar garaia, <i>Ulex</i> sp espeziea nagusitzen den txilardi atlantiarra, Kantauri-Pirinio aldeko txilardiak <i>Erica vagans</i> eta <i>E.cinerea</i> espezieekin.	A	Ona	17, 19, 21, 23 20 (EPM bakarrik)
4060/F2.23	Goi-mendietako ipurudi herrestariak / Sasidi alpetarrak eta borealak <i>Juniperus communis</i> subsp. <i>alpina</i>	A	Ona	17, 19, 23 18, 20 (EPM bakarrik)
4090/F7.44 (Y), F7.44 (Z)	Txilardi kaltzikola genistadunak / Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin	B	Ona	17, 19, 21, 23 20 (EPM bakarrik)
5210/F5.132	Juniperus phoenicea-ren ipurudiak / Ipurudi-bujedo	A	Ona	17, 19, 23 18, 20 (EPM bakarrik)
6170/ E1.27	Larre alpetar eta azpialpetar karedunak / larre karedun harritarrek	A	Ona	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
6210/ E1.26	<i>Festuco-Brometea</i> karedun substratuen gaineko larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorrek / Albiztiak eta <i>mesobromion</i> taldeko larreak	B	Txarra-Ezegokia	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
6230*/E1.7, E1.73	<i>Nardus</i> formazio belarkarak, espezie ugarirekin, mendiar substratu silizidunen gainean (Eta Europa kontinentalako eremu azpimenditsuetaoak) / <i>Agrostis</i> eta <i>Festuca</i> espeziez osaturiko larreak, Larre silizidunak (<i>Deschampsia flexuosa</i>).	A	Ona	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kodea HIC/EUNIS	Izena	Erreprentatibitatea	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
6430/E5.53	Maila menditarretik alpetarrera bitarteko ordoki-orletako megaforbio eurotofo hifrofiloak /Megaforbio piniotarrak eta iberiarrak.	C	Txarra-Ezegokia	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
6510/E2.21	Altitude txikiko sega-belardi pobreak / Larratu gabeko sega-belardi atlantiarrek	D	Txarra-Ezegokia	
7140/D2.3	Trantsizioko mirak / Tranpal azidofiloak-esfagnalak	C	Txarra-Ezegokia	28, 31, 32, 34 29, 30 (EPM bakarrik)
7220/C2.12	Trabertinoen landaredia / Iturburu petrifikante tofikoletako landaredia (trabertinoak)	C	Txarra-Ezegokia	
8130/H2.64	Askatze mediterraneoak, mendealdekoak eta termofiloak / Kareharrizko hartxingadietako landaredia	B	Ona	35, 36, 39, 40, 41, 44
8210/ H3.2	Kareharrizko mailkar arrokatsuetako landaredia kasmofitikoa / Harkaizti basikoetako landaredia	A	Ona	35, 36, 39, 40, 41, 44
8220/ H3.1	Malda arrokatsu silizedunak landaredia kasmofitikoarekin	C	Ona	35, 36, 39, 40, 41, 44
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	B	Ona	35, 40, 42, 50, 51, 54
9120/G1.62	Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus</i> (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Illici-Fagenion</i>) / Pagadi azidofilo atlantikoak. .	A	Txarra-Ezegokia	1, 2, 9, 12, 14, 15, 16 (EPM bakarrik), 4, 6, 7, 8, 10 (guztiak)
9160/G1.A1(Y)	<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpialpetarra /Harizti mesotrofo azpialpetarra	D	Txarra-Ezegokia	1,2, 4
9180*/G1.A4	Maldetako basoak, askatzeak edo <i>Tilio-Acerion</i> deritzonaren trokak / Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa	B	Txarra-Ezegokia	1,2, 4
91E0*/G1.21(Z)	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialak / Ibaierretako haitzadi eurosiberiarra	D	Txarra-Kaskarra	1 y 2 (EPM bakarrik) 4, (guztiak)

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kodea HIC/EUNIS	Izena	Erreprestatibitatea	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
9230/G1.7B1, G17B2	Harizti galaiko-portugalidarrak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -rekin / Iberiar Penintsularen erdialdeko <i>Quercus pyrenaica</i> basoak, amezti kantauiarrak	B	Txarra-Ezegokia	1,2, 4
9240/ G1.77(V)	<i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> espeziez osaturiko harizti iberiarrak / Amezti azpialtantiarra	C	Txarra-Ezegokia	1,2, 4
9340/G2.121	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> espezieetako artadiak / <i>Quercus ilex</i> baso mesomediterranearrak	D	Txarra-Ezegokia	1,2, 4
9580*/G4.(Y)	<i>Taxus baccata</i> espezieaz osaturiko baso mediterranearrak / Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa, hagin ugariekin.	B	Txarra-Ezegokia	4

a) Espezieen taula.

Kodea	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE y CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10826	<i>Arnica montana</i>	V			VU	Txarra-Kaskarra	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10682	<i>Lycopodium clavatum</i>	V			BAKAN A	Txarra-Kaskarra	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
16675	<i>Narcissus bulbocodium</i>	V			IE	Ona	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
16674	<i>Narcissus asturiensis</i>	II		*	IE	Ona	25, 26, 27, 39, 41, 43
16690	<i>Narcissus pseudonarcissus varduliensis</i>	II			BAKAN A	Ona	39, 41, 43
12719	<i>Ruscus aculeatus</i>	V			IE	Ona	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
14131	<i>Parachondrostoma miegii</i>	II				Ona	10

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kodea	Mota	DH eranskina	DA erans- kina	LESPRE y CEEA	CVEA	Kontserbazio- egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10002	<i>Austropotamobius italicus</i>	II-V		VU	EP	Txarra-Kaskarra	10
	<i>Callimorpha quadripunctaria</i>	II				Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
	<i>Cerambyx cerdo</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	4
10008	<i>Elona quimperiana</i>	II-IV		*		Ezezaguna	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
	<i>Euphydryas aurinia</i>	II		*		Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10022	<i>Lucanus cervus</i>	II		*	IE	Ezezaguna	4, 16
	<i>Osmoderma eremita</i>	II		VU	VU	Ezezaguna	4
	<i>Parnassius apollo</i>	II		*		Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
	<i>Rosalia alpina</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	4, 15
10042	<i>Alytes obstetricans</i>	IV		*		Ezezaguna	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
10043	<i>Epidalea calamita</i>	IV		*	VU	Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10048	<i>Hyla arborea</i>	IV		*		Ezezaguna	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
10463	<i>Lacerta bilineata</i>	IV		*		Ezezaguna	1, 5, 20 (EPM bakarrik) 6, 17, 19, 21, 22, 23, 24 (guztiak)
10054	<i>Podarcis muralis</i>	IV		*		Ezezaguna	1, 5, 20 (EPM bakarrik) 6, 17, 19, 21, 22, 23, 24 (guztiak)

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kodea	Mota	DH eranskina	DA erans- kina	LESPRE y CEEA	CVEA	Kontserbazio- egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10059	<i>Triturus marmoratus</i>	IV		*		Ezezaguna	
16551	<i>Zamenis lineatus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	
10071	<i>Alcedo atthis</i>		I	*	IE	Ezezaguna	10
10087	<i>Ardea cinerea</i>		I	*		Ezezaguna	
10091	<i>Asio flammeus</i>		I	*	BAKAN A	Ezezaguna	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
10110	<i>Caprimulgus europaeus</i>		I	*	IE	Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10126	<i>Circaetus gallicus</i>		I	*	BAKAN A	Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10128	<i>Circus cyaneus</i>		I	*	IE	Txarra-Kaskarra	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10145	<i>Dryocopus martius</i>		I	*	BAKAN A	Ona	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
10146	<i>Egretta garzetta</i>		I	*		Ezezaguna	
10154	<i>Falco columbarius</i>		I	*	BAKAN A	Ezezaguna	35, 36, 37, 39, 42
10156	<i>Falco peregrinus</i>		I	*	BAKAN A	Ona	35, 36, 39, 42
10173	<i>Gypaetus barbatus</i>		I	EP	EP	Txarra-Kaskarra	35, 36, 37, 39, 42
10174	<i>Gyps fulvus</i>		I	*	IE	Ona	35, 36, 39, 42
14014	<i>Hieraetus pennatus</i>		I	*	BAKAN A	Txarra-Ezegokia	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kodea	Mota	DH eranskina	DA erans- kina	LESPRE y CEEA	CVEA	Kontserbazio- egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10183	<i>Lanius collurio</i>		I	*		Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10206	<i>Milvus migrans</i>		I	*		Txarra-Ezegokia	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10207	<i>Milvus milvus</i>		I	EP	EP	Txarra-Ezegokia	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10216	<i>Neophron percnocterus</i>		I	VU	VU	Txarra-Ezegokia	35, 36, 38, 39, 42
10236	<i>Pernis apivorus</i>		I	*	BAKAN A	Txarra-Ezegokia	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10264	<i>Pyrhacorax pyrrhacorax</i>		I	*	IE	Ezezaguna	35, 36, 39, 42
10298	<i>Sylvia undata</i>		I	*		Ezezaguna	17, 19, 21, 22, 23, 24 20 (EPM bakarrik)
10322	<i>Eptesicus serotinus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53 52 (EPM bakarrik)
10323	<i>Felis sylvestris</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	1, 5 (EPM bakarrik) 6 (guztiak)
10333	<i>Miniopterus schreibersii</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)
10334	<i>Mustela lutreola</i>	II-IV		EP	EP	Txarra-Kaskarra	10
10338	<i>Myotis blythii</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)
10339	<i>Myotis daubentonii</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Kodea	Mota	DH eranskina	DA erans- kina	LESPRE y CEEA	CVEA	Kontserbazio- egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10340	<i>Myotis emarginatus</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)
10341	<i>Myotis myotis</i>	II-IV		VU	EP	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)
10342	<i>Myotis mystacinus</i>	IV		VU	EP	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53 52 (EPM bakarrik)
10343	<i>Myotis nattereri</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)
10345	<i>Nyctalus leisleri</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53 52 (EPM bakarrik)
10347	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53, 55 52 (EPM bakarrik)
10349	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	IV		*	IE	Txarra-Ezegokia	45, 46, 47, 48, 53, 55 52 (EPM bakarrik)
13984	<i>Pipistrellus pygmaeus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53 52 (EPM bakarrik)
10350	<i>Plecotus auritus</i>	IV		*	VU	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53 52 (EPM bakarrik)
10351	<i>Plecotus austriacus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53, 55 52 (EPM bakarrik)
10354	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)
10355	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 53, 54 52 (EPM bakarrik)

Kodea	Mota	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE y CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10356	<i>Tadarida teniotis</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	45, 46, 47, 48, 53, 55 52 (EPM bakarrik)

8.- JARRAIPEN PROGRAMA

Jarraipen-programa hau sei urteko alditan burutuko da, eta tarteko ebaluazioa ere egingo da (3 urte igaro ostean), administrazio eskudunek koordinatuta

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa /berariazkoa/ emaitza	Adierazlea	Balioa edo hasierako izaera	Erreferentziako helburu balioa (orientatzailea)	Horizontea (orientatzailea)
Pagadiak hariztiak	Goi kalitateko adierazle kuantitatiboen bidez, basoen eta bertako espezie bereizgarri mehatxatuen egungo kontserbazio-egoera ezagutzea.	Kontserbazio egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra-Kaskarra	Zenbatespen kuantitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Baso-antolaketako plan teknikoek eta proiektuek basoen naturaltasun-indizea jasotzen dute, eskura dagoenean.	Naturaltasun-indizea	Ezezagunak	Zehazteke	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Hariztiaren egungo azalera gutxienez ere 50 hektareatan handituko da.	Harizti azaleraren igoera (ha)	602 ha	652 ha 50 ha-ko igoera	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Larre menditarrak	Pagadien eta <i>Quercus petraea</i> hariztien naturaltasun mailak eta egiturazko konplexutasun mailak handituko dira.	Naturaltasun indizeak eta interes ekologikoko zuhaitzak.	Ezezagunak	Kalkulatu eta hobekuntza esanguratsua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Batasunaren intereseko larreen eta haien lotutako flora mehatxatuaren kontserbazio-egoera ezarriko da, adierazle kuantitatiboen bidez.	Egur hilaren bolumena hektareako	Ezezaguna	40 m3/ha	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa /berariazkoa/ emaitza	Adierazlea	Balioa edo hasierako izaera	Erreferentziako helburu balioa (orientatzailea)	Horizontea (orientatzailea)
	Larreak eta larreetako espezie bereizgarriak mantentzea bermatuko duen abeltzaintza-kudeaketa egingo da, zuhaixka-estaldura gehienez % 25ekoa izango duena, eta eremu higatuen azalera edo espezie nitrofiloen eta zapalketara egokituta dauden espezieen azalera gehienez % 10 izango duena.	Abeltzaintza kudeaketa KBE kontserbatzera bideratua (Larreak Antolatze Planoa, KBEaren parametroen eta helburuen arabera).	Desantolatua	Antolatua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Larretako flora mehatxatuko populazio ezagunen biziraupena bermatuko da.	Atzemate eta zenbatze azterlanak. Mehatxuen kontrako babes neurriak hartuko dira.	Ez daude	Badaude eta hobekuntza esanguratsua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Zohikaztegiak eta lurzoru higroturbosoak	Habitat higroturbosoak eta bertako espezie bereizgarriak dauzkaten lekune guztien babesa bermatuko da.	Zenbat lekune babes / zenbat lekune ezagun	Ezezaguna	% 100	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	KBEko habitat higroturbosoen eta bertako intereseko espezieen populazioen kontserbazio-egoera adierazle kuantitatiboan bidez ezagutuko da.	Kontserbazio egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra-Kaskarra	Zenbatespen kualitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Harkaitzetako komunitateak	Harkaiztiei lotutako espezie mehatxatuen populazioen egoera egun zertan den jakingo da.	Kontserbazio egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra-Kaskarra	Zenbatespen kualitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Harkaitzetako eta kobetako komunitateen gainean dauden mehatxu-faktoreak prebenitu eta ezabatuko dira.	Atzemate eta zenbatze azterlanak. Mehatxuen kontrako babes neurriak hartuko dira.	Ez daude	Badaude eta hobekuntza esanguratsua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Kiropteroak	KBEko kirottero-espezieen populazioen banaketa eta egoera zehatz-mehatz jakingo da, bai eta zer faktorek mugatzen duten haien kontserbazio-egoera ona.	Kiroptero espezieen banaketa eta ugartasuna	Ezezaguna	Espezieen % 100erako ezaguna	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera

2016ko abuztuaren 29a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa / berariazkoa/ emaitza	Adierazlea	Balioa edo hasierako izaera	Erreferentziako helburu balioa (orientatzailea)	Horizontea (orientatzailea)
	Kiropteroen ballabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak handituko dira, habitata kontserbatu eta hobetzearen bidez:				
	Kiropteroen aterpeak egokiro babestuko dira, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.	Aterpe ezagun aktiboen %	Ezezaguna	Ezaguna eta urteko batez beste gutxienez % 2ko igoera	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Kiropteroen errekonozimendu eta balorazio maila hobetuko da, haien garrantzia zabalduz:	Sentsibilizazio kanpainak	0	≥ 1	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera